

ARGIA



SALVA IRIARTE

**«ENTRENATZAILEAK EZ DU
LEHENGO BOTERERIK»**

ANTON KARRERA

«Gizarte hau aldatzeko borrokan jardungo duen Donostia eraiki behar dugu»

NAZIOARTEA

New York lasterketa nuklearra gelditzeko helmuga

GARRAIOBIDEAK

Irurtzun - Andoain autobidea: Leitzarango Lurraldean

GIZARTEA

Bilboko Bronx ez dago San Frantziskon

DOSSIERRA

Dirua: sosak urte nahasian



DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCÉS

POR EL PRESBITERO

RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE

PROFESOR DE VASCUENCE EN EL INSTITUTO DE BILBAO

MIEMBRO DE LA SOCIEDAD LINGÜÍSTICA DE PARÍS, DOCTOR EN TEOLOGÍA

DICIONNAIRE BASQUE-ESPAGNOL-FRANÇAIS

APIAZA (S, Alth.), renóncula, vulg. botón de oro: *renoncule, vulg. bouton d'or.* (Bot.).

APIKA (G-t), apike (G-and-zeg, R), acaso, *peut-être.*

APIKA (E.H.). Proiektu, antolaketa eta zerbitzu informatikoak.

APIKak iadanik euskararentzako hainbat lanabes eta tresna garatua du.

Horien artean:

- Silaba-banaketarako automatikak, euskararako eta gaztelaniarako. "C"z garatua eta OASIS (1985) eta THEOS (1990) sistema eragileetan ezarria,

ZERUKO ARGIA S.A.L. argialetxean. 1994ean Macintosharako.

- Hitz-indexaziorako sistema parametrizagarria (hizkuntzaren arabera)

euskara eta gaztelaniarako, probabilitate handieneko aleatorizazio-

metodoan oinarritua. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aldizkari

Ofizialerako. Atzitze masiboko prozesua eta berorren analisi

automatikoari dagokiona "C"z (XENIX) garatu dira (1987-88).

- EHUko Informatika Fakultatean garatutako XUXEN ortografi-
zuzentzailearen proiektuaren bultzatzaile izan da eta horretarako
zenbait algoritmo inplementatu: hitzen indexazioa eta berorren
berreskuratzea hurbilpen lexikografikoaren metodoaz. DOSen
eta UNIXen ezarria (1988-90).

- Euskarazko indexaziorako iragazle morfologikoa. Baionako
IUTrekin lankidetzan. "C"z (UNIX) inplementatua (1991-92).

APIKAREN esku artean egun garatzen ari diren proiektuak:

- AWR hitz-ezagutzailea: gaztelania, frantsesa, euskara eta
katalanerako. Hizkuntza natural bakoitzaren analisi
morfologikoa oinarritua.

- Aplikazioak: * Autozuzenketa multikausala.

* Testu-indexazio eta -berreskurapena,
hizkuntza-domeinuak mugatuz.

The logo for APIKA features the word 'APIKA' in a bold, stylized, sans-serif font. The letter 'A' is black with a small orange square above it. The letter 'I' is black. The letter 'K' is black with a small green square above it. The letter 'A' at the end is black with a small green square above it.

PROIEKTU, ANTOLAKETA ETA ZERBITZU
INFORMATIKOAK

DONOSTIA: Ametzagaña, 19 - behea - Tel (943) 28 33 99 - 28 36 78 / Faxes: 2746 00

URRUÑA: Xalbardin Baita - Tel: (07.33) 59 47 60 00 - Faxes: 47 60 01

BARCELONA: Aragó kalea, 63 - behea 1 - Tel: (93) 226 49 24

6. Politika kronika. PELLO ZUBIRIA.
8. Antton Karrera, IU-EBko zerrendaburua Donostiako Udaletxerako. «Autodeterminazio eskubidea hemen eta Madrilen defendituko dugu». MIKELJAUREGI eta PELLO ZUBIRIA.
12. Asteazken zehar. XABIER LETONA.
14. Apirilaren 16an Nuklear garapenaren Aurkako Konferentzia hasiko da New Yorken. Stop arma nuklearrei. XABIER LETONA.
18. Hernaniko Orona enpresak igogailuak frogatzeko 71 metroko dorrea eraiki du. Igogailuen ipar-orratza. XABIER LETONA.
20. Maiatzean zabalduko dute Irurtzun-Andoain autobideko Gipuzkoako zatia. Leitzarango lurraldean. ARANTXA ERASUN eta AINHARA ZUAZABEITIA.
23. Bilboko Bronx ez dago San Frantziskon. MYRIAM GARTZIA.
26. Manolo Campos: «Justizia egitean ustezko lagunak galtzen dituzu». MIKEL ALDASORO.
29. Dosierra: Dirua.
45. Salva Iriarte: «Zuzendaritzak ezer eskaintzen ez didan artean ez dut ezer erabakiko». MARTIN AGIRRE.
50. Kultura kronika. J.J. PETRIKORENA.
53. Apirilaren 23an Liburuaren Eguna egingo da Hego Euskal Herriko hiriburuetan. San Jose loreekin batera idazlan berrien usaina. MAITE ARTOLA.
57. Museoen arteko elkarlanari ateak zabaldu nahi zaizkio. PATXI SARRIEGI.
61. Argitalpenak. J.J. PETRIKORENA.
64. Irrati-telebista. AINHOA GERRA.
68. Aukeran. AINHARA ZUAZABEITIA.
72. Denborapasa.
74. Zeberioaren hizkuntz errota. JOXE MANUEL ODRIOZOLA




SALVA IRIARTE:Zubietako eguneroko lanean zaildua, Toshack galestarra joateak ateak zabaldu zizkion. Eta indarrez eutsi beasaindarrak. Lehen taldearekin aurrera egiteko aldarteaz, datuek 'arrazoia' eman diote. Aurtengo denboraldia honezkero 'amaitua', aurrerantzean aginduak ematen jarraituko duen du kezka bakarra./45

LIBURU EGUNA

Apirilaren 23an, Miguel de Cervantes eta William Shakespeare idazleen heriotzen urteurrenarekin batera, Liburu Eguna egingo da Hego Euskal Herriko hiriburuetan. Argitaletxeak prest dira kale azoketan euren azken lanak aurkezteko.

Poesia, narratiba eta itzulpengintzan obra berriak ikusteko aukera izango da. Besteak beste, Bernardo Atxagak, Koldo Izagirrek eta Jose Luis Otamendik idatziriko lanak./53



KORRIKA 9 dela eta

ARGIAK AEK euskaltegi-tako ikasleen artean egindako zozketan, ondorengoak izan dira irabazle suertatuak.

Saria, ARGIA astekariaren urtebeteko harpidetza dohainik.

- Angelines Aoiz Borango, Tafallako AEK
- Jabier Beltran Mendigutxia, Irungo AEK
- Izaskun Oruezabal Zalbidegoitia, Eibarko AEK
- Juan Kruz Iriarte Bañez, Baztango AEK
- Xabier Ibarra Solloa, Gasteizko «Aixkiria» Euskaltegia
- Sara Ruilpe Pineda, Laudioko AEK
- M. Eugenia Mayora Ystilar, Elizondoko AEK
- Koro Arenaza Lazkano, Amara-Berri AEK
- Arantxa Garikano Kaminoa, Irungo AEK
- Jose Eugenio Alegre Manso, «Itsasi» Altsasuko AEK

Ez dut «Lur» erosiko

ORAIN asko ez dela, ate joka ziharduen norbaitek gure etxean. Zabaldu orduko...:

- «Buenas tardes, vive algún estudiante en esta casa?» esaldiak kolpatu zituen nere belarriak. Uneo amorruek ez zion ia pentsatzeko betarik ere eman buruari. Mihiari, berriz, aurre hartzeko eskubidea eman bide zion, eta:

- Euskaraz mesedez, esan nion.

Badirudi ez zela berarentzat nahikoa izan, ordea, eta euskaraz ederki jakin arren, ez dakit, agian gaztea naizelako edo (honek sarritan dakarren nolabaiteko errespeto faltaz), irrifar isekari baten babespean zera gaineratu zuen: - Zer, ez dakizu gazteleraz ala?

Ekimenera bultzatzen ninduen amorruek gainezka egin zidan orduan eta ahoan korapilatzen zitzaizkidan zenbait hitz trakets ezba hartan artzera gonbidatu zituen. Hala nola, euskaraz hitz egiteko eskubidea nuela esan nion, eta zer esanik ez neure etxean!

Gerora, ez dugula zertan inori euskaraz bizi nahi izatearen arrazoirik ematen ibili beharrik oharitu naiz, eta orduntxe bertan atea itxi izan banio hobeto egingo nukeela ere pentsatu dut. Ez nion itxi ordea. Artean, ez nuen oraindik elkarrizketa haren ikuspuntutik lotsagarriena nabaritu.

Supituki, era entziklopedia hura eza-guna egiten zitzaidan galdetu zizidan.

Zur eta lur gelditu nintzen gizon hura «Lur» entziklopediaz ari zela oharitzean.



Entziklopedia euskaldun bat euskal jendeari saltzen zaiola pentsatu izan dut beti, eta nik behintzat jarrera hori ikusirik laster bidali nuen nire etxetik.

Horrelako langile gehiago baldin badituzte etxez etxe ate joka, lehenengo hitza gazteleraz esanez, eta euskararekiko horrelako axolagabekeria erakutsiz, gaztelerazko entziklopediak saltzea aholkatuko nieke Lur-ekoei. Irabazi gehiago lortuko lukete horrela.

**NAGORE DORRRONSORO
DEBA (GIPUZKOA)**

Helduko da saria

Badira bizpahiru hilabete txirindulari denboraldia hasi zela. Zenbait talde eta txirindulari Tourra, Giroa eta Vueltarako sasoi puntu egokiena hartu nahian dabilta, proba horiek baitituzte helburu. Talde apalenak, berriz, denboraldi hasieratik garaipenaren bila jo eta su, Euskadi taldea horien artean.

Oraindik ez du garaipenik lortu, baina saiatu, saiatu dira. Euskal Herriko Itzulia izan dugu horren adibide. Txomin Perurenaren gidaritzapean, talde osoa gogor lanean. Beti zintzo eta apal, isilean. Iñigo Cuesta txirindulari onentuenekin ibili da etapa nagusietan. Javier Palacinek eta Igor Gonzalez de Galdeanok garaipena gertu izan zuten.

Zorte apur bat baino ez zitzaien falta izan. Baina garrantzitsuena azal dutako gogoia izan da. Horrela segituz gero, helduko dira garaipenak. Jarrai horrela eta zuen lanak izango du merezi duen saria. Euskal Herriko txirindulari-zaleak zuekin gaude.

**IÑAKI LIZARRIBAR
DONOSTIA**

Zuzenketa

PASA den astean arte munduko faltsifikazioen inguruan kulturako orrialdeetan argitaratutako erreportaiak akatsik bazekarren eta hura argitzera gatoz. Gure solaskideetako bat, Donostiako Galeria 16eko arduraduna hain zuzen ere, Gonzalo Suarez gisa aurkeztu genuen, bere deitura Sanchez denean. Errata zuzentzearekin batera, barka diezagun eskatzen diogu lerro hauen bitartez.

ARGIA


JABEA: ZERUKO ARGIA, S.A.L.
LEHENDAKARIA: Joxe Mari Irazusta.
ZUZENDARIA: Pello Zubiria.
Kontseilu Editorialeko Arduraduna: Baleren Bakaikoa.

HELBIDEAK

GIPUZKOA: Zirkuitu ibilbidea, 15.pabiloia. 20160 Lasarte-Oria. Tlf: 37 15 45. Faxe: 36 10 48.
BIZKAIA: Zabalburu 2, 1. ezkerre. 48003 Bilbo. Tlf: 410 34 34. Faxe: 410 37 15.
NAFARROA: Iratxeko Monastegia 70, 3. ezkerre. 31011 Iruñea. Tlf: 17 80 78. Faxe: 17 80 77.
IPARRALDEA: Harrobiko Etxea, 64122 Urruña. Fax-Tlf: 47 17 10


LEGE GORDAILUA: NA 80-1963.
ISSN: 0213-909X.
BATZORDE PAREKIDEA: 72562 E.

INPRIMATEGIA ETA FOTOMEKANIKA: Antza, S.A.L.



kutxa fundazioa
fundación kutxa

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Diputazioa
Kultura eta Turismo Departamendua



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren
laguntza jaso du

Galindo Aberri Egun bezperan

ENRIQUE Rodriguez Galindoren urte onak bukatu dira. Intxaurrendoko koartelek ETaren kontrako borroka kudeatu duen militar honen piztuak orain arteko eraso guztiak gaintuak zituen. Navajas fiskala oinarritzat hartuta Goardia Zibilaren ikurra den gizon honen zuzentasuna auzitan ipini zuten kazetariak bakarrik utzi zituzten orain dela urte gutxi. Eta egunotan, aldiz, egunkari guztien kronikek halako normaltasun harrigarri lotzen dute kolonela Lasa eta Zabalaren bahiketa-heriotzekin, narkotrafikatzaileekin, dozena bat etxebizitzaz osatutako ondareekin... Eta Mikel Zabaltza orbaiztarraren heriotza bera berriro aztertzeke posibilitatea atera digute gossaritarako.

Sokari tiraka azkenean zein zezen plazaratuko zaigun esperoan gaudela,


panorama berri honetako zenbait elementu aipatzea merezi du. Ertzaintzaren zabaltzea bukatzeaz dela, EAJK Guardia Zibilaren presentzia ipintzen du auzitan. Amedoren adarrak goi karguen artean ekarri dituen konplikazioak espero daitezke orain «adar berdean». GAL aferari konponbide txukunago bat eman nahi zaio Madrilen, nonbait. Jose Alberto Belloch dago horretarako beharrezkoa izango den Estatu itun berri baterako lanen erdian. Eta guzti horiekin batera, zalantza funtsezko bat: hain egitura garrantziko eta boteretsua ukitzeak prezioaren bat

izan behar du.

HISTORIKOTZAT jo da ELA eta LAB sindikatuak Aberri Egunari begira elkarrekin plazaratu duten agiria. Ez da gutxiagotarako. Euskal sindikatu historikoa eta ETaren altxotik sortutakoa elkartu dira gizarteari mezu politiko garbi bat eskaintzeko: Euskal Herriak autodeterminazio eskubidea onartzea ezinbestekoa du, bere eskubideen defentsan irmo jokatu behar dute erakunde eta alderdiek, gatazka konpontzeko elkarrizketa eta negoziazio bideak ireki behar dira...

Abertzaleen artean hain hedatua dagoen etsipenaren erdian sindikatuok biztu dute Aberri Egunari berotasun pittin bat eman diezaiokeen sua

Herri Batasunak
Bilboko alde zaharrean duen egoitzako ostatua kixkali zen joan den larunbatez, apirilak 8. Zenbait lekukok goizeko seietan ostatuan leherketa bat entzun eta hari su emanda motor batean bi gazte ihesi ikusi zituela adierazi du. HBko buruzagiek EAJri egotzi diote erasoaren erantzunkizuna, Xabier Arzalluzek susmo horiek ukatu dituelarik. HBko zuzendaritzan gerra zikina berriz biztu daitekeen susmoa dago. (Arg.: M. Ramirez).



ELA eta LABen arteko adostasun historikoa, hala ere, lehenago dago gertatua. 80ko hamarkadako bukaeran Jose Elorrieta eta Rafa Diezek injiniaritzako operazio bat burutu zuten, ordura arte ELA, UGT eta CCOO osatzen zuten ardatza baztertu eta orain fruituak ematen ari den berria martxan jartzeko. Presioak ez ziren gutxi izan, oztopoak ere ez, baina ELA eta LABek lan harremanen euskal esparru propioa aldarrikatu zuten egun hura izan zen euskal sindikalgentzaren gailur historikoa. Joseba Goikoetxea ertzainburua hilez ETak egin atentatuaren ondorioa gainditzea izan zen LAB eta ELAk pasa beharreko testa. Eta gainditu zutela bistan dago.

BESTE ertzain bat hilzorian dagoenean plazaratu da bi sindikatuen akordioa. Bien arteko konpromezuak zein sustrai sakonak dituen seinale. Ajuria Eneko itunaren berunezko urteetan finkatutako adostasunak orain arte hobera egin badu, aurrerantzean ere bai ELAk eta bai LABek beren inguruetatik jasan beharko dituzten presioak gaindituko dituztela pentsatu behar da. Eta ez dira gutxi izango. Bilbon Elkarrik bilduta alderdi abertzaleek hitzegindakoek hainbeste hauts harrotu bazuten, presioak hemen ere ez dira faltako. Hori ere normala da: Bilbon HBren egoitza kixkali ondoren batetik eta bestetik esandakoak entzunda, nekez ezkontzen dira sindikalisten arteko maitasun agerpenak eta politikarien arteko tirabirak. KASen idatziak eta LABen jokabidea ezkontzea erreza egiten ez zaigun bezala.


Baina ez diezaiogun zorionari kaduzitate datarik ipini. Abertzaleen artean hain hedatua dagoen etsipenaren erdian sindikatuok biztu dute Aberri Egunari berotasun pittin bat eman diezaiokeen sua. Sindikatuak gogoratu erazi behar izan diete alderdiei nazio proiektuan urrats zehatzat emateko garaia dela. Iparraldearen egituraketan ahalegin bera egin dute ELBk, Ofizialeak taldeek eta ikasleek. Horiek antolatu beharko lukete Aberri Eguna.

PELLO ZUBIRIA

G O R D E T Z E K O A K

AUTOBIDEAGATIK DONOSTIA HASERRE IRUÑEAREKIN

«Egin» eta «Egunkaria»-rentzako lan egituen duen eta ARGIArekin kolaboratzen duen Joseba Olalde argazkilaria arabarrak ertzainek Gasteizko Legebiltzarraren aurrean egindako protestan egin zizkioten meatxuen ondoren, ELA-Ertzaintzako enplakazioak jaso zituen bere etxean, gehiegikeriak barkatzeko eskatuz. ERNEkoek aldiz Olalde probokatzailetzat jotzen duen ohar bat bidali dute «Egin»-eko zuzendaritzara, argazkilaria gaztearen etsipenerako.



JOSE MARIA GORORDO REN TARTEA

ZER GERTATZEN DA BIZKAIKO FINANTZETAN?

«Udaletxeak, eskean egitera»

AZKEN urteetan baliabide publiko gehienak zentralizatzeko joera areagotzen joan da Eusko Jaurlaritzan, hiritarrengandik gertuen dauden udalen kalterako.

1984. eta 90. urte bitartean, Eusko Jaurlaritzak 3,56an biderkatu ditu bere fondoak, Bizkaitik 47.460 milioi jasotzetik 168.816 milioi jasotzera pasatuz. Diputazioak, epe berean, gestio propioaren diru kopurua 3,55ean biderkatu zuten, 30.507 milioitik 108.263 milioira pasatuz. Udalak, aldiz, epe berean 1,76ko koefizienteari dagokiona handitu ziren, Diputaziotik jasotako 19.110 milioitik 33.648 milioira igaroz.

Udalen kalterako, datu horiek zentralizazioaren handitzea erakusten dute. Jaurlaritzak eta Diputazioak lau aldiz biderkatzen dituzte euren baliabideak, udaletxeek apenas biderkatzen dituzten artean.

Euskal Finantz Kontseilua osatu zen, zeinean Jaurlaritzak eta diputazioek parte hartzen duten, eta honek aipatu instituzioen akordioak direla medio baliabide publikoak banatzen ditu, udalak alde batera utzi. Foru Ogasunen diru-bilketari esker sorrarazten diren sarretetatik, Estatuari 'kupoa' deritzona pagatzeko kantidadea bat gordetzen da, transferitu ez diren zerbitzuengatik. Eskueran dagoenetik,

guztion zerbitzuatarako, Ertzaintza, Justizia edo Insaluderako kasu, kantidadea jakin batzuk gutxitzen dira. Emaitza, Jaurlaritzak eta diputazioen artean banatu beharrekoa da. Geratzen zaienetik, diputazioek gestio propioarako kantidadea bat gordetzen dute, eta gainontzekoa, udalentsat, banaketan parte hartzen ez duten azken kate-begiak.

Baliabide guztiak harrigarri handitu ziren lau urtetan. %30etik gorako urteko hazkunde akumulatiboa. Administrazioen arteko banaketa aztertuz gero, 'lehoiaren zatia' Eusko Jaurlaritzak poltsikoratu duela ohartuko gara. Diputazioak eta udalak askoz gutxiago hazi ziren, %77 eta %27 hain zuzen ere. Dena dela ere, nahikoa ironikoa da ikustea, nola EAJtik banatu zen sektoreak defenditu zuena gero EAJk jarri duen praktikan. Osasuna, hezkuntza, EITB, Ertzaintza... Gasteizko Gobernuaren bereganatzen joan zen funtzio eta konpetentziak ziren, gero eta baliabide ekonomiko handiagoekin. Udalak, esketik bizitzera.

Egoera aldatzeko eta euskal tradizioan hain uztarturik dauden printzipioak indarrean jartzeko ordua da, subsidiaritatea kasu, Europako Batasunean ere moda jarri dena. Ezin da onartu Bilboko Udalak, kasu, 95ean apenas 36.000 milioiko aurrekontua izatea eta Eusko Jaurlaritzak 600.000 milioiko. Ez qal da hau zentralismo argi eta garbia?

***Jose Maria Gorordo**
Bilboko alkate ohia.

Antton Karrera, IU-EBko zerrendaburua Donostiako Udalerako

«Autodeterminazio eskubidea hemen eta Madrilen aldarrikatuko dugu»

LKIn urte luzez jardun eta gero, Antton Karrera IU-EBko zerrendaburua da Donostian datorren maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako. ETako kidea izandakoa, Burgosko auzian epaitu zuten eta VI. Asanbladaren ostean erakunde armatua utzi egin zuen, LKIn sartzeko. Politikagintzan bide luzea egina du, beti ere «gizarte hau errotik aldatzeko asmoa» buruan duela.


Ezer baino lehen, azal ezazu Donostiako IU-EBn darabilzuen saltsa.

Zerrenda osaketa izan da guztia eragin duena. Lehenengo posturako denek niri eman zidaten botoa. Baina bigarrenarako eta gainontzeoetarako ez zen akordiorik lortu. Ondorioz, IU-EBren estatutuak dioen bezala, Euskal Herriko Kontseiluak erabaki zuen zerrenda. «Herri Hats»ekoek egin zitzaizen proposamena ez dute onartu, aurrealdean egon nahi baitzuten. Zerrenda inposatu egin dela diote. Euskal Herriko Kontseiluan EBko jarrera guztiak biltzen dira. Eta Donostiako zerrenda aho batez onartu zen, Bilbon eta Gasteizen ez bezala.

Gauza asko esan dituzte egiak ez direnak, kalte egi-tegatik esandakoak gainera. Gure jarrera barruko demokrazia ukatzea dela, jendea baztertzea dela eta talde irekia ez egitea dela leporatzen digute. Donostiako EBko Kontseiluak Donostiako afiliatuen gogoia ez duela ordezkatzeko esaten dute, beraiek onarturiko kontseilua izanda ere.

PCEkoekin bat eginda estatu kolpea eman al duzu?

Ez naiz inoiz PCE-EPK-koa izan. Bigarren zerrendagai izateko pertsona neuk proposatu nuen, eta bera ere ez da PCEkoa. Hirugarrena ere ez. Dioten bezala 'estatu kolpea' eman bagenu, zerrendan PCE-EPK-koak




«Ez naiz inoiz PCE-EPK-koa izan». (Arg.: Garikoitz Garaialde).

egongo lirateke, baina ez daude.

Dituen boto perspektibak ikusita, ez al dago IU-EBren egitura kontrolik gabeko bazkudean?

Ez nuke hori esango. EBk bere egiturak nahiko sendoturik ditu. Ideia mailan eta zer lortu nahi duen argi dauka. Agian Donostian egitura horiek ez zeuden hain sen-



«Helburuak eta baliabideak lotuta ez badaude ezin da gizarte hau aldatu». (Arg.: Garikoitz Garaialde).

doturik, baina sendotuko dituela uste dut. Hori sendotu gabe egotearen errua, orain «Herri Hats»-en dabil-tzan horiek dute, beraiek baitzeuden Donostiako Kontseiluan.

Nola jokatu duzu Donostia bezalako hiri burges batean?

Donostian oso arazo larriak daude gaur egun. Donostia da Estatu guztian etxebizitza garestienak dituen hiria. Langabezia %25etik gorakoa da, eta lan egiten duten asko egun batean lan eta hurrengoan ez ibiltzen dira. Donostia bizitzeko oso egokia da, baina guztiontzako hiria egin behar dugu. Nola egiten den hori? Lehenengoz, demokrazian oinarritutako

partehartzea lortu behar da. Hori lortu ezean, eta horretarako inguruko auzoei, langabetuei, egun batean lan eta hurrengoan ez dabil-tzanei, etxebizitza topatzeko aukerarik ez dutenei... hitz egiteko aukera ematen ez bazaie, Donostia ez da guztiontzako hiria izango. Ez litzateke gizarte hau aldatzeko borrokan jardungo lu-keen hiria izango.

Zein dira Donostiarako zure programaren berezitasun nabarmenenak?

Batetik, jendeari parte hartzeko bideak ireki behar zaizkio, euren aldarrikape-nak udaletxean behar bezala bideratzeko baliabi-deak jarritz. Bigarrenez, etxebizitzaren kontua dago.

Etxebizitzak jendeak dituen aukeren mailan jarri behar dira. Etxebizitzak egin eta 30 milioi pezetan jartzea alferrikakoa da.

Langabezia %25ekoa da, eta hori konpontzeko nerri zehatzak hartu behar dira: erakunde guztiak batu, horretarako zinegotzi bat izendatu, neurri guztiak zinegotzi horren eremuan sartu... INEMekin, sindikatue-kin, Eusko Jaurlaritzako Lan Sailarekin, Diputazioekin, enpresariekin... plangintza zehatza egin behar da.

Azkenik, ingurugiroaren gaia dago. Kalitatezko bizi-tza egin nahi badugu egune-ro borrokatu behar dugu ingurugiroa zaintzeko. Neurri gogorrak hartu behar dira eta jendea arazoaz ohartzen saiatu behar dugu. **Azken lau urtetan Donostiako gobernu tal-deak egindako lanari zer deritzozu?**

Gauza asko esan eta agindu zituzten, baina lau urteotan

«Partehartze demokratikoa lortu ezean eta horretarako auzoei, langabetuei, etxebizitza topatzeko aukerarik ez dutenei... hitza ematen ez bazaie, Donostia ez da guztiontzako hiria izango»

H A M A R R E K O A

JOSEBA PERMACH

«Ez dut iritzia eman ahal izateko behar adina ezagutzen»

ODON ELORZA

«Alkate izateko friboloogia iruditzen zait»

KORO GARMENDIA

«Politika zaharra egiteko aurpegi berria»

TOMAS GOIKOETXEA

«Hildakoekin ere eztabaidan jarduteko kapaz da»

J.L. IRIARTE

«Nekaezinezko borrokalaria, nahiz eta zenbait puntutan edo gaitan berarekin ados ez nagoen»

MIKEL ZUBIMENDI

«Euskal Herriak teatroa baino proposamen serioak gehiago behar ditu»

JOSU JON IMAZ

«Europara joan zenetik ez dut lehen bezain beste entzuten»

JOSE MARI AGIRRE

«Aspaldiko laguna dut, nahiz eta politikari dagokionez, gero eta urrunago gauden»

ENRIQUE ERENTXUN

«Kirola bakarrik dakarkit burura»

MARIO ONAINDIA

«Apo gehiegitxo jaten ari den lagun zaharra da Onaindia»

ikusí dugu zer egin duten: hor da Benta-Berrikoa, agindutako laguntza ofizialeko etxebizitzarik ez dago, garraio-arazoak ez dira konpondu, langabezia kopuruak okerrera egin du, emakumeen arazoak konpontzeko erabilitako dirua aurrekontuaren %0,17ra ez da iritsi... Sekulako obrak egin dituzte eta egunero egunkarrietan azaldu dira, baina guztia sektore batera zuzendu dute. Beste gauza asko erantzun gabe geratu dira, eta erantzun desegokia emanda beste batzuk.

Eta oposizioko taldeek egin dutena?

Barruan egon ez naizenez, ezin dut behar bezala baloratu. Ikusi dudanez, oposizioa, batipat, EAK eta HBK egin dute. HBK Donostia beraren arazoak konpontzeko proposamenak baino, Euskal Herriko politikaren arazo eta gaiak plazaratu ditu batez ere. Beraz, barreiatuta gelditu da. EAK, oster, ez du oposizio garbirik egin. Lau urteotan ez da oposizio serioerik egin.

Zein koalizioan hartuko zenuke parte hurrengo legealdian Donostiako Udalean?

Maiatzaren 28ko emaitzen ostean ikusiko da zein aukera dauden, eta orain hipotesitan aritzeak ez dakar ezer. Nolanahi ere, koalizioaren bat egiteko orduan, Donostia aldatzeko zein akordio lor daitezkeen eta zein programa duten hartuko dugu kontuan. Baina ez gara aurkezten gobernua nahitaez egoteko. Baldin bagaude hobe, eta ez baldin bagaude geure planteamenduak egingo ditugu eta oposizio serioa landuko dugu.

T A N T O A

Sator bat udaletxera


Antxon Karrera EBN sartu zela esan zidatenean, zimiko desatsegin bat sentitu nuen barranean. Zintzoa, solidarioa, lan-gaitasun handikoa, gizarte hau errotik aldatu nahi duen militante politikoa eta ez politikeroa; euskalduna, Burgosko Epaietako historiko bat. Non daude IUREN merituak horrelako laguna irabazteko? Ezin nuen ulertu.

Ondoren, azalpen bat aurkitu dut, agian oso objektiboa ez dena. Sator bat bezala gogoratzen dut Antxon. Bion tradizioan, kapitalismoaren errai usteletatik noizbait sor daitezkeen iraultzaren aldeko jardueran murgildurik egotea esan nahi du horrek. Dena den, Antxon berezi xamarra genuen gure artean. Ezkertiarra, baina oinak lur gainean izan behar genituela gogorazten zigun. Borrokalaria, kalekoari garrantzia ematen ziona, baina instituzioetan ere

jardun behar genuela errepikatzen ziguna. Hitz batean, ezkertiarren munduan moderatua genuen gure Antxon.

Gure Satortxoak lurrazpian segitzen du, eta bizi ote den seinalerik ez dugu. Etsaitzat dugun sistema hau inoiz baino harroputzago agertzen zaigu, historia bere altzoan amaitzen dela aldarrikatuz. Beraz, ez da harrizkoa talde txiki eta estraparlamentarioetan jarraitzea neketsuegia izatea ezik, nahiko antzua dela izatea ezkertiar askoren iritzia. Hauen ustez, «*errealistak izan gaitezen, ezinezkoa eska dezagun*» jokoz kanpo geratu den ideia da, eta «*errealistak izan gaitezen instituzioetatik abal duguna atera dezagun*» litzateke dagokiguna. Ondorio logikoa, aukera hori ematen dutenen artean tokitxoren bat bilatzea da.

HB hor dago, noski. Baina HBK eta MLNV-k ordezkutzen



JOXE IRIARTE 'BIKILA'
Zutik-eko kidea

duen mundu horretatik urrun xamar zebilen Antxon. Antza denez, Anguitaren eskutik zertxobait berriztatutako eta erakargarriago makilatutako EB toki egokia iruditu zaito bere asmoak gorpuzteko.

Euskadiren autodeterminazioaren aldeko kide sutua genuen Antxon, klase borrokarena bezalaxe. Izango du nahikoa lan Anguita eta Madrazoren partiduan ideia horiek txertatzen. Ezkertiarren artean moderatu zena, ezker-moderatuaren baitan ezkertiar izaten segituko duela espero dut. Zorte on, adiskide!

Norekin ez duzu aginduko berak eskainita ere?

Zaila egiten zait alderdi batzuekin akordio zehatzak egitea, PPrekin esaterako. Zerbait zehatza egiteko serio egin behar da, eta serio egiteko programak ez dauzkagu eta zerrendak ere ez. Bi horiek bat egiten dutenean egiten dira planteamendu horiek guztiak. Erbia harrapatu baino lehen saltzeak emaitza urriak ematen ditu.

Hernanin IUk izan beharreko jokamoldea eta

sortutako istilua zertan bukatu da?

Hernanin zerrenda egina dute eta zerrendan lehengo doana oso emakume serio eta langilea da. Hernanin oso emaitza onak lortuko dituztela espero dut.

Eta zertan geratu da IU-EBk HBri alkatetza itzuliko ziola esanez Tomas Goikoetxeak egin zuen proposamen bura?

Niretzat ez zen une egokia hura esateko, eta hala azaldu nion Tomasi berari. Hau-

teskundeak egin arte, eta emaitzak eta programak zertutu arte, ez dut uste horrelakorik esan behar zuenik, nahiz eta gerorako asmo hori izan.

ETAn ibilitakoa, LKIn ezagutu zaitugu urte luzez. Nola iritsi zara IU-EBra?

ETAn ibili nintzen, Burgosko prozesuan epaitu ninduten, eta VI. Asanbladan gelditu nintzen, hortik LKIn urte mordoia egitera pasatuz. Urte mordoia egin dut borrokan gizarte hau errotik aldatzeko. Baina beti demokrazian oinarrituta. Dugun helburua eta hori lortzeko erabiltzen ditugun bideak ez badaude uztartuta gizarte hau ezin da aldatu. Historiak erakusten duenez, jendea

«**IUREN estatu mailako egitura ez da oztupo Euskal Herriaren eskubideak aldarrikatzeko; pentsatzen duguna galaraziko baligu, jendeak arrazoi izango luke guri espainolista deitzeko**»

«Gizarte hau aldatzeko, elkartasunezko eta berdintasunezko gizarte egiteko, EBk oso proiektu garrantzitsua dauka»

asko borrokatu da eta euren helburuen alde bizia eman dute, baina erabilitako bideak ez dira izan helburuari loturikoak. Ondorioz, helburuak ez dira lortzen.

IU-EBtik gizarte hau alda al daiteke?

Gizarte hau ezkertiarren aldetik aldatzeko, elkartasun handiagoko eta berdintasunezko gizarte egiteko, demokrazia erabiliz, EBk oso proiektu garrantzitsua dauka. Apurka alderdiko gauzak irakurtzen hasi nintzen, oraindik EBkoa ez nintzela, eta oharkabean bertan topatu nuen neure burua. Beharbada Donostian eta Euskal Herrian oro har beste tokietan baino beranduago indartu da.

IUren Estatu mailako egituraketa ez al da soil-neko estuegia?

IUK Estatu mailan indar handiagoa du eta Estatuan lan bat betetzen du. Baina lortzen ari da toki bakoitzean bere politika propioa egitea. Horretarako autonomia behar da. Adibidez, Euskal Herriak autodeterminazio eskubidea lortu behar duela aldarrikatzen dugu EBkook. Eta ez dugu hemen bakarrik aldarrikatuko, baita Madrilen ere. Autodeterminazio eskubidea oinarrizko printzipioa da, eta onartu egin behar da.

ETAn nengoela ere ez nuen nire burua nazionalis-

tatzat jotzen. Gizarte aldatzeko ez dut ikusten nazionalismoa biderik egokiena denik. Nazionalistak beti beste batzuen aurka jardun dute. Elkartasunezko gizarte bermatuz, Euskal Herriak dituen berezitasunak aldarrikatu behar ditugu, eta lehenengoak izan behar dugu horretan. IUren Estatu mailako egitura ez da oztopo Euskal Herrian gauzak


ondo egin eta Euskal Herriaren eskubideak aldarrikatzeko. Pentsatzen duguna galaraziko baligu, orduan bai litzatekeela oztopo. Orduan jendeak arrazoi izango luke guri espainolista deitzeko. Gertatzen ez den artean, ez da oztopo, laguntza baino.

Zer dauka gaurko IU-EBk lehengo EEk ez zekana?

EEK hasera batean izango zituen planteamendu ezkertiarrek, baina une batean oso politika instituzionala egitera pasatu zen. EBk planteatzen badu soil-soilik politika instituzionala egitea, EERI gertatu zitzaien gertatuko zaio. Instituzioetan lan egitea garrantzitsua da, baina ez bada oinarritzen gizarte errotik aldatu nahian zentzuan eta herria osatzen duten kolektiboetan, gizarte ez da aldatuko.

Nola ikusten dituzu Zutik-eko zure kide obiak?

Une honetan bidegurutze batean daude. Bidegurutze horretan nora jo edo zer egin erabakitze prozesuan daude. Hori gaingitu eta aurrerapausoa emango du-



«Lau urteotan ez da oposizio seriorik egin Donostian». (Arg.: G. Garaialde).

te, eta espero dut jende mordoia Ezker Batura igarotzea.

Eta HBkoak?

HBkoak ere bidegurutzean daude. Aldaketa eman behar harko dute. Lortu nahi diren

helburuak eta erabiltzen diren bideak ezkondu ezean, gero eta okerrago joango dira.

**MIKEL JAUREGI
PELLO ZUBIRIA**

**VIAJES
OARSO
BIDAIAK**

**OARSO
VIAJES - BIDAIAK**

ESKI ASTE SANTUAN

PAS DE LA CASA

7tik 4/12ra	19.900 PTA
12tik 4/17ra	32.200 PTA
17tik 4/22ra	23.300 PTA

Barne: Bus + Forfait + Egoitza + izarak

VAL THORENS

7tik 4/13ra	36.900 PTA
12tik 4/17ra	43.900 PTA
7tik 4/16ra	49.900 PTA
14tik 4/23ra	43.900 PTA

Barne: Bus litera + Forfait + Egoitza + tasak

BAQUEIRA

15tik 4/17ra	24.900 PTA
16tik 4/23ra	44.900 PTA
17tik 4/22ra	31.800 PTA

Barne: Bus + Forfait + Egoitza pentsio erdia

CANDANCHU

12tik 4/17ra	25.900 PTA
17tik 4/27ra	11.600 PTA

Barne: Forfait + Egoitza

CAUTERETS

12tik 4/16ra	18.500 PTA
12tik 4/17ra	21.600 PTA
8tik 4/15ra	23.100 PTA
16tik 4/22ra	22.700 PTA

Barne:Forfait + Egoitza

SAINT LARY

12tik 4/16ra	16.600 PTA
12tik 4/17ra	20.900 PTA
8tik 4/15ra	22.100 PTA
16tik 4/22ra	22.100 PTA

Barne:Forfait + Egoitza

ASTE SANTUA BUSEZ

SALOU	13tik 17ra	21.900
SALOU	17tik 23ra	16.200
BENIDORM	13tik 17ra	21.500
BENIDORM	17tik 23ra	22.300
GALICIA	12tik 17ra	30.200
COSTA BRAVA	13tik 17ra	21.800
LA MANGA	12tik 17ra	36.100
FUENGIROLA	12tik 17ra	31.600
FUENGIROLA	16tik 23ra	29.900
TOCHA	12tik 17ra	26.900
ERICEIRA	12tik 17ra	34.200

Barne: Bus+ Egoitza pentsio osoa

Sevilla	12tik 17ra	38.700
---------	------------	---------------

Barne: Bus+ Egoitza A.D + sarrera

Paris Eurod.	12tik 17ra	47.700
Paris Eurod.	17tik 22ra	43.800

Barne: Bus+ Egoitza A.D + sarrera

ASTE SANTUA ABIOIEZ

Praga	13tik 17ra	66.900
Tunex	12tik 17ra	57.500
Mallorca	13tik 17ra	41.600
Lanzarote	12tik 17ra	57.200
Tenerife	12tik 17ra	60.400
Londres	13tik 17ra	59.800

Barne: Abioia+ Egoitza + trasladoak

**TEP
BIDAIAK**

San Marcial 1
Tlf. 420071
Donostia

**OARSO
BIDAIAK**

Segundo Izpizua 6
Tlf. 529984
Errenteria

**TEP
BIDAIAK**

Urbieta 58
Telf. 460688
Donostia

H I R U M U N D U

■ INDEPENDENTZIA EZBAIAN QUEBEC-EN


JACQUES PARIZEAU Quebecoko lehen ministroak iazko hauteskundeak irabazi zituenean, zortzi bat hilabeterako autodeterminazio erreferenduma iragarri zuen. Berak esandako denbora atzean geratu da baina azkenean erreferenduma aurtengo udazkenean egingo da. Quebecois Alderdiak gogotik egin beharko du lan quebecarren egungo iritzi egoera aldatzeko, Parizeauk berak onartzen duen legez, «independentziazaleek orain galdu egingo baikenuke». Sondeoen arabera, populazioaren % 45ek Kanadatik banatzearen alde egingo luke eta % 55 ingururuk aurka. 1980an jada quebecarrek erreferenduma egin zuten: % 40 banatzearen alde azaldu zen eta gainontzekoak aurka.

■ BOSNIAKO GERRA FRONTEAK AREAGOTU


UDABERRIAN jadanik ondo sartuta gaudenean, ohi den legez Bosniako gerra bizitu egin da eta jadanik gerraren laugarren urtea betetzera doan honetan, fronteak gutxi gora-behera geldo daude. Musulman bosniarrek, beren armada ondo hornituta eta berrantolatua dagoela eta, baikor eta eraso gehien aintzindari dira. Alabaina, bosniarren indartze eta guzti egoerak asko aldatu beharko luke egoera itzultzeko. Edozein kasutan, gatazka indar parekatze baterantz abia liteke eta, ondorioz, orain arte posible izan ez den irtenbide negoziatua. Iazko Bihaceko ofentsiba ere honen erakusle zen. Karadzicek gauzak bere lekuan jarri arte.

■ BALLADUR GORA, JOSPIN BEHERA

LEHENDAKARITZARAKO lehenbiziko itzulia egiteko astebete pasatxo gertzen denean, hiru hautagai nagusien arteko borroka, espero zen bezala, sutua da oso. Edouard Balladur lehen ministroak kemenez heldu dio eta Jacques Chiracengana hurbildu da apurka, buruzagi gaullistari Leninenak diruditenak esatera behartuz. Eskuineko espaloian, pragmatismoa eta populismo gordina aurrez aurre izango dira, eta borroka berdinduan. Lionel Jospin sozialistak, bere aldetik, kanpaina bukaera honetan ez du Eliseora hurbiltzeko indar nahikorik bildu eta, ezkerreko sektore ugariak hautagaitzaren SOS deiarri egindako pasoaren ondoren, lehenbiziko itzulia iragango ote duen zalantza piztu da.



Handitasun itxura eman gura arren, arraina bere kutzara sartzeko orduan, Espainiari handien arteko bere txikieria agerian geratzen zaio. Arrantzale galiziarrek duten arrazoiaz gain, gatazka honek «berba ederretatik hurrera jaitsiz» oso agerian utzi ditu Europako Batasunaren atzerri ahuleziak eta Erresuma Batua kontserbatzaileak disidentzia komunitarioan jarraitzeko duen asmoa.



«Txinitoa»

ALBERTO FUJIMORIK lasai irabazi ditu Peruko hauteskundeak eta bestebost urteko agintaldi berrian, lehenbizikoan lotzen hasitakoak amaituko ditu, funtsean ekonomi egoeraren finkatzea eta Sendero Luminosorekin amaitzea. Fujimori 1934an jaio zen Perun, bere gurasoek Japoniak bizi zuen gerra arteko egoera gaitzetik aldegin ondoren. Bere aitak japoniar diziplinaz hezitu zuen eta emaitzak, isilik baina apurka nabarmentzen joan ziren. 1984an jadanik bere unibertsitateko errektorea zen eta 1987-1989 artean Errektoreen Batzarre Nazionaleko lehendakaria izan zen. Geroxeago Peruko telebistako eztabaida saio bat zuzendu zuen, ordu-rako jada politikan parte hartze arabakia zuen.

«Txinitoa» -horrela deitzen baitute herritarrek Perun-1990eko. hauteskundeetara alderdien jarreraren aurkako mezuarekin aurkeztu eta irabaziegina zuen. Irabazi ahala, 'Fujishok' ekonomiko izugarria jarri zuen martxan, eta 1992 estatu kolpe zuria eman zuen. Diktadore usain eta moldeak gaintetik kendu ezin baditu ere, erabateko nagusitasuna lortu berri du.

MUNDUA EZ DA BIRIBILA

Krokodiloaren hazkuntza

1 **990-EKO** iraila. Duela sei hilabete besterik ez, platanondo arteko ospitale hartan gure semea jaio zen. Sei urte Swaitcher doktorearen egiten jardun ondoren, Afrikako gure azken urtea zen, jakin barik funtsean gaztetako ametsa eta heroitasun faltua biziz. Bidea jira-biratsua zen eta azkar gindoazen, eta gain hartatik Ruziziren delta eta harantzako Tanganika lakua ikusten ziren. Edertasuna amaigabea zen eta oraindik sinesgaitzagoa egiten zituen usain txarrak, kirofano orduak eta Ruandan egun batzuetan, miseriarekin egindako gure ohizko jardunean, utzitako goardia egunak. Gizakumearen txikieria eta naturaren jakinduria iraingarria zen.

Burundin geunden, Europan Ruanda oraindik ez zen existitzen eta Rio, Egipto edo Kopenhageko gailurrak egiteke zeuden.

RUANDATIK, Burundi batzuentzat paradisua zen, beste batzuentzat esklabutza. Guretzat, pobrezia estresetik lasai, eguzkitan atsedean hartzeko gure Afrikako ibilbidean leku berri bat gehiago besterik ez. Tanganika krokodiloek eta Stanley eta Livingstonek topo egin zuten lekuaz horrenbeste entzunda, turista arima egina genuen. Behar genuen. Afrikan bi urte jarraian egin eta sustraiak Botxoan daudenean, zenbaitzutan konprometuzari ihes egin behar zaio.

Jende gutxi ikusi genuen eta horrek harritu egin gintuen. Beti azaldu ziguten Ruanda eta Burundi berdinak zirela. Oraindik Ruandan gerra hasi barik zegoen sasoi hartan, Buja *La Belle* deitzen genuen hartako sarreran ikusitako kontrol militarrek ere zeharo harrirituta utzi gintuen. Benetako *towns*ak, Hego Afrikan ikusitako tankerakoak. Bagenekien munduaren sastegian genbiltzala.

Gero Ruandako gerra etorri zen, genozidioa eta 15 egunetan 2.000.000 pertsonaren erbesteratzea. Halaber, europarrentzat oharkabean iragan den zerbait, bi urtetan Burundik izan dituen hiru lehendakarien hilketa.

Ruandakoa konpontzeko dago eta Burundin adierazi gabeko benetako gerra zibila bizi da. Herri biek gaitza berbera dute. Aurtengo udan Ruandakoa Burundin errepikatuko den susmoa dut.

BITARTEAN Medicus Mundi eta beste GKEetatik jende xeheaz lanean darraigu. Halako gertakizun itzelak ulergaitzak egiten zaizkigu, eta mundu honetan doako ezer ez dela gertatzen jakitean, ez dugu ezer ulertzen. Tamalez, gure herrian ere hau batere arraroa ez izan arren.

Inori Iparrean geratzen diren gazte idealistentzat opor makabroak antolatzea ota zaio? Krokodiloek hazten interesik izango ote dute enpresa arma saltzaileek?

Erantzuna hilabete gutxi batzuetan. Tanganika gorri eta heriotzezko *reality show* gehiago. Planifikazio estrategikoak hutsik egiten ez badu.



JUAN CARLOS ARETXABALETA
Medicus Mundiko kidea

Apirilaren 17an Nuklear Ugalpenaren Aurkako Konferentzia hasiko da New Yorken

Stop arma nuklearrei

Apirilaren 17tik maiatzaren 22ra New Yorken, 1970ean sinatutako Nuklear Ugalpenaren Aurkako Itunaren (NPT) luzapena aztertuko dute 171 estatuk. Akordioak berdin jarraituko bide du baina oraindik zalantzak ugari dira. Ituna aurrera ateraz gero, arma nuklearraren desagerpenerako urratsa izango da.

1942-KO abenduaren 2ko arratsaldean EEBBetako Chicagoko Unibertsitateko

areto batean, ikerlari amerikar talde baten algarak hiri osoan entzun ahal izan zi-

ren: lehenbiziz historian erreakzio nuklear bat modu kontrolatuan egitea lortu zuten. Energia sortzeko modu agorgaitzaren alaitasunak hiru urte geroago egin zuen topo bere mugarrekin, Hiroshiman eta Nagasakin, segundo gutxitan gizakumeak botatuko lehen lehergailu atomikoek 200.000tik gora pertsona hil zituztenean.

Zoramenara ordea, geratu beharrean, areagotu egin

zen. Mundua jadanik arma nuklearraren hedapenaren arriskuaren jakinarenean gainera zegoen, eta 1970ean estatu ugariaren artean Nuklear Ugaltzearen Aurkako Ituna (NPT) sinatu zen. Alabaina, itun eta guzti, 1988an Lurreko biziaren aztarna oro milaka bider deusezteko lain arma atomiko zegoen munduan. Hogeita bost urtera 171 estatuk Itunaren luzapena eta izaera eztabaidatuko dute New Yorken.

NPT 1970ean sinatu zen eta bere helburuak energia nuklearraren hedapen horizontala ekiditea, mundu osoa energia nuklearrak baliatu ahal izatea eta nuklear desarmearren negoziazioak bideratzea dira. Akordioak 25 urte bete ondoren Itunaren edukia berrikustea aurrirakusten zuen, funtsean indarrean jarraituko duen erabakitze baina baita edukia zehazteko ere.

Ituna sinatzeaz buruz hiru ikuspuntu nagusi daude: lehen, ituna mugagabe luzatzea, eta honen alde ageriko bost potentzia nuklearrak eta beste 73 estatu daude, horien artean herri garatu gehientsuenak; bigarrenak mugatutako luzapenaren aldekoak, baina behin luza-



Arma nuklear gehienak lur-misiletan kokatuta daude eta hauek asko mugikorrak dira.

STAR II akordioak beteta ere, EEBBek eta Errusiak milaka buru nuklear izango dituzte, mundua aise suntsitzeko moduko kopurua


pen hori amaitu ondoren ituna bertan behera geratu-ko litzateke eta ez legoke luzapen berririk; hirugarrenik, zehaztutako luzapen batzuk onartzen dira baina luzapen hauek amaitu ondoren Itunaren edukia beraztertu beharko litzateke. Estatu askok azken uneraino itxarongo dute zein erabaki hartu baino lehen.

Zaindaritza lanak

ARAZOAK, dena den, ugariak dira, bai NPTk hutsune ugari dituelako baita sinatzaileek akordioaren zenbait punturi muzin egiten diotelako ere, edota jarraipena egiteko jartzen diren neurriak indarrean oso modu apalean jartzen direlako.

NPTk bere kontrol sistematik ditu baina, funtsean, AIEA da (Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentzia) ez-ugalpen nuklearren funtsezko tresna, 1957an sortua, bere helburu nagusiak material nuklearren kontrola eta nuklear elkar-lana da. Gaur egun, NPTren kontrol lana AIEAk egiten du nagusiki, NPTren egiaztatze tresnak nahiko eskasak baitira; izan ere, azterketarako lehenbiziko hutsunea Itunean —kideek horrela nahi izanda— bertan dago: egiaztatze lana erradiazioaz jotako materialaren ikerketatik abiatzen da eta ez instalazio nuklearretik berta-

ARMA NUKLEARRAK MUNDUAN



SESB OHIKO ERREPUBLIKAK. Oraindik ere arma nuklearrak euren eskuetan dauzkate, baina beruek deusezteko konpromezua hartua dute jada.

TXINA. Material eta teknologia nuklearraren hornitzaile nagusia da.

IPAR KOREA. Oraingoz bederen, eta batez ere EEBBen presioak medio, bomba lortzeko ahaleginak alboratu ditu.



ALGERIA. Txina eta akaso Iraken laguntzarekin, nuklear eremua landu izan du.

SIRIA. Misilendako teknologia Ipar Korea eta Txinatik lortu ohi ditu.

IRAN. Uranioa aberasteko egitasmoa du eta erreaktoreak Txina edo Indiari erosten dizkio, erreaktorearentzako errekin Argentina eta misilak Ipar Koreari.

IRAK. Adituen esanetan 1993 edo 1994 rako bomba nuklearra eduki zezakeen. EEBB buru, NBERen adituek bere egitasmo nuklearra indargabetu zuten 1994ean.

BURU NUKLEARREN BANKETA ARMA ESTRATEGIKOETAN



EEBB	5.186
ERRUSIA	4.512
BIELORRUSIA	81
KAZAKHSTAN	1.040
UKRANIA	1.240
TXINA	68
FRANTZIA	18


EEBB	3.908
ERRUSIA	1.506
KAZAKHSTAN	370
UKRANIA	416
TXINA	12

EEBB	3.584
ERRUSIA	3.091
TXINA	68
FRANTZIA	384
ERRESUMA BATUA	192

GUZTIRA

EEBB	9.862
Errusia	10.909
Bielorrusia	81
Kazakhstan	1.410
Ukrania	1.656
Txina	320
Frantzia	402
E.Batua	704
(512 garatzen ari den TRIDENT egitasmoan)	

ITURRIA: «Time» eta «CIP, 1992-1993ko urtekaria»



STAR II akordioak misilen deuseztapena aurrikusten du baina ezin da baztertu misiletatik ateratako materialari erabilpen militarra emango ez zaionik.

tik. Funtsean NPTren egiaztatze sistema hauek «Iparrek Hegoaren aurka ezarritako goardia» gisa hartzen dira eta hortik dator Itunaren iraupen arrisku nagusia.

Horregatik, hain zuzen, gaur egun dagoen egiaztatze sistematik fidakorra, eta bere mugak ditu —batez ere EEBBen kontrola— AIEA-

rena da. Hori bai, aldez aurretik berarekin kontrol baimena sinatu behar da. Hiru kontrol mota daude: bat, arma nuklearrak ez dituzten estatuekin egindakoa baina ugaltzen nuklearraren aurkako akordioak dituztenak, hauetan nuklear eraikuntza eta jardura guztiak ikertu daitezke; beste bat, arma

nuklearrik ez baina ugaltzen akordioaren kontrako ezer sinatu ez duten batzuekin, hauetan normalean instalakuntzak, ekipoa eta zehaztutako materialak aztertzen dira; oso mugatua azken hau. Eta azkenik, arma nuklearrak dituzten estatu ezagunak, baina hauetan egindako lana batez ere gero zaindaritzan baliatzeko erabiltzen da.


Baina zer gertatzen da AIEAk estatu bat arma nuklearrak garatzeko ahaleginetan dabilela sumatzen

duenean? Erakundeak alarma-txirrira jo dezake, baina ezin du su-hiltzaile lanik egin, eta salaketa NBERen Segurtasun Kontseiluaren —Irak eta Ipar Korearekin egin duen legez— menpe jartzen du. Oraingo eztabaida nagusietako bat hori da hain zuzen, AIEAk zigor ahalmena ere bere esku har dezakeen ala ez, funtsean NBeko Segurtasun Kontseiluan bost estatuk betoa jarri dezaketelako eta AIEAko Gobernu Kontseiluan erabakiak gehiengoz erabakitzaren direlako.

Hutsuneak

NTPk aurrera jarraitzea garrantzitsua da, baina jardura nuklearrak oso ugariak dira eta gaur egungo arriskuak, SESBen desagerepenarekin areago, oso handiak. STAR IIak hiru gai nagusi zintzilik uzten ditu. Batetik, ez da ahantzi behar akordia betez gero (alde bakoitzeko 1.000 buru nuklear), mundua oraindik lauzpabost bider 'bakarrik' deusez daitekeela. Bestetik, oraindik ez da tutik esan Txina, Frantzia eta Erresuma Batuko arma nuklearrei buruz. Eta azkenik, STARaren deuseztapena misil igortzailei dagokie, baina ezin da baztertu materialen berresabilpen militarra.

Ez da dena, ordea, puntu



1945-91 arteko armategi nuklear orokorrak, 2003rako aurreasmoarekin. Iturria: «Munduaren egoera 1993». Bakeaz Arg.

NUKLEAR UGALPENAREN AURKAKO ITUNA (*)

Estatu sinatzaileak: 171. **Ituna denboran mugagabea egitearen alde** 76 estatu, horien artean EEBB, Errusia, Frantzia, eta Erresuma Batua. **Mugagabea egitearen aurkakoak:** 13, tartean Iran eta Ipar Korea. **Zalantzan daude:** 82, tartean Txina, Irak eta Libia. Guztiak garapenean dauden herriak dira. **Taiwan:** Itunaren sinatzailea izan arren, ezin du bozkatu ez baita NBeko kidea. **Estatu ez sinatzaileak:** Andorra, Angola, Brasil, Txile, Komoreak, Kuba, Jibuti, Eritrea, India, Israel, Mazedonia, Mikronesia, Monako, Oman, Pakistan, Palau, Serbia-Montenegro, Tadjikistan, Arabiar Emirri Batuek, Vanuatu.

(*) Datuak 1995eko otsilaren 25a artekoak dira.

Arma nuklearren suntsiketaren zailtasunak

KOPURUA. 1988an, buru nuklearren kopuru handiena pilatu zen urtea, 58.000 buru nuklear zeuden. Kopuru horrekin Hiroshimako moduko 1.200 milioi eztanda egin zitezkeen, hots, lurretik edozelako bitzta mota ezabatzeko baina askoz gehiago.

ITUNAK. 1991n sinatutako Nuklear Ugalpenaren Aurkako Ituna (NPT) eta STAR I batetik, eta 1992ko urtarilean sinatutako STAR IIarekin bestetik, 2003. urterako EEBBek eta Errusiak buru nuklearren kopurua 7.500era murrizten dute. Bi potentzien artean mundu osoko arma nuklearren % 95 biltzen dute.

DEUSEZTAPENA. Akordioak eginda daude baina erabaki ez dena da material erradiaktiboarekin zer egin. Erretiratu beharreko armek 150 tona plutonio, arras aberastutako 800 tona uranio eta 200 kilo tritio daukate, eta gaur egun ez dago hauek garantiaz deusezteko modurik. Teknikoki lehegailu atomikoak desegitea nahiko samurra bada ere —zaharkituak geratu ondoren, EEBBetan 1945etik gaurdaino hiru laurden deseginda dago— errekin erradiaktiboaren deusezte oso gaitza da.

MATERIALEN IRAUPENA. Deusezteko nahiko samurra den material bakarra tritioa da (hidrogenoaren gas isotopo erradiaktibo bat), 14 urteko bizia baitu. Plutonioa eta uranio aberastuari dagokienez, oso bizi luzeak eta izugarri kutsakorrek dira. 239-plutonioak, esaterako, 25.000 urteko bizia du eta gramo bakar batek milioi bat pertsona hil ditzake.

MATERIALAREN PILATZEA. Beraz, material hau guztia —erabilera zibilekoa berdin— nonbait pilatu egin beharko da, baina kontua da non eta nola. Gobernuak materiala lurperatzea pentsatu izan dute baina honek ere ez du erabateko segurantzarik; biltegi hauek milaka urte gutxi batzuk iraun dezakete baina gehiago ez. Beraz, kaltea ondorengo belaunaldientzat izango litzateke. Greenpeacek, alternatiba gisa, bilketa proposatzen du baina lur azalean eta gainera, posible denean, desegiteak edo zentral nuklearrak dauden lekuetan bertan, une oro begi bistan egon daitezten.

gehiago dago zintzilik. Erabateko desuseztapena aurrera eramateko diru kopuru izugarria erabiliko ote den —batez ere Errusiaren gaur egungo ekonomi porrota ikusita— zalantza hor dago, material erradiaktiboen legez kanpoko salerosketa, garai bateko Sobietar Bata-

sun ohiko ehun mila ikerlarietako asko munduan zehar dantzan... Beraz, gerra hotza amaitu bide zen baina nuklear eremuko lehegailua indargabetzeko munduak badu burua zerekin berotu.

XABIER LETONA



La Casa del Café

—Juan Irujo S. A.—
DONOSTIA

Hernaniko Orona enpresak igogailuak frogatzeko 71 metroko dorrea eraiki du

Igogailuen ipar-orratza


A

zken martxoaren 31n Orona igogailuen enpresa kooperatibak igogailuak frogatzeko Onddi Dorrea inauguratu zuen. Proiektu honekin teknologia eta etorkizunaren erronkari eutsi gura izan dio Oronak, aurrera begira bere begiak atzerrira ere luzatuz.

HERNANIN kokatutako Orona enpresak eraiki berri duen 71 metroko dorrearekin beste urrats bat eman du igogailuen ikerkuntza eta garapenean. Orona, Espainiako igogailuen eremuko salmenten %15arekin, sektoreko enpresarik garrantzitsuenaren da estatuan. Bere enpresaren tamainari eutsiz

eta teknologiarekiko erronkan pauso bat aurrera eginez, Espainiako era honetako dorrearik handiena altxatu.

Oronako dorreak igogailuen eremuko puntako berrikuntza ekarri du Euskal Herrira, eta bere dorre erraldoiarekin igogailuen gaitasuna, erosotasuna eta garrantzitsuena den segurtasuna frogatu ahal izango ditu. Oronatik azaltzen denez, dorre berri hau beharrezkoa zen, dorre zaharrak ez baitzizkien etorkizunari begira Oronak dauzkan proiektuei erantzuten. Agustin Amosarrain Oronako gerenteak dioen gisara, *«dorreak Oronaren sinboloa izan behar du, urruti begiratu baina oinak lurrean sendo finkatuta duen enpresa»*. Orona 1967an jaio zen, hiru urte lehenago eraikuntza munduan jarduteko sortutako bi enpresen batuketatik hain zuzen. Kooperatiba izaerari heldu zion eta Euskadiko Kutxaren finantz babesean eta gaur egungo MCCko Fago-




Onddi Dorreak 71 metro dauzka eta bi hilabetetan eraiki da, Peña Gantxegi arkitektuari emandako enkarguaren arabera.

ren laguntzarekin gaurdaino heldu da. Halaber, enpresako zuzendariak diotenez, urte hauetan guztietan Ikerlan MCCko ikerketa enpresaren laguntza garrantzitsua izan da Oronaren teknologi garapenean. Orona bera ere MCCren barruan kokatua dago.

Enpresak gaur egun 831 langile dauzka, horietatik 365 Hego Euskal Herrikoak. Halaber, atzerrian ere ordezkariak ditu, besteak beste, Frantzia, Italia, Portugalen eta Erresuma Batuan. Iazko salmentetan 8.083 milioi pezetara (321 milioi litro) iritsi zen.

Eraiki berri den Onddi Dorrearekin igogailuen gaitasuna, erosotasuna eta, garrantzitsuena dena, segurtasuna frogatuko dira; beti ere teknologia aurreratuenak erabiliz



Oronako arduradunek, etorkizunera begira, dorrea ezinbesteko tresnatzat jo dute.

Jardunari dagokionez, Oronak bi eremu nagusi lantzen ditu: batetik, igogailuak, eskailera mekanikoak eta oinezkoentzako atea egiten ditu; bestetik, estalpe handien egiturak eta estalkien sabaiak zer-nolakoak behar duten asmatu, egin, eraiki eta kristalez hornitzen ditu. Onddi Dorrera itzuliz, izena ondoan duen menditik datorkio. Dorrea altxatzeko hasierako urratsek eman zizkieten buruhausterik enpresako arduradunei. *Hainbat alderdi aztertu ziren, dorrearen helburua igogailuen osagai teknikoak eta elektronikoak frogatzea*

zen, hots, abiadura, dardarizoak, zarata, zuloko airearen eragina, indarneurketak... Horregatik eraiki dugu horren dorre luzea, igogailuak azkar ibilaraziz probatzeko, abiadura mugarik gabe.

Handia behar zuela jakin ostean, eta hasiera bateko metalez egiteko ideia baztertuz, Oronak Peña Gantxegi arkitektoari egin zion dorrea eraikitzeke enkargua. Onddi Dorrea bi hilabetetan eraiki da eta aurrerantzean igogailuak arituko dira gora eta behera.

XABIER LETONA

Bonus

I**NBERTSIO** fondoek kudeatzaileek saria edo 'bonus'a jasotzen omen dute urte bukaeran, lortutako emaitzen arabera. Kirol taldeen bezala, goi finantzaren mundu distiratsuan ere hedatua dago prima berezien presio tresna, exekutiboaren arrakasta bidean geratu diren panpin hautsiak neurtzea ekarriko duena ondorio gisa. Bezeroak eta enpresa buruek gauza bera eskatzen diote: ahalik eta reditu handiena ahalik eta denbora laburrenean. Eta honek gure 'yuppie' a pertsona estresatu eta kezkatia bihurtuko du, ordenagailuaren pantailatik begirik kendu gabe biziko dena.



JUAN-MARTIN GOGORZA

¿DRAMA? Ez noski, ez behintzat langile arruntaren —eta kaleratu arruntaren— egoerarekin konparatuz. Ez noa hortik. Alderantziz, Baring Bankoarekin gertaturikoa etortzen zait burura. Nick Leeson, exekutibo prestua eta ausarta, gai izan da Ingalaterrako banku zaharrena porrotera eramateko eta bide batez, nazioarteko finantz sistemari stindu eder bat emateko. Bera ere urte bukaerako 'bonus' horren eraginpean zebilen, *citius, altius, fortius* errepikatzen etengabe bere buruari, ala bankuaren zuzendarien presioa zegoen zuzenean goi tentsioko finantz apustu hoién atzean?

SEGURUENIK, bi joera hoiék eman dira kasuan, eta oro har, eragile nagusienak dira burtsen eta dibisa merkatuen desegonkortasunean. Negozio eta inbertsio bankuek lehen mailako paperari dira hartzen diru merkatuetan, euren betiko bitartekaritza izaera aldatuz. Ohituta gaude ere indar sozialen arabera neurtzea gure gizarte honetan ematen diren gorabeherak, baina behin baino gehiagotan pentsatu beharko genuke Nick Leeson bezalako 'bonus' kumeen pertsona konkretuetan. Hau da, munduko 'klase ertainaren' aurrezkiak gestionatzen dituzten pertsonetan, eta klase honen beldur eta diruzaletasunaren espresio estilizatuak besterik ez direnak.

Maiatzean zabalduko dute Irurtzun-Andoain autobideko Gipuzkoako zatia

LEITZARANGO LURRALDEAN

Datorren maiatzean irekiko du Gipuzkoako Foru Aldundiak Irurtzun-Andoain autobideko Gipuzkoako ibilbidea. Andoainen eta Areson zinta zurigorriek eta goardek zaintzen dute historia luzeko autobidearen zati hau. Leitzarano alboan eta Berastegi azpian dituela, laster milaka autok zeharkatuko dute.


LANEK badiraute ere, Irurtzun-Andoain autobidearen Nafarroako ibilbidea irekita dago jada autoentzat. Aresora iristen garenean ordea, bi herrialdeak lotzen dituen zubibidearen amaieran zinta zurigorriak bertatik aurrera ezin dela igaro adierazten dute. Bertan, gainera, zaindaria jarri dute Nafarroaldeko sarreratik jendea sartzea eragozteko. Zubibide honetako 200 metro Gipuzkoarenak dira eta beste 150 Nafarroarenak, azpitik Leitzarano ibaiaren igarotzen zaiola. Gune honetatik abiatuta ikus daiteke Andoain eta Leitza lotzen dituen bidea, Plazaolako bidea, Nafarroa eta Gipuzkoaren muga bera.

1991n autobidea egiteko lanak hasi zirenetik Areson bertan, Berastegin eta baita Latasa eta Azpirotzen ere, lubizkiak izan dira arazo, Azpirotzen kasuan harkaitza ez

zelako batere sendoa, Berastegin San Antonen lur mugimendu handiak zeudelako eta egonkortasun eza, Lurraldeak bere txostenetan adierazi zuen legez.

Maiatzean inauguratuko duten ibilbidearen 0 kilometroa dugu bi herrialdeak Areso eta Berastegi artean lotzen dituen zubibidea, eta hortik abiatuta lehenengo kilometroaren inguruan, Aitzergako zubibidera iristen gara. «Azpian hezetasun bandiko gune bat du eta maiz aintzirak sortzen dira luraren iragazpena gaitasun-mugara iristen denean», esan digu Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikaria den Juan Mari Artolak. Berastegiko lotunea aurreraxeago dago, San Sebastian ermitaren ondotik igaroz.


Hirugarren kilometroan jarri dute, berriz, Gipuz-



Nafarroa eta Gipuzkoa arteko zubibidea. (A.: G. Garaialde).

koako ibilbideak duen atsedean gune bakarra, Gorosmendiko tunela baino lehenxeago. Atsedean lekuak eskaintzen duen ikuskaria, 604 metroko altueratik, harrigarria da: aurrean dira Izaskun, Txindoki, La-

rraitz... Gipuzkoako ibilbideko gunerik altuena den honetatik Elduairen ere bistan da. Bertako Eaburu menditik autobidea igarotzen zela eta herritar batzuek eta Lurraldeak ere alternatiba bat aurkeztu zioten Aldundiari



■ Aintzergako zubibideak hezetasun handiko gunea du azpian. (Argazkia: Garikoitz Garaialde).

bidea egiteko mendia erditik mozten zelako. Hauek proposatutakoaren arabera, Juan Antonio Amilibia Lurraldeako partaideak azaldu digunez, «*alternatiba zen tunel artifiziala egitea 'trintxeraren' orde, mendibidea askoz ere txukunagoa geldituko litzatekeelako*». Proposamen hau ez zuten onartu arduradunek eta mendia hasieran esan bezala moztua dela ikusten dugu, baita sorturiko lur hutsu-neetan landatu dituzten zuhaitz gazteak ere, guztiak mota ezberdinekoak.

Lurraren egokitzapenak

LURRALDEAK egindako jarraipen txostenen arabera, Gipuzkoan hasieran aurrikusitakoa baino % 70 gehiago egin behar izan dira ezpondak eta betelanak, hau da, lurra ebakitzea —hutsunetik bideratzeko autobidea— eta azpian gelditutako hutsuneak lurrez

betetzea. Lehenengo on-dorioz, lubiziak izan dituzte lanek iraun duten bitartean, horregatik teknika bereziak erabili behar izan dira lurra mantentzeko. Foru Aldundiko Juan Mari Artolak adierazi digunez, «*baimendutako aldapa gehiengoa % 6lkoa da eta biburgunee-tarako gutxieneko radioa % 250ekoa, hori dela eta moldatu behar izan dira lur*

hauek, horretara zailak izaki». Lurraldeak, bestalde, inklinazioa gutxitzea lur hondakin gehiago sortarazi duela eta lehengo egoera berreskuratzeko aukerarik ematen ez duten teknika bereziak erabili izana, «*presioan gaintik botatzen den porlana*», esaterako, adierazi du bere txostenetan.

Aitzuko zubibidean, zazpigarren kilometroan, in-



■ Andoainerraino iristen da maiatzean inauguratuko den autobidearen zatia. (Argazkia: Garikoitz Garaialde).

Ideiaaren kronologia

1972an hasi ziren instituzioak Nafarroa eta Gipuzkoa lotzeko autobide egitasmo batez hitz egiten, baina ez zuten aurrera egin.

1985eko azaroan egitasmoari berriro heldu zioten eta publikoki horretaz hitz egiten hasi ziren.

1986ko martxoan Autobiaren Aurkako Koordinadora osatu zen.

1989ko udan Autobiaren Aurkako Koordinadorak bere alternatiba aurkeztu zuen eta izena aldatu zuen, Lurralde hartuz.

1989ko udazkenean gatazkan ETA parte hartzen hasi zen, komunikatuan kaleratu zuen bere jarrera.

1991ko urtarrilean bi manifestaldi izan ziren Donostian, Lurraldeak antolatuta bata eta instituzioek bestea.

1991ko abuztuaren Eli Galdos Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Lurraldeak akordioa sinatu zuten.

1991ko irailean Gipuzkoako Biltzar Nagusietan akordioa ez zuten onartu.

1992ko otsailean behin-betiko akordioa sinatu zen eta Biltzar Nagusietan onartu apirilean.


1992ko uztailean Nafarroako Gobernuarekin akordioa.

■ Belabietakoa da, zortzigarren kilometrotik hamargarrenera, autobideko tunelik luzeena. 1.820 metroko luzera du tunelak

dusgailuak oraindik lanean ikusten ditugu, 80 metroko zutarriak sartzeko egin zituzten plataformak kendu eta berriz ere bere lehengo egokierara itzultzen. Aste honetan bertan, apirilaren 16tik 23ra egingo dituzte zubibideen tolerantzia frogatzeko saiaketa praktikoak, gune ahulenetan kamioi kargadunak jarritz. Zubibideek osatzen dute, tunclekin batera, autobidearen %40 Miguel Martinez Campos obraren zuzendaria-riaren arabera: «*Orografiak baldintzaturiko lana izan da eta ondorioz mendi bidea da, ez da abiadura handiak hartzeko errepi-
dea, maldaduna baita.*»

Tunelik luzeena

BELABIETAKOA da, zortzigarren kilometrotik hamargarrenera, autobideko tunelik luzeena. 1.820 metroko luzera du eta honen ondorioz segurtasun neurri handiak hartu dituzte honen erabilpenerako: 300 metro bakoitzeko geldiguneak jarri dituzte bide ondoan, erdian bi norabideak elkartzen pasabidea dago, turbinak daude sabaian airea ateratzeko eta telebista kamerak tunel osoan zehar. Segurtasun sistema hau guztia kanpoaldean kokaturik den eraikin batetik kontrolatuko dute, ia martxan jartzeko prest dagoena.



■ Belabietako tunela dugu ibilbideko luzeena. (Argazkia: G. Garaialde).

Belabietako tunela igarota Leitzaran berriz zabalitzen zaigu begietara eta Billabonako Ibarrolako parkeak Onddolar tunelari bide emango dio. Otsabi jada parke bezala ia prestaturik dago. Zabortegizat erabili dituzten gune gehienak garbituak eta birlandatuak dira jada, nahiz eta Lurraldeak iaz aurrikusi gabeko zabortegi gehiagoren sorrera sala-

tu zuen. Inauguratzeke den ibilbide honen 16,5 kilometro Andoainen amaitzen dira. Bertako Karrikako auzokideek eta hainbat herritarrek Lurraldearekin batera salatu duten bezala, maiatzetik aurrera Tolosalde-
Nafarroara eta alderantziz bideratzen den auto eta kamioi trafiko guztia auzotik igarotzen ikusi beharko dute, lotune zuzena egiteko

oinarriak jarri badituzte ere lotunea diru faltagatik egin ez dutelako. Marra zurigorriko zinta dago oraingoz autobidearen sarreran. Maiatzean, hauteskunde bezperatan, moztuko dute eta historia luzeko errepi-
de honen jarria igarotzen ikusi du gipuzkoar herriak.

ARANTXA ERASUN
AINHARA ZUAZABEITIA

BILBOKO BRONX EZ DAGO SAN FRANTZISKON

Baina egon liteke baldin eta droga-trafikoak, pobrezia eta marjinazioa gerarazten ez bada. Azken urteotan auzuneak irabazi duen izaera multi-etnikoak egoera berean utzi du, etorkinen egoera ekonomiko txarra medio. Bitartean, Las Cortes kaleko emakumeak atari ilun eta autoetan moldatzen dira, La Palancako neoiak behin-betiko itzali baitira.

SAN FRANTZISKO ez da Bronx. Te arabiar lurruntsuak mihia erretzearekin

mehatxatu gaitu. Zurrupaka hartu dugu eta hitz egiten hasi da: auzokideek bazka-

ria egingo dutela, gonbidatuta gaudela, marokkoar bikote batena dela taberna, cus-cusa jango dutela. *«San Frantzisko ez da Bronx»* errepikatzen du Antuan Montecatinek elkarrizketaren harira itzuliz. Urteak eman ditu Antuanek San Frantziskoko auzo-elkartean eta ongi dakizki auzoa larri zauritu duten sastadak.

Azken hiru urteotan auzoan dagoen metadona-zentroaz hitz egiten hasi ga-

ra. Auzoek hartutako erabaki garrantzitsua izan zen hura. Toxikomanoen artean metadona banatzeko gune bat zabaltzea, herrialdeko lehenengoa eta bakarra. *«Ezin ditugu begiak itxi. Drogamenpekotasuna jasaten duten gazteak gaixoak dira eta auzoan gaixo gehiegi ditugu»*. Antuanek, behin eta berriro, irtenbide hitza aipatzen digu. Metadona-zentroa edota HIESak jota hiltzorian dauden gaixoak zaintzeko auzo-elkarateak eskatzen duen egoitza ditugu adibide. *«Bestela kale gorrian hiltzen dira»*.

Honelako ekimenak dira auzo-elkarte honi aitzindari ospea eman diotenak, nahiz eta hauek izan, era berean, auzokideen artean banaketa eta sesioa eragin dituztenak. *«Erabaki gogorak izanagatik ere, beharrezkoak ditugu. Egia da herrialde osoko toxikomanoak metadona-zentrorra hurbildu direla, baina arazoa konpontzeaz dago»*. Osakidetzak metadona-banaketa deszentralizatu nahi du eta badirudi Otxarkoagako auzo-elkarateak beste metadona-gune bat zabaltzeko baimena duela. Honekin batera, metadona banatzeko Osakidetzak autobusa jarri



Droga-trafikoaren ondorioak larri zauritu dute San Frantzisko auzoa. (Arg: Itziar Diaz de Durana).



Hondamen politikak eta jarraikako narriadurak asko merkatu ditu etxeak.(A.: I. Diaz de Durana).

du martxan. «Deszentralizatzeko proiektua aurrera jarraituz gero, San Frantziskoko metadona-gunea zonan dauden toxikomanoei zerbitzua eskaintzeko erabiliko da soilik».

Orubeak salgai

TABERNA arabiarretik irten gara. Kanpoan, Udaltzaingoaren hiru auto topatu ditugu. Zainketa oso handia

da jatorri arabiar eta afrikarreko bi talderen arteko borroka baten ondoren. «Baina udal hauteskundeak arte soilik», azaldu du Antuanek ironikoki. «Estatu polizia batean bizi garela dirudi. Identifikazioak anitz dira. Gainera jakin badakite zeintzuk diren droga-trafikorako guneak, baina ez zaie interesatzen hauek benetan zapuztea».

Euria ari du. Hala ere, Las Cortes eta harrobien zonara igotzea erabaki dugu. Azken sei urteotan 31 eraikuntza bota dira zona honetan eta beste 430 etxebizitza botatzekotan dira, Udalak egin-dako hondamendi-deklarazioen ondorioz. «Ehundaka familia etxerik gabe gelditu dira, abalmen ekonomikoa izan dutenek auzoa utzi dute eta gainerakoek ez

San Frantziskoko biztanleen % 40 langabetua da, 60 urtetik gorako pertsonak % 25, 500 familiak soldata soziala behar dute...

dute aukera handirik izan. Zenbait familiak hiru urte eman dituzte pentsio batean udal etxebizitza baten zain». Udalak eraispenagatik 500.000 pezeta (20.000 libera) eskatzen dizkie auzokideoi. «Harrigarria da. 500.000 pezeta izango bahlituzte, ez lukete etxea honda zedin utziko; aitzitik, konpondu egingo lukete».

Nahiz eta zona interes inmobiliario handikoa izan —Bilboko hirigunean dagoen auzoa dugu—, hondamen politikak eta jarraikako narriadurak asko merkatu ditu San Frantziskoko etxeak eta komertzioak eta honek biztanleria aldaketa ekarri du. Bestetik, bota diren eraikuntzetatik % 60 droga-trafikorako guneak zirenez, orain trafiko hori kalera aterata da, begien bistan egiten da.

«Marjinazioak marjinazio handiagoa dakar eta maila ekonomiko txikiko etorkinen bizileku bilakatu da auzoa», jarraitu du Antuanek, Las Cortestik igarotaren bitartean. Zaharkitutako klubuen atarrietan lan bila ari dira travestiak. Ingurua gizonez beteta dago; begiratzea dohainik da. Las Cortesko inguruak ez du Antuan harritzen eta etorkinez hitz egiten jarraitu dugu. «Ondo hartu ditugu lanerako prest dauden etorkinak, baina egia da multzo



«Estatu polizial batean bizi garela dirudi, identifikazioak anitz dira» dio Antuan Montecatinek. (A.: Itziar Diaz de Durana).

garrantzitsua droga-trafikoaren azken katemaila bilakatu dela, egunero biru papelina saltzen badituzte pentsioa eta janaria ordaintzeko badute. Hala lor-tzen dute bizirautea.

Bilboko eroldaren arabera, 16.000 pertsona bizi dira San Frantzisko auzoan eta horietatik % 40 langabetua da, 60 urtetik gorako pertsonak % 25 dira, beste % 20 bat haurrak, 500 bat familia soldata sozialei esker bizi dira... «Badirudi trabeloak direla San Frantziskoko biztanle aktibo bakarrak».

«Mani, mani»

EL barrio no lo limpia ni el mayordomo de la tele, mi niña. Si tienes 'mani' te

cuento como se folla aunque ultimamente es mas un milagro que un 'pecaó', mi niña». Bularretako distirant batek estaltzen dizkio bular biribilak. Hitz egiten duen bitartean, alde batera eta bestera begiratu eta eskua gona labur beltzaren azpitik sartzen du, hankartekoa igurtziz.

Askabiderako bidea hartu dugu, Las Cortes kaletik beherantza. Askabidek hamar urte bete ditu martxoan eta kalean ari diren emakumeei laguntza eskaintzeko sortu zen. Bi emakumerekin hitz egin dugu. «*Une bonetan transexualek emakumeeek baino lan gebiago dute... bezeroen kontua.*» Kale honetako areto asko itxita dau-

de, neoiak itzaltzen ari dira, *nigth-club* gehienak Bilboko beste zona batzuek aukeratu dituzte. Las Cortesen gelditu diren emakumeak beste inon nahi ez dituztenak dira. Badirudi orain atzerriko emakumeek ekartzten dituztela, emakumeen salerosketa dagoela; baina ez hain zuzen ere Las Cortesen.

Bere izenik eman nahi ez duen Askabideko kide honek azaldu digu egoera. «*Gazte gebienak toxikomanoak dira eta 'autoak' egiten dituzte 500 pezetaren truke, 'jakoa' lortzeko. Prostituta zabarrak ez dituzte inon nahi eta 'trabeloei' buruz ez dakigu ia ezer. Azken hauek ez dira Las Cortestik ateratzen eta gauden ghetto barneko ghettorik sakonena osatzen dute.*»

Auzoari buruz mintzatu gara. «*San Frantzisko ez da Bronx.*» Esaldia ezaguna da. Bera han bizi dela txikitant-

dik, ez zaiola inoiz ezer pasatu, Udaltzaingoak ez duela ezer egiten droga-trafikoaren aurka, Askabideko eraikina ere botako dute laster auzokideek ez dutelako euren etxea konpontzeko dirurik, etorkinen artean denetatik dagoela, metadona-gunearen aurrean pilula *trapitxeoa* dagoela...

Iluntzen hasi da. Las Cortestik jaitsi eta San Frantzisko kalean gora, auzoa atzean uzteko gogoia bizi da. Gugandik hogeit bat metrora, etxe bateko atarian bi gazte hitz egiten ari dira. Euren parera heltzen garela, alkandoraren mahuka altxatu eta gazteenak orratza sartu duen bitartean, bestea aurrean jarri da, estali nahian edo. Beraien aurretik pasatzean astakeriaren bat esan digu. Kaleko argiak piztu dira.

MYRIAM GARTZIA
ITZIAR DIAZ DE DURANA

■ **San Frantzisko ez da Bronx» errepikatzen du Antuan Montecatinek. Urteak eman ditu auzo elkartean eta ezagutzen ditu auzoa larri zauritu dituzten sastadak**

Komunikabideen oholtza utzita, bizimodu arruntera itzuli da Manolo Campos

«Justizia egitean ustezko lagunak galtzen dituzu»


Gogoz baino, konpromenez eta itxaropenez eutsi zion 1991n Etxarri Aranazko agintemakilari HBren izenean, baina bere jardueraren ondorioz lortu zuen oihartzuna ez zuela «inolaz ere» espero aitortzen du. 60 urte beteta, beti bezain kaletar eta etxekogizon sentitzen da egunero bazkaria egiten.

AZKEN lau urteotan askok ikurrina eta intsumisioaren aferen ondorioz ezagutu badute ere, Manolo Camposek aitortzen duenez betidanik izan da ezkertiar eta abertzalea. Oraindik gogoan du Etxarriko bi gaztek 1954an soldadutza ez egiteagatik erbestera jo zuten unea, «hemengo jendea beti izan da rebeldea». Berak Afrikan burutu zuen 1956an hasi eta 16 hilabete beranduago lizentziatuz. Izan ere, txikitari aita hil ondoren Manolo zen etxeko diru-iturri bakarra, «eta errepresioaren izuak altxatzen ere ez zizun uzten». Gaur aukeran jarrita, semea bezala, «dudarik gabe intsumiso».

Beste lagun ezkertiar, abertzale eta antifrankista

batzuekin burutu zituen lehenengo 'ekintza politikoak'. ETaren sorrera, Burgosko auzia, Carreroren hilketa, Francoren heriotza eta gainontzeko gertakariak gertutik jarraitu zituen, «beste ezkertiar batzuen antzera». Garraiolari lanak uzten zizkion tartetan ezker abertzaleko udal egituretan parte hartzen zuen.

Orduan itzartzen hasi zen langile mugimendu antolatuan lehenengo urratsak ematera zihoala bizkarrezurreko gaixotasunak jo zuen Campos, lana uztera behartuz eta gero, 46 urte zituela, jubilazioa. Aurrerantzean HBko udal batzordean eman zuen oinarri militantearen lana eta 1991n abertzalearen zerrendaburu izan



«Hemengo jendea beti izan da rebeldea». (Argazkia: Joxe).

zen udal hauteskundeetan. Alkatetza lortzeko aukera zabalak izanda ere, itxaropena bai baina berak dio


hori bainoago konpromezuagatik eta arduragatik onartu zuela proposamena. «Herri txikietan zaila izaten

«Lanean jarraituko dut baina ez nago errepikatzeko prest, nire zikloa bukatu da eta jende berriari tokia egin behar zaio»

da zerrendak osatzea, lan handia egin behar da Udaletxean eta gainera guretzat leku horietan esertzea ez da batere erakargarria.

Aginte-makila lehenengo aldiz estutzeak zirrara eragin zion eta hortik aurrera, «eguneko 24 orduak alkate, beti baitago zerbait egiteko. Bestalde, 14 urte nituela ikasketak utzita eskola handirik ez eta Udaletxeko martxan jarri arte ordu gehiago sartu behar izan nituen».

Komunikabideetan zenbat aldiz atera den galdetuta ezezkoa erantzun du irribarez. «Ez nuen horrelakorik espero. Hasieran Udaletxeko lana baino ez nuen buruan; gero 'politika' ekiditea ezinezkoa dela ikusten duzu». Laster etorri zen independentziaren aldeko mozioa, Espainiako Armadari laguntza ulkatzeko erabakia, berriro ere Udaletxeko balkoian ikurrina bakarrik



«Ni ez naiz politikaria, ez dut horretarako pastarik».

ezarri zenekoa, eta hauen atzetik agerraldi publikoak, prentsaurrekoak, lau epaiketa eta kargugabetzea.

Independentziaren aldeko mozioa zela medio, 1991ko urrian izan zen bere lehenengo agerraldi publikoa. Hitzak ez gogoratu arren, orduko urduritasuna ez omen du inoiz ahaztuko. «Hori bai, independentziaren alde bitz batzuek esateko beti egongo naiz prest».

Orduz geroztik hamaika bider jende eta komunika-


bideen aurrean eta «lasai-xeago» egoten dela onartu arren, erabat ongi egoterik ez duela lortzen berresten du: «Benetan diotsut, ni ez naiz politikaria, ez dut horretarako pastarik».

Hautestontziek lau urteko konfiantza eman arren, hirugarrenean kargugabetu zuten Espainiako Armadari laguntza ukatzeagatik. Legegintzaldia bukatzera doa, dozenaldi bat esaldi balantzea egiteko: «Pena merezi izan du. EAJ eta EAKo zine-

gotziek oraindik ez didate hitzik egin eta erabaki hura guztiona izan zen, horrek tristetzen nau. Justizia egitean ustez lagunak zirenak galtzen dituzu, benetakoek ondoan jarraitzen baitute. Herri osoaren alkatea izaten saiatu naiz, ez bakarrik alderdikoa. Lanean jarraituko dut baina ez nago errepikatzeko prest, nire zikloa bukatu da eta jende berriari tokia egin behar zaio».

MIKEL ALDASORO

BESTE PREZIOEKIN EZER IKUSTEKORIK EZ



Trento
eta Siena

450 saltegi baino gehiago dituen Estatuko lehen erakunde optikoak bakarrik eskaini diezazkizuke betaurreko bildumarik esklusiboan 2.850 pezetatik aurrera. Eta garrantia guztiekin, jakina.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba.

Hernani, 4 - DONOSTIA



ADONDE

HERRI

LARRUN 23

SALGA

LASTER DUZU

Ab... berri bat
REGI ■ POLITIKA: Ezker
ZABALETAK ■ HISTORIA: Euskal
oriografiaz. IOSU CHUECA



SOSAK URTE NAHASIAN



Errenta aitorpena iristearekin hasi gara herritarrok gure sakeletako diruei erreparaka. Politika eta gizarte mailako eztabaida sakonen aldamenean sosak bere garrantzia duelakoan. Ekonomiako gai handiek kezkatzen gaituzte batetik: liberak eta pezetak azken hilabeteotan bizi duten dardarak, gure esportazioek, erakundeek gaineratua duten zorrak... Baina ongi inbertitzen ere asmatu nahi dugu, bankuek darabiltzaten teknika berriak ezagutu, aseguruen funtzionaketa, eta abar. Horiek guztiak jorratu ditugu ondoko orriotan aurkituko duzun «Dirua» gehigarrian.

Konfidantzazko Profesionalak

Zure inbertsioei errentegarritasuna ateratzeko, espezialistak dituzu gidari. Jar zaitez profesionalen eskutan.

AB Asesores. Konfidantzazko Profesionalak.

Xehetasun gehiago nahi bazenu, gure bulegoetara ondoko kupoia bidali edo telefonoz deitu.

AB ASESORES



BILBO: Alameda Mazarredo, 19 • Tlf. (94) 424 87 91 • 48001 Bilbo
DONOSTIA: Fuenterrabia, 30 • Tlf. (943) 42 44 77 • 20005 Donostia
GASTEIZ: Vicente Goikoetxea, 1-1º • Tlf. (945) 13 53 39 • 01008 Gasteiz
IRUÑA: Paulino Caballero, 8-2º • Tlf. (948) 22 85 64 • 31002 Iruña

"AB asesores informa" Aldizkaria jaso nahi dut
Izena:
Helbidea:
Tlf.:
Herria:
Posta kodea:



MAPFRE

OHIZKO ASEGURUETAZ GAIN:

- INBERTSIO FONDOAK
Interes altuenak, erretentziorik gabe
- JUBILAZIO PLANAK
Aurrezteko modurik hoberena


Xehetasun gehiago nahi bazenu, bulego hauetan gauzkazu:

IGARRI Aseguroak
Joxe Mari Loiarde
Gernikako Arbola, 2
650197 • TOLOSA

XABIER ETXEBESTE
Avda. Navarra
653835
• TOLOSA •

MIRIAM eta PELLO
ARIZNABARRETA
Txermin, 21
692219 • BILLABONA

XABIN MUJKA
Dr. Huizi, 4 • 592307
Kale berria, 11 • 300699
• ANDOAIN •



Alemaniarako markoaren indarra Europako sisteman

Alemaniarako Banku Zentralak, Bundesbank daitutakoak (Bubak), betidanik definitu izan du moneta politikarako eskema zurruna inflazioaren kontrol efikazerako. Alemaniak Berlingo harresia erortzearen ondorioz «bi Alemanien» artean sortutako integrazio arazoak gainditu zituela zirudien, moneta masaren kontrakzioa ere lortuz (M3 agregatua). Honek zera esan nahi du: zirkulazioan jartzen den diru kopurua ekonomiaren ekoizpenari egokitzen zaiola, era honetara salneurrietan tentsioak saihestea lortuz.

Joan den martxoaren 30ean finantziar merkatu osoa harritu zuen Bubak maniobra batekin: interes tipo nagusitzat zituenak moztu zituen, %0,5 deskontuaren tasari dagokionez eta %0,35 «reposeko» asteroko enkanteko erregulazio tipoa. Alemaniako interes tipoen jaitsierak inbertsioak

beste monetetara bultzatzen ditu. Estatu Batuetako dolarrentzat, esaterako, hau mesede izan zen hasieran, nahiz eta Japoniarako yen eta Alemaniako markoaren aurrean bere balioa jaisten ari zen.

Pezetari presio

MERKATU guztiak berehala erreakzionatu zuten. Hauen artean, Espainiarako pezetaren berrindartzea, Burtsaren igoera eta interes tipoen jaitsiera ezagutu zuen, bai epe motzera (banku artean), baita epe luzean ere (zorra). Bubaren erabakiak Europako finantza merkatuen egungo egoera argitzea ekarri du, Espainian partikulari. Pezetak azken hilabeteetan presio oso gorrak jasan ditu, eta honen ondorioz %7ko debaluzioa



Alemaniarako interes tipoen jaitsierak inbertsioak beste monetetara bultzatzen ditu. (Argazkia: Garikoitz Garaialde).

Batasuneko Alemaniako markoari kompetitibitate, esportazio eta aktibitate gaitasunaren taiuketa dakartzko azkenaldian eragindako tipoen murrizketak

eta Europako Moneta Sistematik desagertzeko etengabeko arriskua.


Dena den, Alemaniako Banku Zentralaren erabakiak ez ditu espainiar merkatu sistemaren burtsa eta errenta finko arazoak konpontzen. Nazioarteko moneta desorekaren ondorioz atzerriko inbertsiogileek ihes egiten dute eta klima politiko liskartsuak konfidantza eza sortzen du. Ondorioz, Alemaniako markoan babesa aurkitzen zuten kanpoko inbertsiogileek yen eta dolarrera alde egiten dute, baita Europako beste

monetetara ere.

Dolarra eta marko alemaniarren truke moten arteko tentsioak Europako Moneta Sistema ahultzea ekarri dute, bere oreka oinarritzekoetan saneamendu zailtasun haundienak dituzten artean are gehiago.

Alemaniarako markoaren gehiegizko taiuketarentzat mesede izan da, beraz, azkenaldiko tipoen murrizketak, kompetitibitate, esportazio eta aktibitate gaitasunaren taiuketa baitakartzko.

MARCIAL HERRERO



Alberto Matilla, AB Asesores Norteko burtsa asesorea

«Ondasunaren zati bat dibisetan inbertituta eduki behar da»

Norbaitek inbertsioren bat egiteko asmoa izanez gero beharko lituzkeen aholkuen bila jo dugu burtsa aholkulari honengana. 1.000.000 pezeta (40.000 libera) izanez gero eta diru kopuru hori duen pertsona baten ikuspuntutik abiatuta, aholkua eta egungo egoeraren azterketaren eske jo dugu Alberto Matillarengana. Hizpide izan ditugu joan den apiriletik hona inbertsiorik egin nahi dutenek kontuan hartu behar dituzten diru merkatuaren ezaugarriak, dibisen egoera eta hauei buruzko aholkuak, pentsio eta prebisio fondoak eta Altxor Publikoa, besteak beste.


Iazko apiriletik honantz zein dira inbertsio bat egin nahi duenari aldatu zaizkion oinarritzko datuak?

Epe motzeko interes tipotan igoera egon da. Altxor Publikoan interes tipoak %10-etik gora igo dira azken enkanteetan. Euskobonoetan apurka interes tipoak igo-tzen joan dira. Bestalde, Moneta Aktiboen Inbertsio Fondoek (FIAM), epe motzera inbertitzean eta epe motzeko interes tipoak igo-tzean, euren errentabilitatea hobetu dute.

Azkenaldian fondo garantizatuak jarri dira modan. Hauen abantaila da fondook epe jakin batean egin daitezkeela errentabilitate garantizatu batzuekin: ez duzu kapitala galtzen.

Moneta ezberdinek darrabiltzaten bideak ikusita, zein dibisetan inbertituko zenuke gaur?

Normalean ez dugu dibisa bat aukeratzeko, dibisa talde bat baino. Hain zuzen, dibisetan eginiko inbertsio fondo bat kaleratzea pentsatzen ari gara, soilik dibisen gordailuetan inbertitzen duena.



Zor publikoan kapitalaren berreskurapena seguruagoa da. (Argazkilaria: Garikoitz Garaialde)



Inbertitzeko normalean ez dugu dibisa bat aukeratzten, dibisa talde bat baino. (Argazkilaria: Garikoitz Garaialde).

Beti ekonomia garatua duten herrialdeen dibisetan inbertitzeko gomendatzen dugu. Une honetan guk daukagun dibisa taldea, Europako Batasunaren eremuan, markoak, suitzar frankoak, Frantziako libelrak, Danimarkako koronak... osatzen dute. Ikusten denez, moneta indartsuak dira, markoaren eremuak. Beste eremu ekonomikoetan, amerikar dolarra, yena..., dollarraren eremuko monetak.

Pentsio eta prebizio fondook daude indarrean.

Ongi aukeratzeko aholku batzuk emazkiguzu.

Pentsio fondoek daukaten tratamendu fiskala ikusita, jendeak horretara tratamendu positiboa izan dezakeena bidera dezala. Mugei buruz ari naiz. Tontakeria da mugen gaintetik joatea. Daukan tratamendu fiskala luzera ordaindu egiten da. Aurrezteko diru gehiago baldin badauka, baztertzailleak ez diren beste aktibo batzuk badaude: inbertsio fondoak...

Mundu guztia mintzo da zor publikoaren kontra. Baina ez al dira inber-

tsiorik seguruena administrazioaren zor jaulkipenak?

Dirua berreskuratzeko segurtasunari dagokionez, bai. Zor publikoan kapitalaren berreskurapena seguruagoa da. Ahalik eta garrantia gehien eskaintzen duten aktiboetan inbertitzen saiatu behar da. Segurtasunaren beste alderdia, inbertsio bat egiten denean dauden us-teak eta itxaropenak beteko direneko segurtasuna da.

Erresuma Batuko Barings Bank-ekin gertatu denak jende asko aztoratu du. Espekulazioak hartu duen abiadurarekin, zein ziurtasun dauka inbertsoreak gaur?

Barings Bank-en lur-jotzea deribatuen merkatuan oso egokia ez zen kobertura baten ondorioz gertatu da, oso

espekulatioak baitziren. Deribatuen merkatuak oso teknikoak dira, eta kobertura bezala erabili behar dira. Karteren gestioaren, inbertsio fondoaren, baloreen karteren, errenta finkoko karteren... kobertura gisa tresna bikainak dira. Gertatzen dena da espekulazioaren bidetik erabili direla. Benetako profesionalen merkatuak dira horiek.

Atzerrian inbertitzeko aholkurik ematen al duzu?

Europako Batasuneko herritar guztiak hel daitezke kapitalen merkatuetara, kapitalaren mugimendurako aske dira. Baina argi dago ondasunaren zati bat dibisetan inbertituta eduki behar dela.

**MIKEL JAUREGI
ARANTXA ERASUN**

«Azkenaldian fondo garantizatuak jarri dira modan; hauen abantaila da fondook epe jakin batean egin daitezkeela errentabilitate garantizatu batzuekin: ez duzu kapitala galtzen»



BIZITZA ASEGURATZEKO MODUAK ETA ABANTAILAK

Aseguruen munduak hainbat behar eta ezbeharri aurre egiteko polizak sortu eta eskaintzen ditu. Autoa dela, etxebizitza edota denda aseguratzea gauza normala bihurtu da, baina badira hainbat eskaintza, pentsio edo bizitza aseguruak direla kasu, oraindik ere oso kontuan hartzen ez direnak.

Aseguru-erakundeen irudia ere ez dago guztiz sendotuta. Hau guztia jorratu dugu orriotan.

ETXEBIZITZA dela, denda, ibilgailua, erretiroa... aseguru munduak hamaika behar eta ezbeharri erreparatzen dio. Baina, jendeak erreparatzen al die aseguru etxeei? Zer nolako sarbidea izan dute Euskal Herrian? Mikel Arrastoa, aseguru-bitartekaria mintzatu zaigu gai honetaz: «Europarekin alderatuz gero, pentsakera ezberdinez jokatu izan da. Horretan eraginik izan du hainbatetan nabarmendu den profesionaltasun faltak, babes eskaseko polizak eskaintzeak... Bankuetan konfiantza bandiagoa du jendeak, European alderantziz denean. Dena den, pixkanaka aldatuz doaz gauzak eta gure irudia garbitzen eta sendotzen ari da. Profesionaltasuna gora doala ikusten da».

«Aseguratu zeurea. Guztion mesederako» lelopean kanpaina egin berri du Gipuzkoako Foru Aldundiak, gipuzkoarroi behar bezala aseguratuta ez egotea milaka milioi pezeta kostatzen ari zaigula eta honi aurre egiteko eskatuz. Aseguru-erakunde edota bitartekariengana jotzeko deialdia zabaldu du finean, eta honek adierazten digu, aurrekoarekin lotuz, zertan den egoera. Bizkarrak zaintzeko ere balio izan dio, hala ere, kanpainak, Lagun Aroko Donostiako bulegoko arduraduna den Jose Manuel Toledok esandakoaren arabera: «1992ko uboldeek egundoko kaltea ekarri zuten; denda eta auto asko aseguratuta gabe edo gaizki aseguratuta zeuden, eta kalte-ordain haiek bere gain



■ Etxeko zimenduetatik abiatu behar du aseguru oso batek.

hartu beharrean aurkitu zen Foru Diputazioa. Gertaera bonek kontzientziaturik ekin dio kanpainari, eta aurrerantzean ez dadin gertatu balako kostuak bere larrutik ordaindu beharra.


Jose Manuel Toledok goizegi dela dio kanpainak

eman ditzakeen fruituez hitz egiteko, baina, oro har, aseguru etxeentzat mesedegarria gertatu dela: «Kontzientzia sortaraztea izan du helburu nagusia. Hazia landatu da, gero fruituak jasotzeko. Gure zeregina izango da hemendik aurre-

rakoa, hau da, ikusten diren hutsuneak bete eta gure irudia sendotzera jo behar dugu: aseguru asko gaizki egiten dira, hainbatetan ez da jakiten poliza batek zer betetzen duen, eta noraino, lapurreta kasuak direla, uraren kalteen inguruan, erantzukizun zibila...».

Zer aseguratzen den eta zergatik

HUTSUNEAK hutsune, eta Europari begiratuta atzean bagaude ere, Estatu espainiarraren oso gainetik aseguratzen da jendea Euskal Herrian. 325 aseguru etxe izango dira Estatu espainiarrean eta hauetarik gehienek beren sukurtsala dute Euskal Herrian. Auto aseguruak, etxeenak eta dendatakoak dira gehien egiten direnak: «Jendeak batipat, ondareari erreparatzen dio,



Autoak bezala, aseguruak beste eremu batzuetara zabaltzen ari dira.

eta ez hainbeste bizitza aseguruari, adibidez. Eraikuntza gebienak aseguratuta daude, eta baldintza onetan gainera, baina bizitza aseguruak gutxi egiten dira, nabiz eta hauen kopuruak

gora jo duen azkenaldion», Mikel Arrastoak adierazi digunez.

Datu zehatzak aipatzearen, Euskal Herriko biztanleen %70ek bere etxea aseguratuta du. Bestelako

zifrak nagusi dira baina, beste alorretan, lehen aipaturiko bizitza aseguruetan, kasu. Zertan dago hutsunerik handiena? «Bizitza eta bonen ondorioak aurrikusteko kontzientzia gutxi da-

ZURICH ASEGURROAK

GIPUZKOAKO pertsonen, ondasunen eta industriaren zerbitzura jartzen du bere Agenteen profesionaltasuna

ARRASATE. Nahalako Errebala, 7
ASESORIA ARRASATE

ARRASATE. Eskatu Eraikina, 3
CASIMIRO BRIZ

AZPEITIA. Goiko Kale, 5
JABIER ARREGI

BEASAIN. Esteben Lasa, 7
GURUTZ BARANDIARAN

BERGARA. Domingo Irala, z/g
JESUS ELKORO

BILLABONA. Nagusia 37
TOMAS IRAOLA

DEBA. San Roke 2. behea
JUAN A. ALZIBAR

EIBAR. Errebal kalea 14, 1 eskuin
JUAN IZAGIRRE

EIBAR. Plaza barria, 8
FERNANDO LEJARDI

ELGOIBAR. Artekale z/g
CONSTANTINO ROMERA

ELGOIBAR. Rosario 2
NIKOLAS ZUBIAURRE

ERRETERIA. Uranzu, 1
JUAN JOSE ARTOLA

HERNANI. Gudarien plaza 13
JAVIER SARRIEGI

HONDARRIBIA. Artuzkok Matxin
MERCEDES ARTOLA

IRUN. Luis Mariano, 33
TOMAS BEUNZA

OÑATI. Euskadi Etorbidea, 15
MARI MAR URRUTIA

ORDIZIA. J.M. Barandiaran, 1
MIGUEL ANGEL ROYUELA

PASAIA SAN PEDRO. Araneder 1
PEDRO ANDUEZA

TOLOSA. Pablo Gorosabel, 18
FRANZISKO LARRARTE


URRETXU. Labeagaka 33 behea
AGUSTIN ELIAS

ZARAUZ. Mandoz z/g
JUAN C. INTXAUSPE

ZALDIBIA. Urdialetxe kalea z/g
BIZENTE SAINZ SAN MARTIN


ZUMAIA. Bonifacio Etxegarai, 2
PATRICIA CAMACHO

Gipuzkoarako zuzendaritza, Fuenterrabia kalea, 24, DONOSTIA
Tlf.: 42 94 62 (8linea) • Faxa: 43 02 98



go oraindik, pensio aseguru-
ruen kasuaz ari naiz. Duela
40 urte, kotizazioaren bi-
tartez jubilazioa lotzeko
modua zegoen; egun, bai-
na, pensioak murriztera
egin dute eta beste iturri
batzuren beharra dago
etorkizuna asetu nahi ba-
da», Jose Manuel Toledok
adierazi digunez. Erantzuki-
zun zibilaren inguruko ase-
guruak ere, gero eta pre-
miazkoagoak izango direla-
koan dago.

Puntu honetara iritsita,
jubilazio aseguruak nola
funtzionatzen duten argitu
digu Jose Manuel Toledok:
«Hilabetean diru kopuru
jakin bat jartzen da; kopu-
ruaren ehuneko hainbat
jubilazioa osatzeko doa



zuzen, eta beste ehuneko
aseguru-erakundearen in-
bertsioetara bideratzen da,
eta jasotzen diren etekine-
tatik hainbatekoa boltsiko-

ratzen du. Beti ere, beze-
roak erabakitzen du pen-
tsioa noiz eta nola jaso.

Ugariak izan daitezke,
ikus daitekeenez, asegu-

tzeko arrazoiak. Gure solas-
kideek diotenaren arabera,
gero eta ugariagoak.

Erretiro
garairako
aseguru-
pribatuak
ugaltzen
doaz.

AINHARA ZUAZABETIA

**AHOLKULARITZA ETA GESTIOAK
LAN ARLOA, ZERGA, ZUZENBIDEA, ENPRESAK...**

**AUDITORIAK
INFORMATIKA
TASAZIOAK
NEURKETAK**



**DIRU-LAGUNTZAK
KONTABILITATEA
EKONOMI-AZTERKETAK
ANTOLAKUNTZ-MOLDAKETA
ETA ANALISIA**

Illunbe kalea 5 • Tlf.: 45 74 00 - 45 41 13 • Faxes: 46 11 64 • 20011 DONOSTIA




Fiansa

Financiaciones, inversiones y
 analisis, S.A.
Eurosafei, Sociedad de Valores y
 Bolsa S.A.-ren delegatua
ONDARE ETA INBERTSIOEN GESTIOA

- ESTATUAREN ZOR PUBLIKOA KUDEATZEN DUGU
- ERRENTA TINKO ETA ALDAKORREAN ARITZEN GARA
- INBERTSIO FONDOAK
 - FONDTESORO (FIM ETA FIAMM)
 - EUSKOFONDO (EUSKADIKO ZOR PUBLIKOA)
 - FONRENTA INTERNACIONAL (DIBISAK)
 - FONPATRIMONIO (MISTOA)

**Inbertitu orain FONBOLSA PLUSen; hasierako inbertsioa galtzeko
arriskurik gabe (inbertitutako kapitalaren % 100 mantentzen du), eta halaber
IBEX-35en balizko igoeren portzentaian parte hartzen du.**

Askatasun Ibilbidea 33, 2. • 20004 DONOSTIA • Tlf.: 42 36 17 • Faxes: 43 11 91



Esportatzea euskal ekonomia-aren helburu nagusia

MUGASARIAK eta inportazioarako eragozpen diren hainbat neurriren desagertzea, Espainia Europako Ekonomi Elkartera sartzearen ondorioa izan zenak, modu nabarmenean hazi zirenen atzerriko ekoizleen salmentarako aukerak eta saltzaileok merkatu espainola hornitzen hasi zirenen tradizionalki euskal industriarena izandako eremu batean.


Egoera honetan, iraganean baino askoz gehiago esportatzea euskal ekonomia eta industriaren helburu nagusi bihurtu da, hori baita enplegua eta aberastasuna sortzen jarraitzeko bide bakarra.

1994an gurean %22,6 hasi zen produktu ez-energetikoen kanporako salmenta, 0,874 bilioi pezetara helduz, hots, joan den urteko 0,713 baino laurden bat gehiago. Oso baikortzat jo behar da bilakaera hau, batez ere azken aldian geldian zegoen

joera-aldaketa adierazten duen aldetik.

Ekipo-ondasunak, makina eta aparailu taldea eta garraio materialen esportazioa 0,357 bilioira iritsi zen (1993an 0,282) -urteko %26,6ko igoera, beraz, eta honenbestez lehenengo postuan nabarmen jarraitzen dute esportazio bolumenari dagokionez, produktu ez energetikoen %40,8 osatzen baitute. Nazioarteko merkatuan ondasunok duten garrantzia azpimarratu behar da, daukaten bolumen ekonomikoagatik eta, batez ere, hauek produzitzeak dakarren balio erantsi eta esku-lan kualifikatuagatik.

Metal arruntek eta euren manufakturek 1989an hartutako bigarren lekuan darrate, 0,624 bilioi eta urteko %17,8ko hazkundearekin. 1994ri dagokionez produktu ez energetiko hauen esportazioak guztiaren %30 osatzen du, puntu batzuk gal-



90eko hamarkadan ekipo-ondasunek nagusigoa kendu diote, esportazioei dagokionez, metalei eta euren manufakturei.

duz 80ko hamarkadako azken urteetan ohizkoa izandakoarekin alderatuz. Produktu hauen kanporako salmentak, nazioarteko egoeraren oso eraginpekoa, osoaren %70 egiten du ekipo-ondasunei gehituz gero.

Inportazioak gora

EUSKAL ekonomian esportazioen hazkundeak inportazioena ere badakar, eta halaxe izan da 1994an. %23,3 hazi ziren, 0,644 bilioi biribilduz. Ekipo-ondasunek eta horren barruan makinek eta aparailuek, eta era berean metalek eta euren manufakturek hartzen dute tokirik garrantzitsuena.

Kuantifikatzea zaila izanagatik ere, hurrengo bost urteetan atzerriko salmentak bikoiztea, handinahia izan arren, seguruenik beharrezkoa izango da. Epe motzera, 1995ean, badirudi azken jardunaldiko hazkunde-erritmoa mantentzeko, devaluazioaren laguntza handia tarteko; baina joera hori egonkorra izan dadin lortzeko enpresarien borondatea, aldeko egoera orokorra eta Administrazio Publikoaren ohizko laguntzak beharko dira, beti ere garaiko zirkunstantzietara egokituta.

CARMELO URDANGARIN

Egungo egoeran, iraganean baino gehiago esportatzea euskal ekonomia eta industriaren helburu nagusi bihurtu da, hori baita enplegua eta aberastasuna sortzen jarraitzeko bide bakarra



DIRUA BULEGOEN MUGAZ GAINDI MUGITZEN HASI DA

Teknologiaren aurrerapenen abiada izugarriaren eraginez ohizko denbora eta espazio formak gainditzen ari dira egun aurrezki kutxa eta bankuak. Kutxazain automatikoak, telefono bidezko bankua, teleprozesuak eta ordutegien zabalketek banku-eragiketen ohitura tradizionalak hausten dituzte eta abiada, erosotasun eta eskaintza zabalagoak sortarazten dituzte. Amaituak dirudite banku atarrietako ilara luzeek.

KUTXAZAIN automatikoak jada oso ezagunak bilakatu dira aurrezki kutxa eta bankuak erabiltzen dituzten bezeroentzat, eguneko 24 orduetan, eta urteko egun guztietan hainbat eragiketa egitea baimentzen baitute. Dena den, zerbitzu hau joera zabalago batean kokatzen dute aurrezki kutxetako arduradunek, ordutegi zabalketan hain zuzen ere. Bankuan eragiketa bat egitekoan goizetan izaten ziren ila-

ren irudi hori alde batera utzi nahi dute eta bezeroen beharretara, ordutegietara egokitu. Horretarako beharrezkoak dituzte teknologiak eskaintzen dizkieten abantailak eta orain arte hauek kutxazain automatikoetara zuzenduak izan dira. Dena den, orain bide berriak ere irekitzen hasiak dira eta telefono bidezko bankua, ordenagailu bidezko komunikazio zuzena eta ordutegi gero eta zabalagoak errealitate bilakatu dira.

Ordutegiak zabaltzeari dagokionez, Euskadiko Kutxako Publizitate arduraduna den Juan Cidek horren aldeko apustu garbia egin beharra azpimarratzen du: «Bezeroei zerbitzua eskaintzearen ideia berruaren barruan erabaki genuen duela urteak kutxazain automatikoen ugaltzea eta teknologia horretarako erabili genuen, baina joan den urtean jauzi kualitatibo berri bat eman genuen: bulegoak arratsaldez irekitzea. Orain 20 bulegotan ezarri dugu, 30 ere laster lortuko ditugu, arratsaldeko 8ak arteko ordutegi komertzialarekin. Orain arte langileen baldintzak goizeko lan ordutegiarekin soilik izan direnez, barne mailan hitzarmenak



Kutxazain automatikoak dira autozerbitzuaren tresna hedatuak. (Argazkia: Garikoitz Garaialde).

egiten saiatuko ei dira.

Bulegora joan gabe zerbitzuak eskaintzeko bideak ere zabaltzen dituzte kutxek eta bankuek. Helburua eguneko 24 orduetan ahalik eta eragiketa gehien egin ahal izatea da (dirua eskura ematea ezezik, noski) eta orain arte hedatutako kutxazain automatikoen zerbitzuak kontzeptu hori sendotu du. Kutxako Teknologia Berri eta Kutxa Elektronikaren arduraduna den Felix Aresen ustez, «eguneko 24 orduen ziurtasuna edukitzea oso garrantzitsua da, lehen denboraren %99,9a aktiboak baikinen, baina beti zegoen %0,01 hori. Asko zaindu behar da, horregatik, kutxazainak ez gelditzea ezerगतिक, jendeari konfiantza emateko, bulegoaren luzapen bezala har dezaten».

«Homebanking» abian

KUTXA edo bankuarekin zuzenean lotutako ordenagailu terminal baten bidez

Helburua eguneko 24 orduetan ahalik eta eragiketa gehien egin ahal izatea da (dirua eskura ematea ezik, noski) eta orain arte hedatutako kutxazain automatikoen zerbitzuak kontzeptu hori sendotu du


Telefonoa ere garraiobide bilakatuta

Telefonoak ere bulegoaren espazio eta denbora mugak gainditu ditu eta Euskal Herrian dauden banku eta aurrezki kutxak hasiak dira zerbitzu hau eskaintzen, hauetatik lehenengoak estatu mailakoak izan dira, baina hedadura txikiagoa dutenek ere abian jarri dituzte telefono bidezko zerbitzuak, «Telebanka» alegia. Dena den, oraindik ez da bide da ohitura bilakatu banku eta kutxetako bezeroen artean. Euskadiko Kutxako Juan Ciden arabera, «udatik hona jarri dugu abian, barne mailan hasieran, langileen artean. Gero kooperatibistei zabaldu genien.

Une honetan bezeroei eskaintzen ari gara, nabiz eta difusio kanpaina ez dugun egin».

Bulego orduetan hankura joan ezin duenari mugak, beraz, zabaldu egin zaizkio. Gauera arte egoten dira telefonozko zerbitzuak martxan etxetik edo edozein telefonotik transakzioak egin ahal izateko. Identifikazio txartel bat eta segurtasun kode batzuen bidez ere bakoitzaren libreta eta aurrezki kutxaren arteko transferentziak

egin daitezke. Dirua hartzea ezezik, denetatik. Azken funtzio hau betetzen duena kutxazain automatikoa da. Hala ere, oraindik zerbitzu honetatik kanpo gelditzen dira beste aukera batzu, hala-nola kredituak eskatzea eta eragiketa konplexuagoak.



ere egin daitezke, etxetik, kaleko kutxazainak eskaintzen dituen zerbitzu ia gehienak. PC bitartez kontuan kontsultatu, aldaketak ikusi... Kutxako arduradunek esan digutenez, horrelako egitasmoa, «homebanking»

deritzona, martxan jarri dute baina «ez diogu jendeari eskaini normalean kutxazainean zerbitzu horiek badietzutelako».

Oraingoz enpresek, instituzioek eta antzerakoek erabiltzen dute zerbitzu berri hau. Koro Landa Kutxako Komunikazio eta Irudi buruaren arabera, «eragiketa simpleei dagokionez, abal den gutzia bultzatzen da

Telefono bidezko zerbitzuak oraindik ez dira oso ohizkoak bilakatu, baina gero eta kutxa gehiagok eskaintzen dute zerbitzua. (Argazkia: Garikoitz Garialde).

Aholkularitza
HATOR
 Aseguruak

Kardaberaz 60, HERNANI Tel.: 55 43 12
 Zelalalde 6 aizea, URNIETA Tel.: 33 17 52

MAPFRE

Aseguruak
Pentsio Planak
Inbertsio Fondoak
Aholkularitza

Zergalan Asesoria, S.L.
Pedro Arruabarrena
 EKONOMILARIA • AUDITOREA

Auditoriak
 Zerga Aholkularitza:
 • P.F.Z.
 • Elkarte Zerga
 Ekonomi Aulkoraitza:
 • Bideragarritasun Azt.
 • Kosteen Azterketak
 Kontularitzeen Antolaketak
 Laboral Aulkolaritza

Akullegui 3, 2 A
 Tif.: (948) 580 335
 31700 ELIZONDO (Nafarroa)

Gran Via 9, 4 Esk.
 Tif.: (943) 286 711
 20002 DONOSTIA (Gipuzkoa)



Kutxa edo bankuarekin zuzenean lotutako ordenagailu terminal baten bidez ere egin daitezke eragiketak

autozerbitzuaren aldera, eragiketa horiek egiteko bakoitzaren aukerak errazteko.

Asesoramendua beharrezkoa

KUDEAKETA pertsonalak ere ezaugarritzen ditu egun aurrezki kutxak, asesoramendu zuzena baitute helburu eragiketa konplexuagoei dagokienez, aholkua behar duten eragiketatarako espezializazioa nagusitu da. Izan ere, bulegoetan gero eta gehiago dira asesoramendu lanetara zuzentzen diren langileak. Aholkua, beraz, indartu egin da joera orokor bezala. Honen barruan, gainera, neurri egindako produktuak eragotzen ari dira, bezeroaren neurri egindakoak: jubi-

«Teknologiari esker segurtasunean aurreratu da»

Guk azken hamar urteetan teknologiaren garapenaren bidetik jo dugu bi kontzeptu nagusiengatik: automalgutasuna eta produktibitatearen haundiotzea. Teknologiaren helburu nagusia, azken finean, bezeroa bezeroa hobeto zerbitzatea da. Barne produktibitatea haundituz gero bezeroa hobe zerbitza daiteke, prezioak jaisten bada ere. Konpetenziari erantzuteko malgutasunaz, bestalde, beraienak bezalako produktu onak eskaini daitezke denbora epe nahiko labur batean. Teknologiak konpetentzia konkretu baten aurrean malgutasun haundiagoa

ematen du, arlo guztietan nabaritzen da hori.

Datu prozesu zentruaren automatizazioa izan da azken urteetan lorpen oso garrantzitsua, ordenagailuek egunean 24 ordutan lan egin dezaketelako, egunero, operadorerik gabe. Europa osoan lehenengoz datu base relationala jarri eta abiada basatia lortu da, laser inpresioaren laguntzaz. Aurrerapen haundia egin da, era berean, segurtasun eta konfidentzialtasunari dagokionez. Horrek ez du esan nahi lehen segurtasunik ez zegoenik, noski, baina orain sare batzuek bortxatuak izan direla ikustean zer pentsatua



Felix Ares

Teknologia Berrien arduraduna

eman digu eta segurtasun sistemak birplanteatu behar dira. Estatu Batuetako Defentsa Ministeriokoa baino ziurragoa ere lortu da. Teknologiak, beraz, kalitate hobea eskaini diezaiokete bezeroari.

latuentzat, gazteentzat, etxebizitza erosteko... klasifikazioa gero eta konplexuagoa da. Horretarako, bulego berak ere berdiseinatu ari dira hainbat enpresa. Euskadiko Kutxan «bulego irekiak egiten ari gara, bezeroarekiko barre-

mana erraztearren bain zuzen ere» dio Juan Cid Publizitate arduradunak.

Asesoramendua eta espezializazioaz gain, espazio eta denbora mugak gainditzen ari diren seinale ditugu, besteak beste, gutun-bilketa lortzea —bakoitzari dagoz-

kion idazki guztiak kartazal bakarrean biltzea—, datu prozesu zentroaren informatizazioa 24 orduko funtzionamendua lortzeko, libreta eguneratzaileak eta teleprozesu terminalak.

ARANTXA ERASUN

AHOLKULARITZA

FISKALA, LABORALA eta MERKANTILA

Fleming Doktorea 4, BASAURI
Tel.: 4260808 • Faxa: 4260438

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA / Zbkia. 200009



GENERALI
Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako

Aritzeta 1, Tlf.: (943) 37 18 07 • 20170 USURBIL (Gipuzkoa)

PENTSIO OSAGARRIAK-ELKARKIDETZA

Pentsioak egun albiste dira, zoritxarrez, arazo direlako, epe ertain eta luzera herrialde honek izan dezakeen arazorik larriena agian.

Arrazoi hau dela eta, indar politiko guztiak «Toledoko Hitzarmena» izenekoan ados jarri dira. Diputatuen Kongresuan erabateko adostasunez onartu baitute.

Hitzarmenean jasotzen diren oinarriko neurriak hauek dira:

- * Finantzaketa iturriak banatzea, kotizazioen menpe diren mantenusari kontributiboak eta zergen bidez finantzatzen diren ez kontributiboak banatzea, alegia.
- * Egokitasun sistemaren indartzea, kotizazio eta mailaguen arteko harremana handituz. Honek zera esan nahi du: progresiboki kotizazio epea luzatuz joango dela, oraingo zortzi urteetatik karrera profesional osora.
- * Bizitza aktiboaren borondatezko luzapena erraztea.
- * Bost urtero sistema berregokitzea.
- * Pentsio sistema osagarriak —eta ez ordezkagarriak— promozionatzea, talde sistema kolektiboekiko arreta bereziarekin.

Azken bi puntutetan arreta jarriz gero, bost urteroko sistemaren berrikusketak zera dakar: 35-40 urteko langile batek jubilaziorako bere baldintzak bospasei bider aldatuta ikusiko dituela honetara iristen den bitartean, beraz, ezinezkoa du bere garaian jasoko duen pentsioa jakitea.

Dena den, populazio piramideen eta egungo kotizazio guneen ikerketa baten arabera, orain hilabeteko 76.000 pezeta jasotzen dituen pentsionista bakoitzaren ordezkari 2.025 urtean bi pentsionistek 132.000 jasoko dituzte hilabetean. Pentsioak, beraz, orain baino hiru bider koste haundiagoa izango dute.

Ekonomiaren hazkunde errealearen hipotesi baikor batetik abiatuta, pentsioak 2.025 urtean herrialde hau orain baino bi aldiz aberatsagoa izango dela.

Ondorioz, sistemak sarrera bikoitzak izango ditu gastuen hirukoitzari aurre egiteko. Edo beste era batetara esanda, gastuen 2 herenei soilik egingo die aurre, pentsioak karrera profesionalaren azken soldatako % 40 eta % 60aren tartean kokatuko direlarik.

Guzti hau dela eta, sistema osagarrien funtzioa egoera aktiboko bizi mailari dagokion soldataren % 75 edo 80ra iristeko beharrezko % 20-30 osatzea izango da.

Sistema osagarrien helburua, beraz, Gizarte Asegurantzari pentsio gehigarri bat ezartzea da, izan ere, azken honek bermatuko duena ez baita nahikoa izango jubilatuek, egoera aktiboan egongo balira bezalako bizi maila egokia izan dezaten.


Sistema osagarriak pentsioen lagungarri duina izan behar badute, talde edo enplegu sistemen bidez izango da, gizabanakoek populazioaren, eta ziur aski behar gutxien dituzten sektoreen, portzentaia txikia osatzera besterik ez baitira iritsiko.

Talde edo enplegu sistemen ezaugarria da parte-hartzaileek eragile-enplegu emailearekin harreman dutela eta honek sistemaren finantzaketan parte hartzen duela. Bere izaeraren barruan gizarte orientatutako du eta langile gehienek atxekimendu azkarra bultzatzen du. Kudeaketa teknikopean langile eta enpresariak zuzenean kontrolatutako ondare haundiak sortzen dituzte.

Elkarkidetza Euskal Autonomia Elkartearen elkarte publiko eta Institutuzioetako langileen enplegu sistema da. Borondatezko Gizarte Prebisioko Entitate modalitatepean 10 urtetako esperientzian emaitza ezinobeak lortu dituena.

Etorkizun hurbilean ezaugarri hauetako entitate asko ikusiko ditugu produkzio sektore ezberdinetan. Elkarkidetza aitzindari besterik ez baita izan.

elkarkidetza



ARABA
Ramón y Cajal, 7y9
Tel:(945) 231896-Fax:(945)133285
01007 GASTEIZ

BIZKAIA
Elcano, 25 - bajo
Tel:(94) 421 20 47-Fax:(94) 4449489
48008 BILBO

GIPUZKOA
Elcano, 6 - bajo - F
Tel:(943) 430256 Fax:(943) 430257
20004 DONOSTIA




Beste herrialdeetako moneta politikak alemaniarrarekin lerratzer behartuta daude, sistematik ez ateratzeko

Pezetak hiru debaluazio jasane zituen bat bestearen atzean. 1993ko abuztuaren sistemen erreforma emango da, monetei mugitzeko uzten zaien tartearen % 15era zabalduz.

Alemania eta interes tipok

ALEMANIAK mantentzen dituen interes tipu handiak aurkezten dira askotan Europako Diru Sistemaren krisiaren erantzule gisa. Izan ere, interes tipu horiek erakartzen baitituzte kapital atzerritarren, markoaren balioa handituz. 1990. urteko birbatuketaren finantza-penak eragindako defizit publikoari aurre egin nahia alde batetik, eta Alemaniak duen inflazioaren aurkako tradizioa bestetik, aipatu



Mugak ireki arren Europako txanpon batasuna ez doa bide onetik. (Arg: Garikoitz Garaialde).

behar ditugu interes tipu altu hauen arrazoi nagusiak bilatzeari.

Alemaniako txanponak EDSn duen nagusitasuna dela eta, beste herrialdeen moneta politikak alemaniarrarekin lerratzer behartuta daude, sistematik ez ateratzeko. Honela uler daiteke liberak EDSren barruan daraman bilakaera. Frantziar

estatuaren txanponak bere parekidetasunari eutsi bazion ere, bertako hazkunde ekonomiko eta langabezia tasaren kaltean lortu zen emaitza hau.

Izan ere, libera indartsua mantendu ahal izateko, Alemaniako Bundesbank eta Banque de Francek truke merkatuan elkarrekin eginko eskuhartzeaz gain, fran-

tziar interes tipu altuak beharrezkoak izan dira. Honelako interes tipuak inbertsioa eta lanaren aurka doaz, oro har, maileguaren garestitzea baitakarte. Frantzia bere langabezia tasaren bidez ordaintzen ari da libera indartsuaren aldeko bere politika.

JOXE JOAKIN DEL CURA



euromutua
SEGUROS Y REASEGUROS A PRIMA FIJA



ASEGUROGINTZA
AGENCIA DE SEGUROS, S.L.



GRUPO VITALICIO
SEGUROS

DIRUARI IRABAZI HAUNDIAGOA ATERATZEKO ASEGURU MOTAK:

Bermaturiko Irabazi Plana • Jubilazio Plana
• Pentsio Plana • E.P.S.V. •

ETA BESTELAKO ASEGURUAK:

- Ibilgailuak
- Norkberaren istripuak
- Bizitza, etab.

Foruen Etorbidea, 4 - 20400 TOLOSA - Tfno.: 65 22 20 Fax: 65 41 19
Foruen Etorbidea, z/g, beheara - 20400 TOLOSA - Tfno.: 65 22 20 Fax: 65 46 77

«Zuzendaritzak ezer eskaintzen ez didan artean ez dut ezer erabakiko»

Barcelona handiari hortzak erakutsi eta gero itzuli da Reala etxera. Bere apaltasunean, Iriartek aspaldiko Realik lotsagabeena zelairatu zuen Camp Nou, eta puntutxo urratu. Toshackek gainbehera utzi zuen taldea zuzendu eta bideratu du. Etxekoa, lagun girokoa eta iskanbilarik sortzea gustatzen ez zaiona. Hori du agian 'akatsa', futbol munduaren zirkurako atrakzio berezirik ez izatea. Realeko administrazio-kontseilua erdibituta omen dago beasaindarrak entrenatzaile segitu beharko lukeen ala ez.

Benito Villamarinen egin zenuen estreinako Realeko entrenatzaile lana.

Zer gogorapen duzu partidu bartaz?

Egia esateko atzo izan balitz

bezala gogoratzen dut partidu hura; Sanseko entrenatzaile urtetan izan naizen

arren, Realeko 1. plantillako entrenatzaile izan eta zure debutari aurre egiteak oso bestelako sentzazioak dakarkizu. Une horretan gertuen ditudan senideak nituen gogoan, baina partidua hasi orduko arreta guztia zelaian gertatzen denari jartzten diozu eta behin jokoan sartuz gero taktikoki eman beharreko aholkuez gain zure mutilak animatzen saiatzen zara.

Futbolari garaian bezala entrenatzaile lanetan ere zure helburua lortu duzu, emozioak ordea ezberdinak izango dira.

Nire bizitzako unerik gozoenak izan direla esango nizuke, La Romareda futbol zelaian 24 urte nituela debuta egin nuenean eta oraintsu daukadan karguarekin. Baina adinaren poderioz zeure ibilera hotzago neurtzen duzu. Era berean, askoz balio handiagoa ematen diozu lortutakoari.

Bost negatiborekin hartu zenuen taldeari zorra arindu diozu; orain bat besterik ez. Orain arte eginiko lanarekin gustura?

Balorapenak egitea ez dut atsegin oraindik bide erdian gaudenean; sasoi onean



Bizitzako unerik gozoenetakoa izan zen La Romaredan debuta egin nuenekoa». (Arg.: G. Garaialde)

gaude baina futbolean gabiltzanok ondo asko dakigu edozein momentutan bola da hori hautsi eta beherantz egin dezakeela. Horregatik diotsut erdi bideko balantzeak egin baino denboraldi amaieran datu zehatzak eskutan dauzkadala, balantzea egitea nahiago dudala.

Nolanahi ere, ezin ukatuko dizut bereziki Ligan ematen ari garen neurria gustura egoteko modukoa dela, hamazazpi partidutik hiru besterik ez ditugu galdu; alde horretatik, beraz, pozik egoteko arrazoirik bada. Horrela ibili izan bagina, oraintxe UEFAko plaza baten borrokan murgilduta geundeke.

Tosback-ek zioenez, bere joko sistema berberak erabiltzen dituzue.

Neurketa baten bezperatan aukeran ditudan jokalaria eta Toshackenak berdinak diren aldetik parekotasunak egotea derrigorrezkoa da. Baina hamaikakoekin nik aldaketa bat baino gehiago egin dut. Gaur egun lehen mailako taldeen artean % 80k 4-4-2 deritzon sistema erabiltzen badu ere, entrenatzaile bakoitzak bere ukitu berezia ematen dio eta gure kasuan partiduak aurrera joan ahala, aipatu berezitasunak geroz eta nabarmenagoak izango dira.

Iriarte-Lopez Ufarte: bi ezker Realak entrenatzen...

Beti esan ohi da futboleak ezkerak izan direla iaioenak. Baina entrenatzeko garaian eskuin nahiz ezker guk bloke bat darabilgu eta talde horretan oreka bilatzea da garrantzizkoena. Bestalde, Robertorekin ez dut inolako arazorik; pentsa ezazue elkarrekin ekin geniola mundu honi. Beraz, lanki-



«Egutegia alde dugu eta puntu dexente atera ditzakegu». (A.: G. Garaialde)

dea izateaz gain lagunminak gara.

Kargu berriarekin joko-

«Bereziki Ligan ematen ari garen neurria gustura egoteko modukoa da, hamazazpitik hiru partidu galdu»

larienganako barremana galdu al duzu?

Ez ezazula pentsa. Garbi dago sarritan erabaki gogorak hartu beharra dagoela. As- tean zehar Zubietan jokalaria guztiak igandeko deialdian sartzeko meritua egiten saiatzen dira eta, jakina, ulergaitza gertatzen zaie euren izena hautatutakoen artean ez azaltzea. Robertorentzat, ordea, askoz samu-

rragoa da, kasu honetan, harreman estuagoak izatea. Baina Realak duen ezaugarri berezietako bat hori da: lagun koadrila garena eta nahiz eta atzeritarrak tartean izan, giro ezin hobea suma daiteke.

Ormaetxea eta Boronati buruz hori esan obi da, konfiantza handiegia hartuta zeudela jokalariekin...

Ez zait iruditzen; entrenatzaile baten ibileran zikloak erretzen zoazela esango nuke. Bi kasuak gertu-gertutik jarraitu ditut. Ormaetxeak zazpi denboraldi eman zituen Reala entrenatzen eta bi tituluak azken aldera lortu ziren, neu ere tartean nengoela. Lehen Liga eskuratu genueneko denboraldi osoa lesionaturik pasatu nuen eta bigarrenen zortzi partidu jokatu nituen. Nire onenak emanda negoela eta une hartan bertan, hogeita hamar urterekin, erretiratzea erabaki nuen.

Aurreko hariari helduz, nire ustez entrenatzaile batek denboraldiz denboraldi gauza berberak errepikatzearen poderioz originaltasuna galdu egiten du, eta pertsona batek edozein lanbidetan berrikuntzarako ahalmen hori galtzen duenean jota dago. Zoritxarrez entrenatzaileon patua da, luzaroan lanpostu berean ezin egona.

Normalizat jo behar al dugu, botz-hotzean aztertuz, Realak sailkapenean estualdiak sufritzea?

Jokalariengan konfiantza osoa dut. Gabonetan beraien alde apustu egin nuen. Luis García saldu genuenean, administrazio-batzordeari beste inoren premiarik ez genuela adierazi nion, denboraldi erdian fitxaketak egitea arriskutsua zelako, alegia. Pasatu diren ia bost



«Meho ez dagoenean bere orde zela iratzen denak ere golak egiten badaki». (Argazkia: G.Garaialde)

hilabete hauetan esandakoa konfirmatu egin didate jokalariek. Camp Nouko berdinketaren ostean, hamabi-

garren postuan gaude, gure atzetik zortzi talde daude, eta horretaz gain, Deportiboren bisita Anoetara kenduz gero, teoriarik behintzat egutegia gure alde daukagu, eta azken txanpan puntu dexente atera ditzakegula iruditzen zait.

Kodro, golen matematikari kasu egunez gero, ekipa erdia da eta ia segurua denboraldia amaitzen

aldegingo duela. Matematikari adierazten duten adina balio al du Meho Kodro?

Ez dago inolako zalantzarik Meho jokalaria handia dela, edozein taldek bereganatu nahi lukeena. Atearen aurrean duen efektibotasuna ikaragarria da eta futboleko golak garaipenak eta tituluak datoz. Hala eta guztiz, gogoratu nahi nuke

«Pozteko arrazoirik bada orain arte eman dugun neurriari dagokionez. Hasieratik horrela ibili izan bagina oraintxe UEFAko plaza baten borrokan murgilduta geundeke»



hemen Anoetan sasoi be-
tean zetorren Espanyol tal-
dea 2-0 menderatu genuela
Kodro gabe. Datu honekin
zera esan nahi dut, Kodro
momentuko goleatzailerik
trebeenetakoa dela ukatu
gabe Realaren jokoak ez
duela gizon batenganako
horrenbesteko menpekota-
sunik eta Meho ez dagoe-
nean bere orde zela iratzen
denak ere golak egitea zer
den badakiela.

*Aurreko direktibak atze-
rritarrak fitxatzean ba-
rrobiak fruituak eman
bitartean izango zirela
aipatzen zuen; gauza
bera zioten Tosbackek
eta administrazio-kon-
tseiluak oraindik orain.
Zu zeu ausartuko al zi-
nateke atzerritarrik ga-
beko Real maila gore-
nean manten daitekeela
esaten?*

Harrobiko jokalariekin ba-
karrik taldea osatzearen
fiosofiak bere horretan dirau
baina eskubide guztiak fut-
bolariaren alde jarri diren
heinean gero eta zailagoa
ikusten dut asmo hori. Joka-
lari gazteen alde arriskatzen
behartuak gaude ahalik eta

kontratu luzeenak sinatuz,
baina ez ditugu sekula era-
bat loturik: txanponaren
hotsak gaur egun edozein
akordio hauts lezake. 1.
maila geroz eta zailagoa da-
go eta batzorde teknikoak
une honetan atzerritarrak
beharrezkoak direla pen-

«Gero eta zailagoa da
entrenatzailearen lana».
(Argazkia: Garaialde)

NORTASUN

AGIRIA

- Duela 42 urte Beasainen jaioa ● Herriko
futbol taldean jokatzen ari zela, Real
Madridekin froga bat egitera joan zen ●
Denboraldi hartan Etxaniz Realeko idazkari
teknikoa etxera joan eta 16 urterekin Realean sartu zen, gaur arte
jarraituz inolako etenik gabe ● 24 urterekin pasatu zen Realeko
lehen taldera ● Nahiz eta lesionatuta egon, bi ligak irabazi zituen
Real hartako jokalaria zen ● Lesio larri baten erruz, 30 urterekin
futbolari izateari utzi zion Zubietan teknikari lanean hasteko ● Bi
seme ditu, Gaizka eta Jon, dantzaria bata eta futbolzalea bestea.





«Edozein unetan bolada hautsi eta beherantz egin dezakegula badakigu». (Argazkia: G. Garaialde)

tsatzen du, dauzkagun ga-beziak betetzeko.

Benito Diaz kenduz gero Tosback eta Ormaetxea zortzi eta zazpi denboraldirerkin txuriurdinen aulkian eserita gebien irauin dutenak izan dira; entrenatzaile bat berebala erretzen da aulki berean eserita?

Gero eta zailagoa da entrenatzailearen lana, gero eta botere gutxiago du. Sarritan plantilarekin eta zelaian eginiko lanak ez dira aski izaten. Kanpoko zenbait gauzak eragin handiegia dute eta bestela ikusi besterik ez dago Iruretarekin gertatutakoa: kanpaina doorea egin arren jarraitzaileak kontra izan ditu hasie-

ratik. Kanpoko faktore horiek guztiz baldintatzen dute entrenatzaile baten ibilbidea. Entrenatzailea pertsona zaurigarria bilakatzen da.

Etxeke beroan luzerako egoteak ere baditu bere alde onak baina, jakina, aulkiko tentsioa sufritu eta gozatu duenarentzat horrek atzerapauso bat izan behar du.

Entrenatzaileok karneta gureganatzen dugun momentutik talderik gustukoena

« Iruretak, adibidez, jarraitzaileak hasieratik kontra izan ditu»

zuzentzea dugu helburu, eta nire kasuan Reala entrenatzea ia amets bat da; baina ametsetatik iratzarrita alde negatiboari ere begiratu behar zaio. Profesionalki helburu batzuk dituzu, baina familia ere hor albaon dago eta senideentzat batetik bestera maletak hartuta ibiltzea ere ez da ona. Administrazio-batzordearen asmoak jakiten ez ditudan bitartean ez dut ezer erabakiko. Bi aukera dauzkatzat: bat Realeko entrenatzaile segitzea, eta horrek noski ez du atzerako bueltarik. Eta bestea, orain gertatu bezala, Zubietan koadro teknikoan jarraitu eta lehenengo entrenatzailea kargutik kentzen dutenerako prest

egongo den gizona izatea. Nik berriro diotsut: zuzendariak ezer eskaintzen ez didaten bitartean, ez dut erabakirik hartuko.

Bukatzeke, Salva, esaidazu nor izango den Realeko buruen entrenatzailea.

Ezin esango nizuke zein ezaugarri beharko lituzkeen Realeko entrenatzaile berriak, erretratu-robot bat egitea oso zaila da. Gainera, ni neu ere entrenatzaile posibleen zerrendan nago. Datorrena datorrela, beraz, atzerritar nahiz etxeke, motibazio handiak izango dituzte jokalariek lanean segitzeko.

MARTIN AGIRRE

Zenbakiek ez dakarte itxaropenik

ASTE Santuetako festa eta prozesio giroak harrapatu gaitu beste behin ere. Jesukristo gurutzatuak, erromatar ejertzitoak, aingeru eta santuak kalez-kale, ilada luzeetan, eta jendea haiei begira. Debozio edota ohituraz batzuek, espektakulu bila besteak. Inork bere bizkarrak astinduko ditu jendaurrean; erroskila bedeinkatuen saltzaileari eskuetatik kenduko diote jangaia; herrietako orkestretako tronpetari urteko doinurik tristeenak ihesiko zaizkio.


Kultura munduak ere antolatatu du bere prozesioa, gurutzatu, erroskila saltzaile eta tronpeta jolearen parte hartzeaz. Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntzak adibidez, bakoitzak bere gurutzea bizkarrera jaso eta Lakuarako bidea hartu dute, batetik eta bestetik egoera larriaren edota sufrimendu latzen tronpeta soinuak entzuten direla,

eta konponbide saltzailearen gomen-dio eta aholkuak. Etxe barruko hautsak ere harrotzen hasiak dira gurutze-bidean. Orotariko hiztegiaren kudeaketa dela eta, eta euskaltzain zenbaiten jokaeraz. Errosarioak luze joko duela dirudi, aurrekontuetan (biblia guztien ama, irudi bat osatzearen) ez baita kontuan hartu eskakizunen mami. Berri onaren zain, erakundeon etorkizunari kandela bana piztea erabaki dute batzuek; besteok, kandelak eta errezoak baino elizako diruak tajuz bana daitezten eskea luzatuko diogu, sei arrain besapean dituela euskara eta kultura munduari jaten emateko arduraren duenari, hots, aurrekontuen biblia ez dadila gertatu kulturgintzan lanean ari diren fededunak martiri bihurtuko dituen idazkia. Aste Santuaren ondoren argibiderik jasoko ahal dugu esparru honetan.

EUSKAL Kulturaren Batzarreak argibiderik eman du tarte honetan, hizkuntza politikaren aurrekontuen nondik norakoaz, eta ondorioztatu duenaren arabera, urteroko atzerapausoa kezkarria da, 1991tik 1995era euskararen sustapenerako diruak %19,11 jaitsi baitira, KPIaren igoera kontuan hartuta: *«Aurrekontuen azterketa sa-*

Aurrekontuen prozesio astunean erakunde eta elkarte askotxo dira baliapide faltaren gurutzea bizkar gainean eraman beharrean daudenak

Tomas Uribeetxeberria Bizkai-ko Kultura diputatuak azaldu duenez, aurten ez da ekaineko Musikaldia burutuko, bitartekoen falta dela eta. 1989an abiatu zen egitasmoa eta denbora honetan nazioarteko hainbat izen ospetsu hurbildu dira bertara. Iaz, 85 milioi pezetako (3,4 liberra inguru) aurrekontua jaso zuen. Dena dela, bi urtean behin egin daitekeela iragarri du diputatuak, urtean zehar 6 edo 8 emanaldi emanaz. Euskaldunako Musika Jauregian integratu nahi dute Musikaldia. (A: Kepa).



Tolerantzia lagun

kona egin ondoren, EKBk argi azaldu nahi du ezinezkoa dela aurrerapauso funtsezkorik eman; une batean hizkuntz politikaren arduradun berriekin sorturiko itxaropena zapuztuta geratzeko arriskua dago. Honen harrian, berriz ere euskararen erakunde sozialak «kaltetuta gertatuko direla» adierazi du.

Inork ez ditu zenbaki hauek auzitan jarri eta, beraz, zuzen neurtu dituztenaren dudarik ez dago. Zenbaki nahiz ekonomia kontuetan aditua izan gabe ondo uler daiteke jaitsieraren tamaina eta kaltea, eta finean, esparru honetan politika eraginkorra tajutzeko ardura duenak ezkututzen digun zuloa. Gero eta nabariagoa. Aurrekontuen prozesio astunean askotxo ditugu baliapide faltaren gurutzea bizkarrera eraman beharrean direnak, hasieran aipaturikoez landa, eta hizkuntz politikak ez die, azterketek horrela diote, ez zamarik ez sufrimendurik arintzen. Diruen banaketak, eta atzean ispiatzen den filosofiak baina, aurkakoa pentsatzeko aukera ematen du, hau da, nahiz eta Lakuako kultura bulegoetan aurpegi erakargarriak antzeman, eta jarraera irekiak azpimarratu, lerro nagusietan aldaketarik ez datorrela, eta beraz, oinetako egokien faltan eta bizkarrak minduta, ez dela batere atsegina gertatuko euskara sustatzeko egin beharreko bidea. EKBk puntua jarri du mahai gainean, eta kezka uxatu eta bideratzeko garaia da.

ARGITU dute azkenez Leizarragaren bibliaren eroslea nor den: Nafarroako Aurrezki Kutxa. Interes handiko liburua erosi du finantza entitateak, eta negozioak nola egiten diren erakutsi: isileko bidetik eta piezak behar diren lekuan eta moduan mugituz. Alli izan du zeregin honetan konplize nagusia, eta boltsikoa nahi adina astindu du. Testua Euskal Herrian geratu izanak lasaitu ederra eman die batzuei eta besteei, non gordeko duten argitu ez den arren. Agian, urtebete barru inork gogoratu ere ez du egingo...

J.J. PETRIKORENA


T

AULA V izeneko taldearen eskutan Arabako egoera soziolinguistikoaren azterketa utzi izanak dexte harrotu zituen politikagintzaren ohizko gorabehera mediatioak. Herrialdeko Batzar Nagusietako batzordea bera behin baino gehiagotan norabidea galdurik, herritar antolakunde eta euskaltzaileen erantzuna ugari bezain argia izan delakoan nago. Korrika 9ko amaiera edota hile honetako estraineko egunean arabar hiriburuan buruturiko giza katea iragarritako mehatxua bati eskeiniriko erantzunaren islada izan dira. Biren arrakasta ikusita, nork planteatzen dezake gehiengoaren interesen aurkakoa dela euskararen aldeko politika eraginkorra bideratzea?

De Miguel soziologoak euskalgintzan tolerantziaren mitoaz elikaturiko gezur sozial bat pizten lagundu nahi izan du. Datuak alde aurretik diseinaturiko irakurketaren arabera ahalik eta egokien kokatuzko, hona hemen euskalgintzaren lepoan estutu nahi den sokaren abiapuntu muturra: -hizkuntza bat egitura sozialean dagoen demandaren gainetik bultzatu egiten denean ezagutza eta erabilpenaren arteko desoreka sortzen da eta ondorioz hizkuntza hori ez omen dago indarrean, ez omen da 'vigente'. Euskal gizarteak, euskal herritarrok, gure hizkuntza nazionala berreskuratzeko egingako ahalegin zinez handiaren aurkako boutade ezin lotsagarriagoa.

EGUN euskarak bizi beharreko bazterketa egoera ez da zutik irauteko modukoa. Begibistan. Baina egoeraren abiapuntuan, ezagutza-erabilpenaren arteko desorekan eta horren kasualitatean gezur horobila osatu nahi du euskalgintza zuzendu nahian ekarri diguten madrildar horrek. Erebilpenari buruzko EKBk garaturiko inkestak isladatu bezala, euskaldunon lehialtasuna euskararekiko, egungo baldintza estrukturalen arabera uste zitekeena baino askoz ere hobe da. Hori ikusita, inork sines dezake tamainako gezurrik, horretarako interes propiorik ezean? Akaso euskal irakaskuntzaren eskakizunaren gainetik aritu da noizbait Eusko Jaurlaritzaren eskeintza? Edota euskara ikasi nahi izan duten arabaren, beste euskaldun guztiok bezalaxe, aurkitu dituzten errezetasunak beren gogoia edo demanda txiki uzteko modukoak izan dira noizbait?

GEZUR honen gainean eraikitzen ari da euskararen aurkako sistemarik eraginkorrena: gutxienezko neurri eraginkorrak bideraezinak bilakatzeko gizarte txertoa. Egungo egoeran erdal elebakartasunari aurre eginez, inposaketa hori indarrez mantendu nahi duen egitura biolentziari erasotuz erdal elebakarrak erasotuak bailiran, gatazka mehatxua alde aurretik aldarrikatzen ari dira politikoki eta kulturalki herri hau oraindik gehiago desegituratu nahi duten indar politiko espainiar nazionalistek. Horretan lagungarri gertatuko litzaiekeen ustetan bideratu dute Taula Vkoa. Tolerantziaren izenean euskaldunon diskriminazioa eta gure, denon, esku-bide kolektibo oinarritzko den euskara ezagutu eta erabiltzeko ahalmen erreala txikituz egin nahi dute bidea. Ez da kasualitatea izango, euskaldunontzat tolerantziaren izen-kide jasankortasuna agertzea hiztegiaren eta jasan hitzaren esanahiak, egun eta euskal herritarrentzat, zapaldua du ardatz.



XABIER ALEGRIA

TXUTXU - MUTXUKA

EAE-KO ORKESTRA SINFONIKOEN ETORKIZUNA


EUSKAL Autonomia Elkarteko orkestra sinfonikoen doinuak ez daude batere argi. Bi orkestra nagusiren (Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Bilbokoa) premia ez da ikusten instituzioetatik, eta batak zein besteak ia bi mila milioi pezeta (80 milioi libera inguru) behar dituztela kontuan harturik, etorkizunerako ildoak berrikusteari heldu diote. Hiru dira aukerak: bietako bat desagertzea; biak mantentzea, baina irakasleen kopurua murriztu (70 bat bakoitzean) eta gerentzia bateratuz; edo bata orkestra sinfoniko gisa antolatzea, eta kamarakoa bestea. Adituek adierazi dutenez, bigarren edo hirugarren aukerak dira bideragarrienak.

NOR - NORI - NOR K



MIREN AZKARATE

Jagon saileko lehendakari izendatu dute, azken urteotan zeregin honetan aritu den Endrike Knörren ordeztu. Iker sailean berriz, Jean Haritxelharrek zuzentzen zituen Dialektologia eta Atlasgintza Batzordeetako buru gisa Beñat Oihartzabal hautatu dute. Euskara Batzordeak ere ardura-dun berria izango du, Patxi Altunaren ordeztuko Pello Salaburu aukeratu baitute. Kargu berri-ze zabala gertatu da beraz, Akademian ●



INAZIO MUJIK A IRAOLARI

eman dio Espainiako Kritikarien Elkarteak euskarazko narratibagintzari dagokion saria. «Hautsaren kronika» ipuin liburua saritu diote, zeinean kazetari baten hainbat kronika biltzen diren. Poesia alorrean bestalde, Juan Kruz Igerabide izan da saritua, «Sarean leiholiburua dela medio. Jon Kortazarrek bete du euskal ordezkari-epaimahaiean, eta lan horretan euskarazko hainbat kritikariren laguntza jaso du ●



INAXIO OLIVERIK

azken aurrematrikulazio datuak plazaratu ditu, eta horien arabera, D eredua nagusi da EAEko hiru probintzietan. Bizkaian, %58ak eman du izena eredu honetan, eta %28ak B eredu-an. Araban, %49ak egin du euskara hutsezko irakaskuntzaren hautua eta %33ak B eredu-arena. Gipuzkoan berriz, %70ak heldu dio aukera honi, eta %29ak B ereduari. Zerbakiok argi uzten dute irakaskuntza euskadunak jasotzen duen sostengua ●

TEJLAK

EUSKARAZKO LEHEN LIBURUA DISKETEAN

EUSKARAZ idatzirik lehen liburua, «Linguae Vasconum Primitiae», bertsio konputerizatua kaleratu du Jakintza Baitha elkarteak. Axularren «Gero» liburuarekin eman zioten hasiera egitasmo honi, eta aurrerantzean, klasikoen alorreko beste zenbait testu diskete bidez zabaltzeko asmoa agertu dute elkarteak. 1545ean argitaratu zen Bernard Etxeparek izkiraturiko «Linguae Vasconum Primitiae», eta hamabost poema jasotzen ditu, erlijiozkoak lehenengo biak, amodiozkoak segidako hamarrek, idazleak kartzelan egindako tartean ari den poema autobiografikoa da hurrengoa, eta azken biak euskararen aldekoak, liburua euskaraz argitaratzeak Etxepareri sortu zion poza adierazten dutenak.

MUSIKA BERRIEN JAIALDIA

MUSIKA berrien topaleku izateko sortu zen Donostiako jaialdiak seigarren edizioa beteko du aurten, apirilaren 21etik 23ra bitartean. Nazioarte mailako joera ezberdinen lekuko gisa, bost ordezkari taularatuko dira Victoria Eugenia antzokian: apirilaren 21ean, Instrumental taldearen ikusentzutekoen munduko dantza proposamenak eta Gary Thomas-en instrumentu aborigenak entzungo dira. Apirilaren 22an, The Chieftains-en musika zeltiarra. Apirilaren 23an, Rodrigo Leao-ren Portugaleko doinuez eta Pascal Gaigneren konposizioez amaituko da egitasmoa.

Apirilaren 23an Liburuaren Eguna egingo da Hego Euskal Herriko hiriburuetan

San Jose loreekin batera idazlan berrien usaina

Apaletan eta zenbaitetan hauts artean ezkutatuta gelditzen diren horien eguna dator aurki. Maiz sortzen diren erreflexio eta gutzi, -egunero beharko lukeela izan Liburu Eguna..., argitaletxeek euren lan berriak aurkeztuko dizkigute. Zenbaketa eginez, 25 bat izenburu berri ageri dira. Horien artean Bernardo Atxaga, Koldo Izagirre, Mariasun Landa, Jose Luis Otamendi, Luis Fernandez, Juan Garzia eta Jean Haritxelharren lumek idatzirikoak.

IZKRIBU berriekin iritsiko da apirilaren 23a Donostian, Gasteizen, Bilbon eta Iruñean zabalduko diren kale

azoketara. Izan ere, William Shakespeare eta Miguel de Cervantes idazleen heriotzen urteurrena betetzen

den honetan omenduko da liburua. Egun honi esker merkatura atek zabaltzeko itzaropenez, argitaletxeak

prest dira euren azken lanak erakusteko.

Eskaintza zabala dakar Elkar argitaletxeak. Kazetari-kroniken estiloarekin estuki lotuak dauden bi liburu, besteak beste. Jean Haritxelharren «Pontokeriak» eta Luis Fernandezek «Tetris». Haritxelharrek «Herria» astekarian hainbat urtetan zehar Gehexan Pontto ezizenez sinatu dituen komentarioak irakurri ahal izango dira «Pontokeriak»-en. Luis Fernandezek «Tetris»-ek, ostera, aurrez ARGIAN, «Euskaldunon Egunkaria»-n eta «Arrasate Press»-en idatzitako zutabeak eta saiakera moduan antolatutako beste artikulua jaso ditu.

Poesia ukitua koktelean

KAZETARI artikulua ezezik, Elkarrek poesia eremura ere barreiatu du aukera. Manex Erdozaintzi-Etxarten «Hinki-hanka» poema liburua berrargitaratuko du, edizioa bera eta azala berrituz. Duela hamar urte hil zen idazle ibarlarak 1958 eta 1976aren artean idatzi zituen 32 poema dakartza liburuak.

LIBURU EGUNERAKO ARGITALPEN BERRIAK

	Izena	Lana	Argitaletxea
Narratiba	Mikel Hernandez Bernardo Atxaga Joxan Intxauspe Joxe Arratibel Joxemari Iturralde Koldo Izagirre	«Bazko arrautzak» «Zeru horiek» «Adar bakoitzaren oinatz» «Kontu zaharrak» «Lau zaldun» «Ez da erraza, konpai»	Elkar Erein Erein Erein Erein Susa
Poesia	Manex Erdozaintzi-Etxart Jose Luis Otamendi	«Hinki-hanka» «Lur bat zure mirari»	Elkar Susa
Kazetari kronikak	Jean Haritxelhar Luis Fernandez	«Pontokeriak» «Tetris»	Elkar Elkar
Haur literatura	Mariasun Landa Xabier P. Docampo Mira Lobe Ot Azitia saillean Inongo Vi Makome Boileau Narcejac Pierre Gripari Michael Ende	«Nire eskua zera» «Kanpai hotsen misterioa» «Amona sagar gainean» «Jolas parkean» eta «Piratak» «Gorila zuri bihurtu zen mutiko beltza» «Otsoaren ahoan» «Arroka kaleko ipuinak» «Jojo. Pailazo baten historia»	Auskalo-Erein Elkar Elkar Elkar Desclee Desclee Desclee Desclee
Itzulpengintza	Prosper Merimee Juan Garzia Gerry Adams Jon Arretxe	«Mateo Falcone eta beste zenbait histori» «William Shakespearen soneto hautatuak, Juan Garziak itzul antolatutak» «Kalea» «Kresala euskara batuan»	Elkar Alberdania Txalaparta Elkar



Bilbo, Gasteiz, Iruña eta Donostiako azokak prest dira aurtengo Liburu Egunerako. (Arg: Xouse Simal).

Hauetarik hainbat «Jakín», «Herria» eta «Olerti» aldizkarietan aurrez argitaratuak daude.

Ez da poesiaren alorra jorratu duen argitaletxe bakarra. Susak eta Alberdaniak ere kaleratuko dute poema libururik; bakoitzak bana. Jose Luis Otamendik «Lur bat zure minari» izenekoak dakar. Susa argitaletxeok azaldu digutenez, ia ziurra da liburua apirilaren 23rako kalean izango dena. Juan Garziak, bestalde, «William Shakespeareren sonetoak, Juan Garziak itzul-antolatuak», erakutsiko dizkigu Alberdania argitaletxearen babesean. 73 poema jaso eta euskaraz zein ingelesez eman ditu Garziak. Hitzazurea ere berak osatu du, liburuaren mamia aztertuz.

Okasio ona hau kaleratzeko: egun honetan omentzen baita Shakespeare bera.

Erein eleberriak

EREIN argitaletxeak eleberriaren aldeko apustu nabarmena egin du. Bernardo Atxagaren «Zeru horiek» dugu adibideetariko bat. Joxan Intxauspek idatzi «Adar bakoitzaren oinatza» ere kaleratu asmo du Liburuaren Egunerako. Tuterako kokagune duen eleberri honek, musulmanak eta juduak ditu protagonista; kul-

tur gurutzaketaren inguruan mintzo da. Horiezaz gain, Joxe Arratibelek kontu zaharren lekuko izatera deituko gaitu. Ahozko kulturaren adierazgarri dugu «Kontu zaharrak» eta berari txikitandik jazotako istorioak pilatu ditu Arratibelek.

Behin batean... , aurtengo Liburu Egunean, esaterako, fantasiaren haizearekin mugitzen diren hitzei txoko polita gorde diete argitaletxeek. Elkar eta Ereinen eskutik bederatzi izenburu berrik ikusiko dute argia.

Mikel Hernandezen «Bazko arrautzak» fantasia eta errealitatearen arteko ipuinak plazaratuko ditu Elkarrek. Arlo berean, baina, gehiago dira itzulpenak: «Matteo Falcone eta beste zenbait istorio», Prosper Merimee XIX.ko idazleak osatutako ipuin bilduma itzuli du Koldo Izagirrek. Horrekin batera, «Kanpai hotsen misterioa» Xabier P. Docampok idatzia eta Juan Cruz Igerabidek euskaratutakoa. Hirugarren bat ere kaleratuko du: Mira Loberen «Amona sagar gainean», Joxantonio Ormazabalek itzuli duena.


Ereinek ere ez du ahantzi haur-gazte literatura eta ipuinen esparrua. «Auskalo» sailean eta gazteei zuzendurik dakar Mariasun Landak «Nire eskua zurean»

■ Poesian, Manex Erdozaintzi-Etxarten «Hinki-hanka», J.L. Otamendiren «Lur bat zure minari» eta «William Shakespeareren soneto hautatuak Juan Garziak itzul-antolatuak» argitaratuko dira

**JOSE LUIS OTAMENDI:**


«Lur bat zure minari» poema liburu honek zer esan nahi duen... Hainbeste galera nozitu izan ditugu, herri honen gorabeherak ikusita eta abar... maitatzeko gorputz bat behar dela. Lurra, alderdi intimo horretatik hartuta. Inoiz lur hori izan bada, baldin bada eta izango bada, hor bade-la memoriaren zama handi bat. Bestetik, izatekotan beti herrena izango da, halako insatisfakzio bat ere adierazten da.

Inspirazioa lanean lortzen dut; ideien jira eta buelta ugari emanda. Noski, errezeptibo egotea ere garrantzitsua da, eta ondoren jasotako ideia horiei ahalik eta etekin handiena ateratzen saiatzen naiz.

**LUIS FERNANDEZ:**


«Tetris» izenburuarekin kaleratu dut liburua. Azpititulu moduan, «Zutabeak eta lerro solteak» ageri da; ordenagailuko jokoaren antzera. Liburuaren lehen zatia, aurrez ARGIAN eta beste hainbat komunikabidetan idatziriko artikulu bildumak osatzen du. Beste erdia ere artikuluak dira baina saiakera luze moduan antolatua.

Politika eta gizarte gaiak landu ditut batik bat. Berlingo Harresia erori izana abiapuntutzat harturik, marxismoaren gainbehera... Egoera horrek ekarri duena eta horren ordez zer sortzen ari den... Horrezaz gain, azkenaldian garatu eztabaida kultural interesgarri zenbait...

**KOLDO IZAGIRRE**

«Ez da erraza, konpai» izenburuarekin argitaratuko da eleberria. Kuban bizi izandako pasadizo zenbait islatzen ditu; bertako eguneroko bizitzaren inguruko deskripzioa... Erreportaia eta eleberraren arteko hibridoa dela esango nuke. Errealitate bat isplatu nahi denean, errealitate hori ulertzeko fikzioa nahitaezkoa da.

Gezurra dirudien arren, liburuaren egun honek merkatuari atek zabaltzen dizkion ala ez, ez dit gehigi axola. Hori saltzaileen kontua da. Noski, ondo datorkit. Pentsatzen dut egun horretan liburuaren ale batzuk gehiago saltzeko aukera izango dudala, baina ez nau arduratzen.

**JUAN GARZIA:**

Unibertsitate garaian -eta behingoz klase barruan-sentitu nuen lehen aldiz poema klasiko bat niri interesatzeko moduko zerbait zela. Unibertsitate garaiko esperientzia bakan hura hor ibili zait beti, bere lekutxo bada ere, leku hori eskatzen.

«William Shakespeareren soneto hautatuak» hauetara, alegia, erudiziozko *melee* horretara sartzeko gogorik duenak, jakin beza, zer-nolako baso zabal bihurritara sartzen den. Itzultzaileon lana, beraz, besteak beste, hauxe litzateke: teorioren zalantzaren gaintetik eta erudizioaren eskasen azpitik lasterbide ibilgarri bat bilatzea.

izenburua daraman liburua. Argitaletxe berak, «Mila Bidai» izeneko sailean plazaratu ohi dituen boltsikoko liburuaren artean, sei berri erakutsiko ditu Liburu Egunean. Horietarik bost atzerrikoak izan arren, bertako bat ere aukeratu du Ereinek. Joxemari Iturraldekin beste hainbat liburutatik jasotako ipuinekin «Lau zaldun» sartu ditu abenturan.

Fantasiatik baino errealitatek gertuago, Susa, Txalaparta eta Alberdania argi-

taletxeek eta kazetaritzarekin lotutako estiloetan, azkenaldian modan jarri diren bidai liburuaren gisakoak aurkeztuko dizkigute. Euskal Herritik harantzago, Kuba, Ipar Irlanda eta Lehen Mundu Gerran bizi izandako

errealitateak gerturatu dituzte.

Liburu bat zure bidaletan

KOLDO Izagirrek «Ez da erraza, konpai» eleberria kaleratuko du Susaren la-

■ Mikel Hernandezen «Bazko arrautzak», Mariasun Landaren «Nire eskua zurean» eta Joxemari Iturraldekin «Lau zaldun» izan ezik, gainontzeko ipuin liburuak itzulpenak dira

guntzaz. Hark Kuban bizi-tako pasadizo zenbait kontatzen ditu. Erreportaia eta eleberraren arteko hibridoa dela argitu digu Izagirrek.

Patri Urkizuk moldatutako edizio batekin dator, bestalde, Alberdania. Argitaletxeak aurrez ia landu ez duen estiloan, ia periodistikoan, kaleratuko da liburua. Jan Elissalde I. Mundu Gerran ibili zen 57. eskudroian. Verdunekoan eta beste hainbat gudatan parte hartua, kanpotik hainbat

Zertarako Liburu Eguna?

Liburuaren eguna jarri ditate gaia. Eta *ofiziokoak* garen ez erantzun egin behar, gogo handirik ez izan da ere. Izan ere, nahiko faltsu eta folklorikoak izaten baitira halako *egun* guztiak: zuhaitzena, emakumearena edo pipiak jotako kutxa zaharrena. Ez dituzte berehala ospatuko, ez, tabernena, telebistarena edo gasolinarena: egunero dute horiek beren eguna.

Halaz guztiz, gogo onez onartu behar liburuaren egun hau, Cervantesen ez dakit zer urteurren dela eta Espainian ospatzen *duguna* (Shakespeareren urteurrena


ere badenez, haren omenez egiten dugulako itxurak egin beharko ditugu Hego Euskal Herrian). Aitzakia horrekin gure paper xaharrak telebistan eta, periodikoetan eta, aipatuko dituztenez, horrenbestean konforme.

Dena dela, zer beharko litzateke liburuaren egunetik liburuaren eguneroko bihurtzera igarotzeko? Erraza da galdetzen -horrexegatik errepikatzen da galdera-, baina dagoeneko ez digu balio ohizko erantzun errepikatuak: eskoletatik hasi beharko litzatekeela irakurzaletasuna bultzatzen eta.

Hori ere, erantzukizuna besiteen esku eta geroaren baitan uzteko trikimailu zaharra baino ez da: guk ez baina gure seme-alabek irakur dezatela.

«Hortaz?», galdetuko ditate. Ba, egia esan, ez dakit. Idazleek gero eta liburu hobekidazten saiatu beharko dugu; editoreek argitaratze-bide berriak urratzen; komunikabideek liburuaren berri egoki eta maiztasunez ematen; eta irakurleek -hori da beharrena- liburuak eskuratu eta irakurtzen.

Bienbitartean, liburuaren eguna ospatzen segituko dugu, liburudendara des-



Xabier Mendiguren Elizegi

kuidoan ere sartzen ez denari, egun batean behinik behin, liburuaren muturraren aurrean jartzeko; eztarikio zuloatik sartu gabe, hala ere.

kronika bidali zituen eta horiek osatu du Urkizuk «57a gerlan».

Gerry Adamsek idatzi eta

Mikel Mendizabalek itzultitako «Kalea» aurkeztuko du Txalapartak. 18 kontakizun laburrez osatua, Ipar Irlan-

dako eguneroko bizimodua du hizpide. Klabe umoretsua tarteko, Ipar Irlandako egungo egoera politikoaren

aurrekari sozialak ulertzeko bidea dugu «Kalea» obra.

MAITE ARTOLA

aizu!ren harpidedun izan nahi dut!

Izen abizenak.....

Helbidea.....

Tnoa..... P.K.....

Herria.....

Herrialdea.....

Bankua.....

Sukurtsal zka.....

Kontu zka.....

Urte osorako harpidetza:

Hego Euskal Herria: 6.300 pta.

Ipar Euskal Herria: 11.300 pta.

Atzerria: 11.300 pta.

Diputazio kalea, 3 - 1. goa

40009 Bilbo - Tel. (94) 423 15 52



Museoen arteko elkarlanari ateak zabaltzen ari zaizkio

Euskal museoen arteko elkarlana zehaztuz doa. Museo Zentro Nazionala, EAEn Museoen Planak sortua, eta ICOM Euskal Herria lan taldeak jorratutako bideak horixe frogatzen digute.

BESTELA eman badezake ere, han-hemenka ditugu museoak Euskal Herrian. Hirurogeitik gora. Beren arteko harremanak, bestalde, egunetik egunera sendoa-goak. Orain urtebete inguru «Euskal Museoen Plana» abian jarri zenetik, EAeko museoak maila desberdinetan sailkatu eta horietan, hamar, nazio mailakoak izendatu zituzten. Hamar urtetan aurrikusitako aurrekontuaren arabera, hamar museo-tan 25 mila miloi pezetako (miliar bat libera) inbertsioak gauzatu dira -horietatik 15 mila miloi Guggenheim-ek eramango ditu-



Museoen irudia promozionatzeko elkarlana emankorra izan daiteke. (Argazkia: Xouse Simal).

«Plana-ren ondorioz, horien arteko harremanak zehaztu eta bertako ekimen desberdinak koordinatzen hasi dira. Horren emaitza, esate batera, sortu berri den Museo Zentro Nazionala bideratzen hasi den formazio, katalogazio edota beka eskaintza aldetiko lana aipa daiteke. Jose Mari Agirre, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuordeak azaldu digunez, «zentro hau eskain-

tza global eta bateratua bideratzeko elkargunea da. Hastapenetan badago ere, aurreneko aldiz museoen arteko elkarlanaren esparrua mugatu da, eta gerora begira, beronen norabidea berak markatuko du».

Nafarroako sarea

BESTALDE, Nafarroako Ondare Historiko-Kulturaren Legearen anparora, bertako museo sarea ere

berdefinitzekotan da lurralde honetan.

Baina administrazio desberdinak burutzen ari diren berregituratze lan honetaz gain ere, Euskal Herri osoko museo teknikari andana ere, UNESCOren barruan dagoen ICOM-EH, Museoen Nazioarteko Kontseiluko Euskal Herriko lan taldearen ekimenez, zazpi lurraldeetako ordezkari ugari elkarlana nola gauzatu dagoe-

«Museo profesionalen erantzukizuna behar da»

Oraingoz, museo profesionalen artean urtetan harreman pertsonaletan eraikitako lan sare informal bat osatu da. Berau sistematizatzea falta da. Ordea, ondarearekiko lan anitza arlo ezberdinetan bereiztu egiten delarik (bildu, zaindu, babestu, konpondu, ikertu, zabaldu...) espezializazioaren eraginaz kontrako joera nagusi daiteke, museo bakoitza bere aldetik ibiliz.

Museoen arteko langileengan bildurik dagoen esperientzia eta gaitasuna batuz gero, lan tresna zabala eta eraginkorra genuke, baina norbere esparruari begira gertazekotan guztiz mugatua agertuko zaigu. Bereziki, batetik gure inguruko museo arduradun eta teknikari gehienak gazteak baitira, eta bestetik, museologia formazio zehatzik ez dagoenez, profesionalaren perfila museologoarena baino, arlo batetako espezialista izaten baita (arte historia, arkeologoa, biologoa...).

Beraz, museo arteko elkarlana ez da, nire ustez, administrazioaren eginkizun soila; museo profesionalen erantzukizuna aldarrikatu behar da zalantzarik gabe. Atzerrian (Frantzia, Britainia Handia, Alemania, Estatu Batuak...) administrazioaren eskuetan datza museo arteko elkarlana: estatu mailakoa, lurraldekakoa... Eta horrek



Rafael Zulaika

Donostiako San Telmo Museoko zuzendaria

biziki erraztu eta egituratzen ditu harremanak. Gurean, 1994an Gasteizen aurkeztutako «Euskal Museoen Plana», geografikoki mugatua egon arren, guztiz garatu eta osatu behar da gehiegizko atzerapenik gabe, ondoren Euskal Herri osoko museo arteko harremanei ekiteko. Eta bitartean, topaketa profesionalak sortu, elkar ezagutu, formazio iraunkorra bultzatu, norbere gaitasunak besteari eskaini, elkarri baliabide teknikoak zabaldu, ikerketak bideratu, elkarren artean erakusketak sortu, zabalkunde aukera bateratuak bilatu eta hezkuntza sistemarekiko harremanak bide amankomunetik eraman behar ditugu. Gure museo baitan sakonki errotua dagoen txokokeria baztertzeko garaia dugu. Gure lana honela ulertzekotan, emaitza ondarea zein komunitatearen onerako izango da.



ICOMen ekimenez Euskal Herri osoko museo teknikari andana ari da museo arteko elkarlana aztertzen. (A: Leire Arzuaga).

neko aztertzen ari dira; esate baterako, Kepa Sojo, Arabako Euskal Gastronomía Museoko teknikaria; Soko Romano, Donostiako Untzi Museoko arduraduna; Amaia Zulaika, museologia aditua; Conchita Gangoiti, Bilboko Artelanen Berregintza Museoko zuzendaria, edota Manex Pagola, Baionako Euskal Museoko zuzendariordea; honen esanetan, «ICOMek egin dezakeen elkarlanean erabat sinesten dut, hasiera batean apala izanik ere; egun, esaterako, batetik, Euskal He-

rriko museo en erroldak aurrera darrai, eta bestetik, museo guztien berri eman-go lukeen aldizkaria argitaratzeko asmoa ere bada-go, elkarren berri izatea behar-beharrezkoa baita.

Baina lurralde berekoen artean ez ezik, Euskal Herriko lurralde desberdinetako museo artean bidera litekeen elkarlana oso maila desberdinetan gauza liteke. Batzuk, museo teknikariet diotenez, bideragarriagoak lirateke, erakusketa ibiltarien antolaketa kasu. Esate baterako, Donostiako San

Euskal Museoen Planaren ondorioz sortu berri da EAEn Museo Zentro Nazionala; bertatik bideratzen hasi den formazio, katalogazio edo beka eskaintza aldetiko lana da horren emaitza



Hauen ildotik, Rafael Zulaika, Donostiako San Telmo Museoko zuzendariak gehitu digunez, *«berriztatze eta kontserbazio lana ere museoak elkartu behar dituen lanak dira, lurralde bakoitzak berea eduki beharrean, lurraldeen arteko antolaketa orekatua egin eta gero oso elkarlan eraginkorra suerta baitaiteke, lan hori lurraldeka arloka bereiztuz, esate baterako».*

Museo teknikariek argitzen digutenez, ikerketa mailako elkarlanak ere bideragarritasun osoa izango luke, arte ondarea edota eskabazio arkeologikoetan. Beste erakundeekin koordinatu beharrekoa litzateke, unibertsitate eta artxibategietako arduradunekin nagusiki, baina ez horregatik izango luke interes txikia. Eztabaidagarrienen artean, museo bakoitzak dituen bildumen mugikortasuna aipa genezake, museo teknikari batzuek diotenez inolaz ere bideragarri gertatuko ez litzatekeena gainera.

Honen harian, Akitania, Nafarroa eta EA Eren artean bereziki ekonomia gaietarako sortutako ardatzak, Jose Mari Agirrek dioskunez, *«oraingoz beste kultur alorretan gehiago bada ere, museologia ere emaitzarik izango du».* Txanpon beraren beste alde, Amaia Zulaika museologia adituak erakutsi digu: *«Osagarritasunak badira; elkarlana eraginkorra gertatzeko konmenio malguen bidez museo arduradunek inplikatur joan beharko dute».* Kultur ondareak eta garapenak gogotik eskertuko dutena gainera!

PATXI SARRIEGI

Telmo, Baionako Bonnat eta Getariako Saralagineak, beren artean hasita dituzten harremanei esker maiatzetik aurrera antolatutako berrogei euskal artistaren erakusketa, katalogo komun bakarrekoa, bideratu dute.

Zabalkundean ere elkarlana

HAUEKIN batera, dokumentazio eta katalogazio lana, oro har, museoen barruko informazioa den neurrian, ez omen litzateke bideratzen zaila, edota baita kanpora begira sortzen den informazioa ere, obra eta erakusketen zabalkundeaz arduratzen dena. Honen kasuan, heziketa mundutik sor litezkeen eskaerak -berdintsuak hainbat kasutan-, edota museoek ere beren india eta abar promozionatu eta turismorako egin lezaketen lana, sarritan, osagarria gerta liteke.

Harry Crews

idazle amerikarraren nobela


AUTOA

euskaratzaileak:

Eduardo Matauko - Kristin Addis

hitzaurrea:

Xabier Montoia



1993an SUSA argitaletxeak euskaraz

1994ean Gallimard argitaletxeak
lehen aldiz frantsesez


espainolez oraindik ezezaguna

SUSA

☎ (943) 37 07 38

INDUSTRI IRAULTZA (I)

D. S. Landes eta beste



INDUSTRI IRAULTZA (II)

D. S. Landes eta beste



- Industrializazioaren ikuspegi guztiz berria: Belgika, Frantzia, Alemania, Italia, Suitza, Espainia, Errusia, Eskandinavia, Europar periferiako lurraldeak, eta Britainia Handia.
- Industri historiaren biderik zabalen, konplexuen eta modernoenak, jadanik euskaraz.
- Egungo historialaririk ospetsuenen eskutik: Mathias, Saul, Lebrun, Cayez, North, Tilly, Bergier, Mori, Nadal, Crisp, Berend, Ranki, Hildebrand eta Landes.



**JADANIK,
ZURE LIBURUDENDAN !!!**

GAIK ARGITALDARIA

L I B U R U A K



UME ERGELAK
ANA MARIA MATUTE
ITZULPENA: KOLDO

BIGURI
DESCLEE 63 or.
Ana María Matute idazle jorria dugu, heldu eta haur literatura jorratu dituena, bietan itzal handiko hainbat sari beregantuz: Espainiako Haur Literaturako Sari Nazionala, Nadal, Planeta...

1956an idatzi zuen eskuetan duguna, hogeipuin txikiz osaturiko bilduma. Neska-mutilak dira liburuko protagonistak, itsusiak, ameslariak, gizarajoak, barkariak... ezberdinak guztiak. Hauen bitartez munduaren ikuspegi zabala eta samurra eskaintzen digu autoreak ■



ILARGI-LAPURRA
FELIPE JUARISTI
EREIN, AUSKALO, 113 or.

Ilargia desagertu da basoan eta inork ez daki nork lapurru duen. Felipe Juaristik basoko animalia guztiak jarrri ditu ilargiaren bila eta lapurraren atzetik. Hiru istorio bildu ditu: «Ilargi-lapurra», «Kaioa» eta «Neska txikia», eta hiruek baso bera dute kokaleku eta azeri bera protagonista. Fabularen erresuman zeharreko bidaia honetan agertzen diren hainbat xehetasun eta keinuaren bitartez, hirietako bizilagunen ibilerak eta gizar-tearen arriskuak ispliatzen direla ohartuko da irakurlea. Antton Olariagaren irudiek irudikatu dute obra ■

ITXARO BORDAREN BEGIETAN

Bilbo upon Hudson


Euskaldun zintzo garenok, aspaldidanik iduritzen zaigu, mila arrazoin kultural eta familiarren gatik, Amerikak geure barnean dauzkagula, nahi ala nahi ez: denek badugu iseba bat Bakersfieldsen, Renon bizi den adiskide bat edo Torontotik New Yorkera astero hegazkinez dabilen lagunaren lagun bat. Bestalde, Manhattan Bilboko pasa-etxe ospetsu baten izena dela dakigun arren, edan-gauetan karrika ezkinetan Blade Runnerak susmatzen ditugu, eta solas maitekorren haritik Beverly Hills galanki igotzen. Hori guziaz erraiteko, Edorta Jimenezek Elkar-en argitaratu ipuin bilduman ez gabiltzala arrotz-arrotzago agian Martxutako patarretan!

Maixu eskuz izkribatu bederatzi kon-takizun *bot* eskaintzen dizkigu beraz Mundakako idazleak, odolez, alkoholez, sexuz eta rokanrolez blai, hezur-muine-taraino xipaturik. Liburua hersten dugunean, metropoli hortan humanitate handirik ez dela agertzen zaigu: heriotz bor-


titzak, labankada galduak, desira hatsan-gak -mihiak lurtean herrestan- eta apal-keriak dira gogo-bihotzean jaun eta jabe. Ipuin bakoitza ihes molde bakun baten ikurra dela erants genezake, eta ber denboran, salbabide bilatze anker inizatitokoa. Betiko ixtorioa: ez zituen Axularrek ere dei berdintsuak oihuskatzen?

Azaleratzen den bortizkeria, atzoko euskal idazleek hiriaz zuten ikuspegi nihilistari hurbiltzen dira: Mad Max eta Blade Runneren artean nabarmentzen da, mundu honetan biolentzia zapaldua eta barmar-tua denaz gain, gune intimoetan suspertzen dela; zer da itxuraz bederen sexuaz bezain intimoagorik? Biolentzia intimista, indibidualista ondorioz, hedatzen da azkenean, libertateak ekar lezakeen jende erresponsabilitatea itzaltzeraino. Denek orok orain pentsatzen dute, metafora di-ferenten bidez, mundua preseki jungle bat dela eta ahulenak pairatu behar duela.

Katarsis berriz ere Bilbon.



MANHATTAN
EDORTA JIMENEZ
ELKAR





BILBAO A LA DERIVA
HEKTOR ORTEGA
LAHERA
TXALAPARTA, 245 or.

Bilboren nortasuna eta irudia aldatzera datozen hainbat proiektu indarrean daude. Milaka milioi pezeta xahutzen ari dira, Europako hiriburu garrantzitsua bihurtuko omen dena goitik behera aldatzeko. Hau guztia makillaje operaziotzat jotzen du ordea, Hektor Ortega kazetariak, Josu Ortuondok zuzentzen duen Bilboren benetako aurpegia zimurrez beterik dagoela dio, egoera kaotikoa dela, interes politiko eta ekonomikoak ezkutuko negozioen atzetik dabilzala. Datu eta irudiez jantzirik dator inbestigazio lan hau ■

PEDROTXO
MARTIN UGALDE
EUSKALTZAINDIA-BBK,
137 or

Euskaltzaindiaren Txomin Agirre saria irabazi zuen Martin Ugaldek 1993an eleberri honekin, eta hainbat sarirekin gertatzen denez, gero argitaratzea kostatzen... eskuetan dugu, eta liburutegietan, azkenez.

«Gerratean eta gerrondon urte luze-beltzetan jazarpen gaiztoa, espetxe, fusilamendu eta desterrua sufritu zuen Euskal Herriko Elizari eskaintzen dio andoaindarrak liburua, eta eskaintza horretan, Pedrotxo protagonistak urte beltz haien ingurumarian jasandako sufrikarioen nondik norakoa antzeman daiteke ■




**GORBEIA INGURUKO
ETNO-IPUIN ETA
ESAUNDAK**
JUAN MANUEL
ETXEBARRIA
LABAYRU-BBK,

LARATZ BILDUMA, 349 or. Juan Manuel Etxebarria, OHoko irakaslea eta Euskal Filologian doktorea dena, On Joxemiel Barandiaranen eskutik eta hark animaturik hasi zen ipuinak jasotzen, duela 17 urte. Denbora honetan, bere herriko (Bizkai-ko Zeberiokoa da) eta ingurutako 200 bat ipuin bildu ditu, berrogeita hamar informanteren ahotik. Uzta hori jasotzen du liburuak, esaundak direla, bertsoak, koplak, kontuak... Gorbeia inguruko herri-altzorraren testigantza duzu beraz, orriotakoa ■

**ANUARIO DE
EUSKO-FOLKLORE**
JOXEMIEL
BARANDIARAN
FUNDAZIOA, 179 or.


1921. urtean On Joxemiel Barandiaranek sortua, orain arte Eusko-Folklorearen Urtekariaren 38 ale argitaratu dira, tradiziozko euskal kulturaren berri emanez. Eusko Ikaskuntza eta Aranzadi Zientzi Elkartearen eskuetatik pasa ondoren, Joxemiel Barandiaran Fundazioak hartu du bere ardura, eta aurtengo aleak etnografia eta paletnografiaren inguruko azterketak dakartza. Ander Manterolaren zuzendaritzapean, guztira bederatzita lan bildu dira urtekarian, galtzen edo desitxuratzten ari den bizimodu tradizionalaren hainbat ohitura- ren inguruan ■




Hontza
LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4
Tel. 42 82 89 Faxa: 43 12 56
20 004 DONOSTIA

**Euskal Herria
ekologiatik eraikiz**



EUSKAL HERRIA EKOLOGIATIK ERAIKIZ EGUZKI

Eguzki erakundeak hitzaurrean adierazten duenez, lanean daramatzan zazpi urte hauetako esperientzia oinarritzat harturik egindako hausnarketa luzearen ondorioz sortu da liburua, eta Euskal Herriko ekosistemarentzat garapen eredu alternatiboaren inguruan eztabaidatzeko tresna baliagarria izatea bilatzen du ■

Festa eta erreibindikazioa

Asmo apal horrekin behar du egina Lin Ton Taun-en musika, edozein herriko festa alaitzeko, txoznetako musika e-kipo zatar horietan entzuteko, burua astinduz. Dena den, Lin Ton Taun taldearen bigarren lan honetan, hobekuntza nabaritu da instrumentista mailan, baina bide luzea gelditzen zaie, beraien instrumentuetan konfiantza gutxi dutela ematen bait du zenbait momentutan. Abestiak ximpleak dira, estrukturak behin eta berriro errepikatzen dira abesti guztietan.

Estilo nahasketa ona da, baina Lin Ton Taun-en estilo nahasketari zerbait falta zaio, *bard-core* metalikoa erabiltzen dute ardatz


gisa, bertan *funky-a*, *thrash* piska bat, *skaldera* begirada tipi bat, eta beraien nortasun zigilurik garrantzitsuena, trikitixa korapilatuz. Amerikako Rock kultura Euskal Herriko musikaren sustraiekin elkarlotuta. Ideia ongi dago, baina emaitzak ez dira guztiz borobilak, konposaketei gatza falta zaie, baita teknika ere, eta aho-tsen melodiak oso kaxkarrak dira. Hortxe izan beharko luke festa. Eta erreibindikazioa, nola ez, le-tretan dago eta horrela izateko ulerterrazak dira baina ulerterrazegiak nerez-zako, topikoz beteta; mezuak jantziagoa beharko luke, landuagoa... Hau dute arazoa; bai musika eta



NOLA ESAN DEK? LIN TON TAUN ESAN OZENKI

bai letrak gutxi landuta daudenaren irudia ematen dute.

Baina tira, emaitzak azken batean salmentak dira eta alde horretatik, badi-rudi euskal gazteriak ez diola ezer gehiago eskatzen Lin Ton Taun taldeari... Ea hurrengo lanerako nik beste ezer eskatzeko arrazoirik ez dudana.



ERRAIEN IRAULTZA BALDIN BADA ESAN OZENKI

Irungo taldeak hamar urte bete ditu euskal musikaren erraietan, etenaldi eta gorabehera askotxorekin. Ajeak alde batera utzi eta, indarberriturik datoz baina, erritmo

nahasketen aldeko apustua eginez beren laugarren disko honetan.

Hamabi kanta dira, *reggae* eta rockaren ingurukoak, funk eta jazz ukituak ere nabarmentzen direla. Elkartasunaren aldeko iraultza azpimarratu dute letratan.

Hainbat aldaketa badira «Baldin Bada» taldean: Dani gitarra joleak utzi eta Oscar sartu da. Kandi teklatu jolea itzuli da, estreinako diskotik taldetik at egon ondoren. Katu kantaria, Xanti baxu jolea eta Iban bateria joleak osatzen dute bostekoa ■

ARGITALPEN BERRIAK

"KUKU" SAILA

- PRAKAGORRI 5
- PRAKAGORRI 6

**AUKERA
ZABALA!!**



Pasiotarrak - 48290 ● EUBA ☎ 6308036 FAX: 6308028



Uda bitartean gutxienez gure etxeetan izango dugu «Pedro Subijanaren menua».

Egunero sukaldari famatua etxean

Karlos Argiñano eta Pedro Subijanak egunero eskaintzen dituzten plater goxoak eta sukaldaritzak aholkuak Euskal Herriko ia etxe guztietan jarraitzen dira. Honen adierazgarri da astero jasotzen duten gutun kopuru izugarria. Plater ezagun eta ezezagunak, nola prestatzen diren modu ulerkorrean azaltzea da «telebistako sukaldari» hauen lana.

EZAGUNENAK Karlos Argiñano eta Pedro Subijana sukaldariek egindakoak izan badira ere, ETBk betidanik izan ditu sukaldaritzak programak; «Zopa Handi», «Lapikoka» eta orain berriz jartzen ari diren Argiñanoren «14 euskal sukaldari», besteak beste.

ETBk bezala, sukaldaritzari tartea eskaintzen dioten telebista ugari daude munduan zehar. «Mundu mailan betidanik egon dira sukaldaritzak programak eta beti egongo dira, sukaldeak beti

erabiliko da programak egiteko, egunero jaten baitugu», azaldu digu Videobai produktorako Josu Erguinekin. Produktora honek Argiñano eta Subijanaren saioak grabatu zituen 1990 eta 1994 bitartean. Orain Portugalerako sukaldaritzak programa bat egiten ari da.

Jarraian grabaturiko saioak

MOTA honetako programak asteen behin edo hilabeteetan hiruzpalau egun jarraietan grabatu ohi dira. Montajea-

ren azpiegitura; unitate mugikorra, argiztapena, soinu instalazioa..., guztia oso garestia da eta jende asko behar du. Ezinezkoa da egunero montaje hau egitea saio bakarra grabatzeko. Hau dela eta programa desberdinak grabatzen dira segidan eta ahal den etekin handiena ateratzen zaio instalazioari. «Ez da arazo asko ematen duen lana, edozein grabazioetan sor daitezkeen arazo teknikoak alde batetik, eta ikusleentzat interesgarriak izan daitezkeen gauzak

kontatu behar direla kontuan izan beharra, besteik», esan du Josu Erguinekin.

Saioen prestakuntza eta grabaketan 20-25 lagun inguruk hartzen du parte: sukaldari, sukaldari laguntzaile, teknikari taldea eta produktzio taldea barnean da goela. Plater guztien fase desberdinak ondo pentsatuak eta erdi prestatuak egoten dira grabaketa hasi aurretik, bestela denbora asko galtzen baita.

Sukaldaritzak hedatu nahia

Telebistaren bidez jende gehiagorengana iristea lortzen dute sukaldariek, eta hau da euren nahia, gizarte osora zabaltzea, alegia. «Telebistaren bidez sukaldaritzak zabaltzea nahi dut, sukaldaritzarekiko filosofia eta sentimendua hedatu, nire jatetxera etortzeko aukerarik ez dutenengana iritsi nahi dut», azaldu digu Pedro Subijana sukaldari donostiarrak.

Telebistan saio bat izateak ate asko irekitzen dituela ez dago ukatzerik. Sukaldariek, esaterako, liburuak argitaratzen dituzte telebistan egindako errezetekin. Egunkariak ere errezetok argitaratzeko erabili izan dituzte. Bide hauetaz gain, bideoak ere erabili izan dituzte. Subijanak, adibidez, lehen liburuarekin bideoak egin zituen baina ondoren ez zuen gehiago egin, «erabiltzeko deserosoagoak dira eta prezio aldetik garestiagoak direlako. Liburuak erabiltzen ererazagoa da. Bideoaren lehen esperientzia ez zen espero bezain ona izan», argudiatu du Pedro Subijanaren.

AINHOA GERRA

Manu Maritxalar: «Sergio Reyk urrutira iristeko aukera du»

Ordutegi aproposa ez badu ere, jarraitzaile fidel ugari dauzka Pedro Mari Goikoetxea eta Manu Maritxalarrek ostiral gauero aurkezten duten «Boxeo Izarrak» saioak. Zazpi urtetan eskainitako norgehiagoka eta albiste guztiei esker, oraingo puntako boxeolariez gain beste garaietako izen ezagunak ere ezagutzea posible egin du saioak.

«Boxeo Izarrak» saioa Euskal Herrian boxeolaritza zabaltzen ari al da?

Zabaltzen ez dakit, baina mantentzen behintzat bai. Inguruko boxeolariren batek txapelketa jokatzeko duenean hurrengo egunean jendeak boxeoz hitz egiten duela ikusten da kalean. Gure saioa jarraitu dute eta hau oso pozgarria da. Hala ere,

ordutegia oztopo handia da. **Baina ikusle leialak dituzue.**

Hori ikaragarria da. Audientzia zenbakiak ikusita gezurra dirudi. Duela urte bat inguru aldaketa batzuk izan genituen, astelehenetik ostegunera, ostiralera... eta berdin zen, jendeal leial jarraitzen zuen, ia guk baino hobe zekiten zein egunetan

emitituko zen programa.

Nolatan hasi zinen komentarioak egiten?

Boxeatzen nobilela elkarriketa egitera joan nintzen gonbidatu bezala. ETBk Tysonen konbate bat eman behar zuen eta komentatu nahi nuen galdetu zidaten. Aurrera jarraitu eta orain arte...

Tyson aipatu duzu, txapelak berreskuratzeko moduan ikusten al duzu?

Berak nahi badu bai, ez dut zalantzarik. Oso gaztea da eta pisu handi bat izateko sasoirik onenean dagoela esango nuke. Hiru bat urte ikaragarri gelditzen zaizkio. Bere erlijio aldaketak direla eta zentratuago dago eta behar den bidetik joatea lortzen badu, ikaragarria izan litekeela pentsatzen dut, lehen baino handiagoa.

Eta Euskal Herritik, puntako boxeolaririk atera al daiteke?

Txapeldungai batzuk baditugu, Sergio Rey esaterako. Zorte txarra izan zuen Espainiako txapelketan baina orain ondo dabil. Berak ere bide egokia aukeratu du eta nahiko urrutira iritsi daiteke. Boxeoa nahiko sasoi onean dago Euskal Herrian. Askoz ere momentu latzagoak bizi izan ditu.



«Ordutegia oztopo handia da». (Arg.: Garaialde).

AINHOA GERRA

TXORI BATEK

ESAN DIGU

ETBk Bruselan duen korrespondentzia aldaketa gehiago egon dira azken egunotan. Duela gutxi Mikel Agirre New York-era joan eta Felipe Etxebarriak bete zuen bere lekua.

Oraingoan Maria Jesus Gerra kazetaria da gora-behera familiarrak direla-eta Bruselatik Euskal Herrira datorrena. Kamera aurreko lana utziko du baina laster Donostiako Euskadi Irratiko sintonian entzun ahal izango dugu. Felipe Etxebarriak ere irratirako kronikak egiten ditu Bruselatik.

Apirilean «Bideo denda» zerbitzu

berria jarri du martxan ETBk. Honen bidez, berak eginiko produktuak (dokumentalak, serieak, kirol ikuskizunak...) eta saltzeko eskubideak dituenak salduko ditu.

Zerbitzu berriak bi fase ditu; lehen fasean batez ere euskarazko produktuak bultzatuko dira. Apirilaren lehenetik aurrera, fikzio eta animazioko euskarazko filmak eskainiko dira. Bideoen salmenta neurriak 1.695 eta 995 pezeta bitartekoak dira.

350 mila ikusle izan dituzte ETBren euskal kateak taularatu berri dituen «Hook» eta «Nere neska» filmeek. Euskarazko telebistan ikusle gehien izandako filmak izan dira.




■ «Zebra: Patterns in the grass» dokumentala «National Geographic»-en

Irudi ikusgarriez osaturiko dokumentalak eskaintzen darrai «National Geographic» dokumental saioa. Oraingoan, zebren istorio zoragarria filmatu dute Dereck eta Beverly Joubert errealdoreek. Marra zuri eta beltzez apaindutako zaldi-antzeko hauek Afrikan barrera egin ohi duten migrazio bidaia, alegia. Zebrek lehoi gosetien artean erdizten eta arrak elkarren artean borrokan ikusi ahal izango ditugu asteazken gauean. (Asteazkena, 12a, 22.50tan)

■ Juan Mari Lekuona poetak «Bizileku I» irakurriko du «Kantuz Bizi»-n

Poeta honetaz gain, euskal kantari ezagunak bilduko ditu Imanolek astelehenero aurkezten duen saioak. Mikel Laboak «Gure bazterrak» abestuko du, Pier Paul Bertzaitzek «Maitia nun zira», «Geldirik ez egon» Rupert Ordorikak eta «Nafarroa arragoa» Xabier Letek. Imanolek, bestalde, «Poeta kaxkar bat» kantatuko du.



(Asteleena, 17a, 23.20etan)

■ «Inoiz kontatu den historiarik handiena» kontatuko digu ostiralean ETBk

Aste Santua dela eta, erli-jio giroko filmea aukeratu dute ETBkoek. George Stevens-ek 1965.ean eginiko filme honetan Testamentu Berriaren egokitzapena egiten da. Max Von Sydow, Charlton Helston eta Van Heflin dira bi ordu pasatxoko pelikulako aktore nagusiak. (Ostirala, 14a, 20.40tan)



■ Futbola nagusi larunbat arratsaldean

Arratsaldeko seietatik hamaikak bitartean, futbola izango da nagusi ETBren pantailan. Lehen partidua bigarren mailakoa izango bada ere, lehen mailakoa izango da bederatzietan

«ETB Kirolak» saioaren berran hasiko dena, Espainiako futbol ligako At. Madrid- Real Madrid.

■ Manolo eta Estitxu Arozena «Iparra»-n

Kulturarekin harremana duten gai desberdinak jorratuko ditu «Iparra» saioak. Manolo eta Estitxu Arozena buruzko erreportaia, Moskuko baletari buruzkoa, Bernardo Atxagari elkarrizketa, Bilboko Musika Sakra kontzertuei buruzko lana eta F. Mangado arkitekto sarituari buruzko albiste nahasketa. (Osteguna, 13a, 00.00etan).

Datorren astean, berriz, euskal bideoklip-gintzaren historia jorratuko du «Iparra»-k. Errealizatzaileak, diskografikak eta taldeetako partaideak elkarrizketatuko dituzte. Nazioarteko diskografia handiak eta sortzen ari diren formato berriak ere aztertuko dituzte.

Z A P P I N G

Dokumental interesgarriak Eibarko Kateberria Telebistan

Dokumental eskaintza oparoa zabalitzen du astero Eibarko telebistak, eta datorren asteko programazioa ere halakoa da. «Belakiak», «Eva Peronen misterioa» eta «La ruta de la seda: los viajes de Xuan Zang» izenburua dutenak eskainiko ditu datorren astean. Eva Peroni buruzko dokumentala hiru egunetan banatu dute. Ostegun eta ostiral honetan, berriz, «Muskuluak», «La ruta de la seda: la ruta de los reyes» eta «Elvisen historia» ikusiko ditugu.

Filme eskaintza ere begirada bat emateko modukoa da, titulu izagunak ikusi ahal izango dira euskaraz eta gaztelaniaz.

Herriko jende ospetsua eta ez ho-

rreren ospetsua elkarrizketatuko du Andoaingo Kanal-On telebistak

Jadanik grabatuak dituzte elkarrizketok eta laster emitituko badituzte ere, oraindik ez dute zehaztu noiz hasiko diren eta zein ordutan ikusi ahal izango den. Herriko kirolariak, ekologistak, aldizkarietako kolaboratzaileak... elkarrizketatuko dituzte. Herriarekin harremana duen jendea, azken batean.

Zarauzko herria eta herritarrei buruzko informazio ugari Zarauzko Telebistan

Asteazkenean, hilak 12an, gazteei zuzenduriko «Oraingo gazte hauek» saioa eskainiko du Zarauzko Tele-

bistak. Jone Alberdi eta Agustin Ezzenarro dira aurkezleak. Aitziber Egurbide eta Oihana Atorrasagasti soinu-jole zarauzarrak dira aste honetako gonbidatuak.

Ostegunean, Juan Mari Zubiaurrek aurkezten eta zuzentzen duen «Udal herria» programak Abedaño Industriadeari buruzko erreportaia interesgarri bat eskainiko du. Angel Irastorza Zarauzko Udaletxeko Hazienda eta Hirigintza zinegotzia ere elkarrizketatuko du.

Ostiralean albistegiak izango du bere tarte. «Bost Egun» albistegian, aste osoan zehar izandako gertakizunen erreposoa egingo da. Herriko gertakizun nagusietan oinarrituta, albiste hauek guztiak zarauztarrei ondo sakontzea da Idoia Etxeberría eta Itziar Iturriaren nahia.

Meza etxean daukagu goizero

Mezara gero eta jende gutxiago joaten dela entzun dugu askotan, baina egunero meza emititzen duten irratiek entzule ugari dutela diote. Goizero meza eskaintzeaz gain, arratsalde partean errosarioa ere entzuten da zenbait irratiren sintonian.

Arrate, Segura, Loiola eta Bizkaia Irratia dira goizero meza euskaraz zuzenean eskaintzen dutenak. Bizkaia Irratia Begoñara joaten da astegunetan, Ondarroara larunbatetan eta Zornotzara, berriz, igandetan, goizeko bederatzietan beti. Loiola Irratiak ere goizeko bederatzietan emititzen du meza. Normalean Loiolako Basika-

tik egin ohi du, baina noiz-behinka Donostiako Artzain Onaren Katedraletik ere zabaltzen du.

Segura eta Arrate Irratiak meza gain errosarioa ere eskaintzen dute, bai grabatua bai zuzenean. Errosarioa errezatu aurretik hildakoen aldeko dedikatoriak egiten dituzte. Normalean 20-30 minutu irauten dute baina



Loiola Irratiko entzuleek Loiolako Basilikako meza entzuten dute goizero.

luzeagoak ere egin izan dituzte. «Azaroan ordubeteko dedikatoriak egiten ditugu. Orain esaterako urria bitartean dena bartua dugu», azaldu digu Arrateko Bernardo Ibarrek.

Arrate Irratia urte askotan egon da mezarik eman gabe. Ematekotan produktu ona eskaini nahi zuen eta Mutri-

kun topatu zuen bilatzen zegoen meza mota: «Bizia, laburra eta ez aspergarria». Topatu duten elizara egunero 80 bat lagun joaten dira mezetara, mojek abesten dute eta organoa ere bada-go. Entzuteko moduko meza da.

AINHOA GERRA

B A G A K

■ Nafarroa Behereko Haur Kantu Txapelketa Irulegiko Irratian

Hilak 18an, goizeko 10.30ak eta eguerdia bitartean, Nafarroa Behereko Haur Kantu Txapelketako saioa entzun ahal izango dugu Irulegiko Irratian. Bigarren zatia izango da, lehena pasa den asteartean entzun baikenuen.

Ostegunerako, bestalde, intsumisioari buruzko mahaingurua antolatu dute, hilak 13an, 7.30etan.

■ Euskadi Irratiak programazio berezia izango du Aste Santuan

13tik 17ra bitartean programazio berezia izango du Euskadi Irratiak. Bederatzietan bertso saioak (igandean hamarretan), Axun Muñago-

rrik kontaktzen dituen ipuinak jasotzen dituen «Kontu kontari» saioa eta udan entzun genuen «Amerika eta euskaldunak» irratsaioaren azken hamar kapituluak ere berreskuratzen dira, egunero gaueko zortzietan. Saio hauek eta beste askoz gain, eliz giroko programa bereziak ere izango dira.

■ Segurako prozesioa bertako irratian

Asteazkenean, 11.30etan, Segurako Prozesioari buruzko elkarrizketa luzea egingo da prozesioan parte hartuko duten gonbidatuekin. Ostegun goizean prozesio pausoen adierazpena eta Arantzazurekin konexioa 5.30etan. Ostegun ia osoa Arantzazutik eskainiko da.

A U R P E G I A



Bernardo Ibarra (Arrate Irratia)

1952.ean Iurretan jaioa dugu Arrate Irratiko ahots ezagun honen atzean da-goen gizona.

Irratia itxia zegoen eta ireki-tzeko ahaleginak egiten hasi zen duela 21 urte. Badira 12 zabaltzea

lortu eta bertan lanean dabilela. Bi lanetan bate-ra zebilela egin zituen lehen lau urteak, irratian eta enpresa bateko bulegoan. Baina azkenean irratia irabazi zuen.

Egun, 5 lagun daude plantilatan, eta hau dela eta lan ordu ugari egin behar izaten dituzte irratia aurterra atera ahal izateko.

Bernardok ez du kaze-taritzatik ikasketarik, irratigintza o-gibide bokazionala du. Irratia asko entzun izan du betidanik eta, «bates ere euskal giroko irratia entzuten ditut, besteetan aldean oso desberdinak direla uste baitut» azaldu digu.

APIRILAK **15** LEKEITION KONTZERTUA

Lekeitioko pilotalekuan Su Ta Gar, Etsaiak eta Maquina taldeek kontzertua eskainiko dute gaueko 22.00etan.

THE CARRYING SOCIETY

Gaur bukatzen dira Donostiako San Telmo Museoa eta Gasteizko Uren dpositio zaharrean, Gipuzkoako Arteleku arte forumak eta Gasteizko Udalak antolatutako erakusketak. «Zuzi baten antzera-Hots guneak», VIH birusak jokatuko pertsonen bildutako testigantza jaso du, soinu eta testuez lagunduta.

NAZIOARTEKO DANTZEN LEHIAKETA

Miarritzeko Jaialdien Palazioan na-


zioarteko dantza kontserbatorioen arteko lehiaketa egingo da gaur eta bihar.

BAZTANDARREN BILTZARRA

Baztandarren Biltzarra 95 ospakizunerako irekitako kartel lehiaketaren azken eguna da gaur. Gogoratu, «Baztandarren Biltzarra 95- Elizondo. Uztailearen 16an. Euskarak batzen gaitu» testua agertzen den kartela, B.B. Elkartean aurkeztu behar dela.

DEBAN BERTSO IKASTAROA

14 urtetik gorakoentzat apirilaren 26a bitartean bertso ikastaroa dago Deba-ko Kultur Elkarteko Aretoan. Ikastaroaren matrikulak 500 pezeta (20 libera) balio ditu ikasle eta langabe-tuentzat eta 1.000 pezeta gainontze-koentzat.



Oiartzungo Udaleko Kultur Sailak Xanisteban Jaiak iragartzeko kartela hautatzeko asmoz, Kartel Lehiaketa antolatu du. Parte hartu nahi duten guztiak maiatzaren lehen bakoitzean aurkeztu behar dute beren lana Udalean.

I H E S I

Santiago bidea

Errioxako ibilbide monumentalari Santiago Bidea jarraitzen duena da, Logroñon hasi eta Santo Domingo de la Calzadaraino luzatzen dena, komunitatea ekialdetik mendebaldera gurutzatuz. XI. mendean Nafarroako Antso III Handiak egina-razien ibilbide honen sorrera Logroñon bada ere, Najeratik eta Santo Domingo artean dagoen bidea proposatzen dizuegu.

Najerako alde zaharrean bideak Najerilla erreka gaineko zubia igarotzen du. Errekaren bidea hartu eta Tricio herrira abiatuko gara.

Ibilbidean aurrera egiteko C-113 bidera zuzenean ala Arenzana de Abajo herritik

bueltatzea emanez iritsi zaitzake. Kasu honetan, bisitatu XVI. mendeko eliza. Jarraian, Baños de Rio Tobiara iritsiko zara.

Hemendik Bobadillara, Ledesma de la Cogolla eta Pedroso igaroz C-113ra iristen da bidea. Aldapan gora dauden harkaitzek Anguiano erakusten digute, mendian sartutako hiru auzoz osatzen den herria. Anguianotik aurrera, paisaje zoragarrien lekuko egingo zaitu ibilbideak. Inguru honek guztiak duen arkitektura ederraren jabe egingo zinen dagoeneko, eta Bobadillara itzultzeko ordua iritsi zaizu, San Millan aldera doan errepidea hartzeko.



San Millango haranean sartu eta agerian geratzen dira ondo landutako soro eta baratzenak. Mendiska artean Villaverde De Rioja pasatu eta berehala iristen da San Millan de la Cogollara, inguruko eremu historiko eta monumentalena.

Herri dexentetatik igaroko zara oraindik, helmugara

iritsi aurretik. Berceo, Villar de Torre, Cañas (Santa María del Salvador abatetza bisitatzeko ia beharrezkoa da), Hervias eta Bañaresen ezaguri arkitektonikoen gozatu- tuko duzu, beste askoren artean.

Santo Domingo de la Calzadan bukatzen da ibilbide motz eta interesgarri hau ■

ERAKUSKETAK GETXON

Apirilaren 22a bitartean Getxoko Kultur Etxeak antolatuta erakusketak egongo dira Erromoko eta Algortako Erakusketari Aretoretan. Begoña Zubieta eta Ignacio de Churrucaren lanak dira erakutsiko direnak.

APIRILAK 17 astelehena

IDAZLEEN BILTZARRA

Saran, Euskal Herriko Idazleen Biltzarra egingo da egunotan.

APIRILAK 18 asteartea

PIANOA INTERPRETATUZ

Bilboko Bidebarrietako Udal liburutegian, pianoa jotzerakoan nola interpretatu behar den jakiteko ikastaroa egingo da. Hiru egun iraungo ditu ikastaldi honak eta Roberto Bravo izango da ir-

kaslea. Ikastaroari buruz informazio gehiago nahi izanez gero deitu 424 28 51 telefonora.

ZINEMA IHARDUNALDIAK

Getxo Antzokian, «XII. Haur Zinema Ihardunaldiak» hasiko da gaur. Hiru egunetan luzatuko den ekitaldi honetan honako filme hauek izango dira ikusgai: «La Historia Interminable III», «El Regreso de Lassie» eta «Picapiedra». Zinema jardunaldi hauetarako sarre-rak 200 pezeta (8 libera) balioko ditu.

ZINEMATIKA BILBON

Akira Kurosawaren zinemagile japoniarraren «El trono de sangre» («Kononnosu-Jo») filmea izango da ikusgai, Arte Ederretako Museoa antolatutako zinematikaren barruan. Arratsaldeko 17.00etan emango zaio hasiera.



Bilboko Arte Ederretako Museoa
Serge Vandercam eta Christian Dotremont artisten «Barros y Barrologisimos» erakusketa zabaldua izan du apirileko hilabete osoan, eta aste honetan ere ikusgai izango dute hurbiltzen diren guztiak. Aipatutako bi autoreen lanez gain, Arne Jacobsen-en «Arquitecto y diseñador» izeneko erakusketa zabaldua izango dute hilabete osoan zehar.
Serge Vandercam eta Christian Dotremont artisten erakusketa «Areto Grisean» kokatu dute eta Arne Jacobsen-en lanak, osterara, Museoaren Atarian.

M O K O F I N A


Arrautza frijituak

Hiru padera txikia, garbia, honetarako bakarrik dabiluzuna jarri behar bat olio garbia (bitan erabilia, gehienez ere, honik aurrera toxiko bilakatzen delako) eta ipini sutan. Bitartean, arrautza asko badituzu, eduki eskura bi apartzera edo bitsadera (bata berotu denean, bestea erabiliko dugu, zuringoa tresnari isats ez dakion) eta bi plater: bat, arrautzak hausteko eta bestea frijitutakoan bertan uzteko.

Hautsi arrautza bat plater erizaren kontua. Kendu oskol puskak. Jarri eskua paderaren gainean, hurbil eta beroa jasagarria ez bada

bata behin arrautza plateretik oliotara, gerutik xuabe Bitartean, hautsi bigarren arrautza platerera. Paderan, zuringoa gogortu denean, erantsi olio apartzerraren bitartez gorringo gainera, behin eta berriz, estalkia zuritu arte.

Atera apartzera, beroegi egon ez dadin, eta zaude minutu bat oraindik. Arrautzaren azpitik sartuko dugu bitsadera eta arrautza oliotatik aterako dugu. Eduki




hortxe arrautza apartzera inkrima tua, gehiegizko olio txukatzen, eta utzi bigarren plateran.

Olio berotu zaizu dagoeneko bigarren arrautza frijitzen has zaitezke. Ondorengoa jatea da!

EDORTA AGIRRE

Asteko aholkua

Zartaginera ura erori delako edo, olio leherka hasten bazaizu, bota oliotara behazkada bat gatz hau ekiditeko. Baina, eduki badaezpada, estalki bat eskura. Hala eta guztiz, gatzik eranstea ez da komeni, arrautza frijitu politago irteten delako gatzik gabe. Hau gertatzea ohizkoa da eta banan-banan egin beharko ditugu hasieran, teknikaz jabetu arte ■



APIRILAK
19
asteazkena

ANTZOKI ZAHARREAN ZINEMA

Jean Renoirren zikloarekin jarraituz, «Los bajos fondos» filmea izango da ikusgai Donostiako Antzoki Zaharrean. Alexandre Kamenkaren produkziopean eta Bourgassof eta Bachelet-en argazkia ditu eta 20.15etan hasiko da saioa.

ERAKUSKETAREN AZKEN EGUNA

Basauriko Kultur Etxean Vicente eta Fernando Roscubasen margoak ikusteko gaur da azkeneko eguna. Jendearen partaidetza altua izan da protagonista erakusketa honetan.

BARAKALDON ZINEMA

Zinearen 100. urteurrena ospatzeko

antolatutako ekitaldi ezberdinen artean, «Germinal» pelikula botako dute gaur Barakaldoko Antzokian. Arratsaldeko 20.00etan hasiko da filmea.

APIRILAK
20
osteguna

LORAMENDIN HITZALDIA

Aretxabaletako Loramendi Euskara Elkartearen sendabellarrei buruzko hitzaldia antolatu da apirilaren 20rako. Kataplasmak, enplastoak eta labatibak nola egiten diren azalduko da hitzaldian, besteak beste. Iaz ere egin zen sendabellarrei buruzko hitzaldia, eta lehendabiziko haren jarripen gisa antolatu da honako hau. Oraingo honetan, Alberto Altube izango da hizlari.

Loramendi elkarteak Tril Emakume Taldeak antolatutako solasaldi honi, arratsaldeko 15.30etan emango zaio hasiera eta Loramendi Elkartearen bera izango da topaleku



Eusko Ikaskuntza elkarteak XIII. Biltzarra azaroan Zamudion burutuko duela eta, Kartel Lehiaketarako deialdia egin du. Elkartearen egoitzara igorri behar dira lanak.

E T X E Z U L O A N

Barazkien kimika


Sukaldeko jaki-tokian begiratu eta arriskurik egon ez daitekeen jakietan ustekabeko arriskurik topa dezakegu. Fruitu eta barazkiez ari gara orainoan.

Elikagai hauek baratzan jartzen diren ordutik, mota guztietako ongari kimikoz ziprintintzen dira. Hauek,



barazki ala fruituaren ezaguerri asko zapuzteaz gain, kaltegarri gerta daitezke osasunerako. Adibidez, barazkiak hazteko neurri gabe erabiltzen den nitratoa guretzat oso kaltegarria den nitratoa bilakatzen da digestio garaian. Horregatik da hain garrantzitsua hauen garbiketara. Prozesu honek, erabatekoa eta zentzuduna izan behar du.

Azelgak, ziazerbak eta letxugak, ongari hau luzaro mantentzen dute beregan. Hauen atzetik porruak, azenarioak, lekak, babarrunak eta opioa dira arriskutsuak. Janaria prestatu ala fruta jaten hasi aurretik, ongi garbitu elikagaia ■



Udaberri eta udako datorren altzari kolezioak, kultura eta bizitzeko estilo ezberdinek erakutsi nahi ditu. Kolore berok eginiko alfombra, tea hartzeko kizarak eta besaulki kolonialez osatutako modak, Marokko eta Turkiako itxura ekarriko dute gurera. Herri hauetan dagoen eskulangintzarako tradizioa eta material naturalak nahastea da altzari hauen oinarri eta indarrez sartuko direla diote ■



Lore freskuak denbora luzez ongi irautea nahi baduzu, azukre koilaradakatxoa, zazpi tanto lixiba eta izotz pixkat bota itzazu uretara.

Beste sistema bat ere baduzu, nahasketa beharrik gabe: egunero ala bi egunetan behin, zurtoinarene zentimetro bat zeharka ebaki eta hau egiten duzun aldiro ura berrizatu ■

MINERAL ETA FOSILEN ERAKUSKETA

Oiartzungo Manuel Lekuona Liburute-giko Erakusketa Aretoan, Euskal Herriko mineral eta fosilei buruz egondako erakusketaren azkeneko eguna da gaur. Euskal Herriaren testigantza ematen dute aurkikuntzok.

NAZIOARTEKO ORGANO LEHIAKETA

Mundu osoko kandidatuen artean aukeraturako musikari profesional eta amateurrek hartuko dute parte Miarrizteko Saint-Martin elizan egingo den Nazioarteko Organo Lehiaketan. Nazioarteko epaileek interpretazio eta inprobisazioko sari bana emango dute. Iparraldeko paraje ederrean musikaz gozatzeko aukera paregabea.

ROCKA GETXON

Herriko taldeak ezagutzera emateko sortu zen Pop-Rock lehiaketan Bluesffalobill eta Bullyson Blues Band taldeak arituko dira Gwendoline aretoan 20.00etan. Sarrera dohainik izango da.

BILLABONAN KANTALDIA

Gurea zinema aretoan Jabier Mugaruzak bere azken diskoa aurkezten izango da gaueko 22.30etan.

APIRILAK 21 BI EGUNEZ ANTZERKIA

La Cuadra de Sevilla antzerki taldeak antzeztuta, «Identidades» lana eskainiko da gaur eta bihar Barakaldoko Antzokian. Antzerkia saio hau, arratsaldeko 20.00etan hasiko da.

BILBO BERBETAN
Agenda



IBAZABAL

"La Bolsa" Auzo Etxea. Pelota kalea, 10. Tlf: 416 31 88

Bilbo Berbetan taldearen eskutik apirilaren 28an, ostiralean, Amona Kulixkaren ipuinak entzungai izango dituzte haurrek Zorrotzako Auzo Etxean.

J A K I N M I N E Z

Diseinaturiko giharrak

Anabolizanteen erabilera handia II. Mundu Gerran hasi bazen ere, 1988an egin zen ezaguna iritzi publikoaren aurrean, Ben Johnson korrikalariarengan hauen

erabileraren aztarnak topatu eta Seuleko Olinpiadetatik bidali zutenean.

Orduz geroztik, behin eta berriro debekatutako sustantziatan bilakatu dira anabolizanteak. Baina osasunean sortzen dituen eraginak ahantzi eta sarritan erabiltzen dira esfortzu txikiz eta denbora gutxian giharrak handitzeko asmoz.

Anabolizante guztien artean, esteroide androgenikoek sortutako ondorioak dira latzenetarikoa, baina besteen eraginak ere ezin dira ahaztu. Ondorio larrienen artean, bat-bateko heriotza sor dezaketen gibelean sortutako odolez betetako kisteak, kolesterol onaren pis-




Kafea berotzeko soberan egongo dira kafetera eta mikroondak. Ur beroa eta sua ere ez dituzu beharko etorkizun hurbilean, italiar enpresa batek bakarrik berotzen den kafea aurkitu baitu. Zertan datzan asmakizuna? Kafea pota batean ipini eta eskuarekin honen behealdean presioa egin behar da, ondoren 40 segunduz potoa astintzeko. Kafea bero eta prest izango duzu, besterik gabe ■

Urte dexente igaro da Leishmaniosis gaixotasunak gizakiarentzat arriskutsu izateari utzi zionetik. Gaixotasuna hor dago ordea, eta eragin berezia du zakuraren gainean. Gaitz honen eragileak, Phlebotomus eltxoak zitzadaren bidez igortzen duen bakteriatzat izaten da. Zeluletan kokatu eta gibela eta giltzurruna guztiz hondatzen ditu bakteriatzat honek eta aurre egiteko modu bakarra, insektiziden erabilera da ■

Denborapasa

Gurutzegrama



EZKER ESKUIN: 1.- Epaileek osaturiko erabakigunea. 2.- Bizkaiko herria. 3.- Esparru. Röntgenen sinbolo kimikoa. Ukatzeko. 4.- Berilioaren sinbolo kimikoa. Aran mota. 5.- Arnas ezak hila. Bat. Alderantziz, musu. 6.- Samoako dirua. Juntagailua. Bokala. 7.- Agian. Elizgizon. 8.- Sufrearen sinbolo kimikoa. Emeen azpiko janzkia. 9.- Kanpo. Neoiaren sinbolo kimikoa. Jainko egiptiarra. Kontsonantea. 10.- Nahastua. Gauero egin ohi dugu.

GOITIK BEHERA: 1.- Bi hizkuntza jakitearen tasuna. 2.- Hormatxoak. Tantalioaren sinbolo kimikoa. 3.- Areago. Burdinolak. Hidrogenoaren sinbolo kimikoa. 4.- Sendotasuna. 5.- Alkandoretako besoa. ... egin, agurtu. 6.- Lehen biak. Argoiaren sinbolo kimikoa. Bokala. Bokal bera. Bat. 7.- Herri bateko kidea. 8.- Landa. Bokala. Anfibio mota. 9.- Deitura. Bizkaiko herria. Berrogeita hamar. 10.- Alkate. ... egin, begiratu.

Kate hitzak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.



8 letra

Auzolana
Batzarra
Katamotza
Landarea

7 letra

Aterkia
Giltzak
Egutera
Urtarora

4 letra

Agur
Ahia
Aide
Aire
Alex
Alua
Anoa
Arin
Arte
Egon
Emea
Erro

Euli
Gaza
Ihia
Izai
Izko
Laia
Lera
Orai
Ubel
Xake
Zila
Zuen

2 letra

Aa
Ak
Ar
Ko
Le
UA
Ut
Zz

3 letra

Ele
Kui
TIR
Zil

ERANTZUN zenbakidunak bete ondoan, pasa ezazu letra bakoitza dagokion goiko taulako laukira eta grabatuan ageri den pertsonaiaren izena, Euskal Telebistako Goenkale saioko aktore baten izena ageriko zaizu.



1	2	3	4	5	6
7	8	9	10		

	Lerrokada	Azkarra	Gar	Noa, hari
	Emaztea hil zaiona	Mendialde ezaguna	Bizkaiko herria	
		10		3
Agin behar	Aranondoren fruitua	Nafarroako herria	Oxigenoa	
Antzinaran ez	Hizkuntza bi dakiena	Gora egin	Zauriturik	
	4			
Tantaloa	Lerdenak			
Marra	Jainko egiptiarra		7	
		Bokala	Akuri	
		Gabeziak	Makina-erreminta	
Suari daniara		Erdi Aro		
Aguzkoak herria	5	Ald. anaia		1
	Lehena eta azkena	Zero	Bat	(Infin.) Sartu
	Garai	Edari alkoholdun	Ogi, hitz elkarretan	
Konsonantea	Zarata			
Aldez aurretiko kalkulua	Ald. Irindoa	6		9
8			2	
Noen, hari		Ba... baneuka	Ez eme	

Hieroglifikoa

**Donostian bai,
Bilbon bai,
Iruñean bai,
Gasteizen bai,
Baionan bai**

Bidasoa aldean elurra egin al du?

Aurreko asteko soluzioak

	F	E	R	N	A	N	D	O
	A	R	R	E	T	S	E	
	L	H	A					
	S	E	G	A	I	L	A	
T	A	H	A	R	R	A	K	
T	X	E	R	P	O	L	A	R
I	L	A	R	R	A	I	B	
O	M	E	N	A	I	Z	A	T
E	B	A	K	I	A	K	A	R
E	L	I	A	S	K	E	K	A
E	D	U	K	I	U	N	E	
A	T	U	N	L	A	R	T	O
A	N	O	A	F	I	N	A	K

Gurutzagrama

EZKERENKU IN 1. Idazmakina. 2. Zirauna. 3. Urak Finak. 4. Kukusoa. 5. Ata. Arkeak. 6. Itzupa. 7. Taula. 8. Z. Atona. 9. M. Aspertu. 10. Kea. U.A. Osa. GOTIK BEHERA 1. Izakitzak. 2. Dirutzak. 3. Arakatu. 4. Zakur. Uta. 5. Mir. 6. Anora. Oja. 7. Katik. Ane. 8. I. N. 9. Nigara. 10. Askok. Luan.

Hieroglifikoa:

Bezere batzuk

Bosteko ttipiak

A 1. Ahuri. 2. Utsak. 3. Erosle. 4. Taloa. 5. Dikeak.
B 1. Bokale. 2. Kalak. 3. Baleki. 4. Lakua. 5. Zekian.

Kate hitzak

A	Z	A	L	B	E	L	E
A	R	I	N	A	B	A	R
E	M	A	K	U	M	E	P
T	A	E	S	A	L	D	I
Z	O	R	O	K	E	K	A
A	R	R	A	O	B	O	E
D	D	A	A	L	E	A	A
I	Z	O	K	I	N	A	K
N	I	K	M	A	K	U	L
O	R	I	A	I	A	I	Z
I	A	I	O	E	K	I	A

Bosteko ttipiak

	1		3		5
1		2		4	
	2				
3					
	4				
5					

- Bilboko elizatea
- Aldrebesak
- Txingurri
- Darama
- Buruaren alboetan ditugu

Zenbaki bakoitzeko hitz bat eta bera

	1		3		5
1		2		4	
	2				
3					
	4				
5					


- Donostiako auzoa
- Bihiak
- Zurgina
- Ur gazi
- Ekartzen dut

Zeberioaren hizkuntz errota

ARGITU beharrekoak argitu dizkigu, lehendik argi zeuzkatenez. Besteontzat, berriz, artikularen 'iluntasunean' aztarrika ibili beharra dago, esan duena baino askoz ere esanahitsuago baita esan gabe utzi duena. Horrelakoa da J.M. Zeberioaren artikulua («Hizkuntza politika argitu beharra», ARGIA, 1995-III-19).

Esan digu: «Zenbaitentzat euskara da Euskal Herriko hizkuntza nazional bakarra, gizarte estatus normaldua izan beharko lukeen hizkuntza bakarra. Euskal hiritar gehienentzat, berriz, euskara, gaztelera eta frantsesa dira Euskal Herriko hizkuntzak, eta onarpen honen ondorioz, gaztelaniarekin eta frantsesarekin euskara elkarbizitzea da hizkuntza politikaren helburua». Halere, sistema soziolinguistiko asimetrikoaren zapalkuntza ezin du ezkutatu artikulua bere osotasunean kokatuz gero. Demagun, 'hizkuntza' bakartzat euskara nahi duten horiek, elebitasun hegemonikoa edo elebitasun diglosikoa onartzen dutela. Ez gaude beraz, elebitasunaren kontra: elebitasun zehaztuaren alde baizik. Zeberioek eta bere irizkideek, komeni zaielako nonbait, elebitasun kontzeptu zehazgabe eta oportunistaren izenean, praktikan erdararen aldeko elebitasun diglosiko-hegemonikoarekin ezkondu nahi gaituzte beren balore demokratikoen aldean.

ELEANIZTASUNEAN, hizkuntza ezberdinen elkarbizitzan sinisten dugu: horra errosario ofizialaren hurrengo letania. Elkarbizitza eta integrazioa. Baina definituko al diguzu zertan hezurmamitzen diren balore horiek gaur eta hemen? Esango al diguzu, zehatz-mehatz, zertan datzan hizkuntzen arteko elkarbizitza? Edo ondorengo fedea-aitorpen hau hartu behar al dugu erantzun bezala?: «Hizkuntzen arteko elkarbizitzan sinisten dugu hiritarren arteko elkarbizitzan sinisten dugulako».



JOXE MANUEL ODRIEZOLA

EHEko kidea


Ez ote da hori gizarte-fenomeno baten gorabeherak ezagutzeko eta planifikatzeko gehiegi sinestea? Izan ere, inolako zehaztapenik ez duen hizkera soziolinguistiko hori erabilia Zeberioek dioena ulertzeko modu bakarra berak esaten ez dituen gauzetan aurkitu behar baita. Eta hor, esan gabe utzi duen horretan, euskararen aldeko elebitasuna aurkitu ordez, erdararen aldeko hizkuntz funtzio-banaketen sistema asimetriko bat aurkituko genuke. Auzia ez baita aho-beteka darabilzun elebitasun ideiarengatik inguruko eztabaida, zein elebitsun motarena baizik. Zeberioek izen-abizenez adierazi beharko liguke beren egitasmoaren zinezko asmoa. Eta, beldur gara, zantzu guztien arabera, izen-abizen horiek ez ote diren honako honetara biltzen: erdaltzale gehienek asebetegarri eta euskaltzale koitau batzuen inozogarrri gertatuko litzateke seguruenik zorioneko elebitasun anizkor eta tolerantzia hori.

ERLIJO-HIZKERAREN ildoari jarraiki fanatismoaren bekatutik begi-

ratu behar dela esaten digu Zeberioek: «Ez gara hizkuntzen fundamentalistak. Ez dugu euskara balore guztien gainetik jartzen». Hara, falta zena! Nondik atera duzu ale hori? Oso oker banago, ale hori, oraintsu arte bederen, ez da izan zuen errota ehotutakoa. Fundamentalismoaren kontu horiek espainolismoaren (Recalde, Arteta...) errotatik datoz, eta orain, dirudienez, ingurukoak hasi dira errota horretan euskararen zoria ehotzen. Esaidazu norekin zabilzan eta esango dizut zein erroatan joko duzun euskararen garaia.

AMAITZEKO, azken harribitxia: «Ez dugu euskararen alde egiten den guztia onartzen. Sistema eta balore demokratikoen barruan kokatzen dugu euskararen aldeko lana. Ez baita nahikoa Euskal Herria euskaldunagoa izatea askeagoa ez bada». Pentsatzekoa da, beste sistemarik ez dagoenez, Espainiako Konstituzioa oinarritzen duen sistema demokratikoaz ariko zarela. Espainiarrak sentitzen bazara, edo euskaldun izateaz gainera espainola ere sentitzen bazara, denetik baitako baratza hauek, oso ondo. Baina ez etorri hona sistema politiko arrotz eta inposatu baten izenean demokrazia-klaseak ematera. Hori batetik. Bestetik, berriz, 'askeago' izan nahi duzunaren kontu hori dela eta, gauzatxo bat. Askoz ere askeago izango ginatke guztiok euskararen politikari ematen diozuen balio sinboliko hori (A erdua; B erdutik lautik hiru; hizkuntz perfilen ezagutza-balio soila; gainerako gizarte esparruetako erabateko espainolizazioa...), balio komunikatiboan bihurtzeko, hartu behar dituzuen erabakiak hartuko bazenituzte. Bien bitartean, hizkuntz eta kultur espainolizazioa estaltzeko erabiltzen dituzuen hitz politiko-funtzionalok (aniztasuna, integrazioa, tolerantzia, elkarbizitza...) etsipenaren zamapean aguantatu beharko ditugu.

ZURE
ETXEBIZITZA



KUTXAREN
HIPOTEKA

ETXEBIZITZA EROSTeko MODURIK ERRAZENA

Hipoteka baten bila dabilzan guztiei, KUTXAren HIPOTEKA aurkezten diegu. Urte askotako geure esperientzia guztia bere baitan biltzen duen hipoteka. Arazoak konpontzeko pentsatutako hipoteka. Ez arazoak sortzeko.

- INTERES-TASArenгатik.
- AMORTIZAZIO-EPEArenгатik.
- FINANTZAKETA-ZENBATEKOarenгатik.
- Eta ZERBITZURIK ONENA eta AHOLKULARITZARIK OSOENA eskaintzen dizugulako. "ETXEBIZITZA EROSTeko GIDALIBURU ERRAZA" bame dela, gure edozein bulegotan eskura dezakezuna.

Etxebizitza erosteko modurik errazena sakon-sakonetik ezagutu nahi baduzu, zatoz zeure ohiko KUTXA bulegora edota deitu

900 41 20 20 telefonora. Eta hitzegingo dugu. Hipoteka

baten bila bazenbiltzan, azkenean, ZORIONAK.



kutxa

gipuzkoa donostia kutxa
caja gipuzkoa san sebastián

**Hiru BBK Gordailuekin
nota altu eta garbia ematen diegu
zure aurrezkiei...**



**BBK GORDAILU
HAZKORRA**



**BBK GORDAILU
EGONKORRA**



**BBK GORDAILU
OSOA**

**...eta orain, Biharplazo-ri esker,
atxikipenik gabeko**

**errentagarritasun handia
bermatzeaz gain,
bizia aseguratzen dizugu.**



BIHARPLAZO

Errentagarritasun handi,
finko eta bermatua.
Atxekipenik gabe.
Abantaila fiskalak.
Bizi aseguru.

BIHARKO, S.A.ren produktua

Euskal Aurrezki Kutxen Aseguru Bazkuna

MILIOI BAT PEZETATIK GORAKO EZARPENETARAKO



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

EZ DAGO GEHIAGO ESKAINTZEN DUENIK